



361(079.1)

**IRAKASLEEN
HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK
1996ko AZTERKETAK**



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria - Gasteiz, 1996

Argitaraldia: 1.a, 1996ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Fotokonposaketa: Didot, S.A.
Nerbioi kalea, 3 - 48001 Bilbo

Inprimaketa: Boan, S.A.
Aita Larramendi, 2 - 48012 Bilbo

ISBN: 84-457-1102-4

Lege-gordailua: BI-2125-96

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
I. 1996ko DEIALDI IREKIA	9
I.1. Deialdi irekia: HE1eko azterketa	11
I.1.1. Lehen proba: Aukera Anitzeko Galderak	11
I.1.2. Bigarren proba: Idatzia	25
I.2. Deialdi irekia: HE2ko azterketa	35
I.2.1. Lehen proba: Aukera Anitzeko Galderak	35
I.2.2. Bigarren proba: Idatzia	49
II. 1996ko LEHEN DEIALDI ITXIA	55
II.1. Lehen Deialdi itxia: HE1eko azterketa	57
II.2. Lehen Deialdi itxia: HE2ko azterketa	69
III. 1996ko BIGARREN DEIALDI ITXIA	77
IV. AHOZKO AZTERKETAK	81
IV.1. Ahozko azterketak: HE1	83
IV.2. Ahozko azterketak: HE2	91
V. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK	93
V.1. Kalifikazio-sistemaren azalpena	95
V.1.1. Erreferentzia nagusiak	95
V.1.2. Deialdi irekia	95
V.1.3. Deialdi itxiak	96

V.2. Idazlanak	98
V.2.1. Sarrera	98
V.2.2. Koherentzia	98
V.2.3. Kohesioa	100
V.2.4. Zuzentasuna	101
V.2.5. Bestelakoak	103
V.3. Ahozko proba	104
V.3.1. Sarrera	104
V.3.2. Osagai morfo-fonetikoa	104
V.3.3. Zuzentasuna	106
V.3.4. Lexikoa	107
V.3.5. Jariakortasuna	108
V.3.6. Bestelakoak	109
V.4. Probak baloratzeko irizpideen laburpena	110
V.5. Akatsak	112
V.6. Idazlanetarako eta ahozko probetarako baremoak	115
VI. ERANTZUNAK	121
VI.1. Deialdi irekiko erantzunak	123
VI.2. Lehen deialdi itxiko erantzunak	125
VII. ERASKINAK	127
VII.1. Estatistika-laburpena	129
VII.2. Arauzko xedapenak	131
VII.2.1. Lehen zehaztapena	131
VII.2.2. Ebaluazio-irizpideak	133
VII.2.3. Deialdi itxien kalifikazio-sistema	137
VII.2.4. Deialdi irekiaren kalifikazio-sistema	140

HITZAURREA

Beste urte batez argitara ematen dira irakasleen hizkuntz eskakizunen azterketak. Liburuxka hau azterketari izango diren irakasleengan pentsatuz argitaratzen dugu. Izan ere, edozein azterketariri baliagarri zaio benetako azterketak ezagutzea. Alde horretatik, programazio abstraktuak baino erabilgarriago izan ohi dira honelako materialak.

1996an zehar hizkuntz eskakizunen hiru deialdi nagusi egin dira: horietariko bi itxiak izan dira, IRALEn liberatuta egon diren irakasleentzat eratuak, eta hirugarrena irekia. Deialdi irekia eta 2. deialdi itxia egun beretsuetan egin ziren eta azterketa-material berberak erabili ziren. Azkenik, hiru deialdi nagusi horietaz gain beste deialdi txiki bat ere izan da, publikatutako ikastetxe batzuen irakasleei zuzendua. Azken deialdi honek deialdi irekiko arautegia izan zuen eta lehen deialdi itxiarekin batera egin zen.

Liburu honetan bi material-mota aurki ditzakezue:

- a) Azterketa-materialak: deialdi irekiko zein itxietako azterketa idatziak biltzen dira hemen, ahozko azterketen adibide batzuekin batera.
- b) Zuzenketarako irizpideak: azterketak zuzentzeko erabili diren irizpideak eta baremoak.

Horretaz gainera, ariketen erantzun zuzenak jasotzen dira, emaitzen laburpen estatistiko txiki bat eta hizkuntz eskakizunen inguruko arauzko erabakien laburpena ere eskainiz.

Material hauek guztiek aurtengo azterketak zer-nolakoak izan diren eta nolako irizpideez zuzendu diren erakutsi nahi dute ahalik gardenen. Euskara mailan sakontzen joan nahi duten irakasle guztientzat baliagarri izango direla espero dugu.

Edurne Gumuzio Añibarro
Pedagogi Berrikuntzarako zuzendaria

I. 1996ko DEIALDI IREKIA

I.1. DEIALDI IREKIA: HE1eko AZTERKETA

I.1.1. LEHEN PROBA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE1
Eredua: A

LEHEN PROBA: AAG

1996ko ekainaren 8a

1. deitura:
2. deitura:
Izena:
NAN zkia.:

OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzailleek jasotzeko moduan.
2. Atera ezazu suelto dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
3. Konproba ezazu koaderno eta erantzun-orria eredu berekoak direla.
4. Konprobatu azterketa honek 12 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
5. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak erantzun-orrian eta koaderno honetan.
6. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
7. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
8. Gelan ezin da erre.
9. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek azterketa-materialak jaso arte.

ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 asmatu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun egokiena aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Koaderno honetan **EZ** markatu erantzunik eta **EZ** idatzi.
- Erantzun okerrenatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira ekainaren 12rako.
- Gainditzen dutenek ekainaren 21ean izango dute HE1eko 2. proba, arratsaldeko 4,30etan.
- Bigarren proba horretan, nahi izanez gero, hiztegi bat ekarri ahal izango duzu HE1eko **idazlanak** egiteko.

01.-..... *politena da bera.*

- a) Umearengan
- b) Umeetan
- c) Umeengandik
- d) Umerengandik

02.-*Atzoko ariketa ez du egin.*

- a) inor
- b) inork ez
- c) inork
- d) inor ez

03.-*Txikitan astero amonaren etxera.*

- a) bildutzen ginen
- b) bilduten ginen
- c) biltzen gara
- d) biltzen ginen

04.-*Umeek gauza asko ikasten dute.*

- a) gurasoengandik
- b) aitengandik
- c) gurasoetatik
- d) aita-amatatik

05.-*Joan den larunbatean istripua izan genuenez, medikuarengana*

- a) joan behar genuen.
- b) joan behar izan genuen.
- c) joan behar izaten genuen.
- d) joan beharko genuen.

06.-*Aizu, Jon, ba al dakizu hori?*

- a) zeinek egin du
- b) zein egin duen
- c) zein egin du
- d) zeinek egin duen

07.-*Gaur goizean berandu joan naiz lanera;*

- a) zeren oso gaizki lo egin dudalako.
- b) izan ere, oso gaizki lo egin dut.
- c) oso gaizki lo egin baitudalako.
- d) izan ere oso gaizki lo egin dudalako.

08.-*Bihar eguraldi ona egingo du;, mendira joango gara.*

- a) ordez
- b) berez
- c) berriz
- d) orduan

09.-*Hori nahi izan zuelako izan zen.*

- a) esan bazion
- b) esan balio
- c) esango balio
- d) esango bazion

10.-*Lana ez zara kalera joango.*

- a) bukatzen ezean
- b) bukatu ezezik
- c) bukatu ezean
- d) ez bukatzenez gero

11.-*Zein esan duzu*?

- a) etorri denik
- b) etorri den
- c) etorri bada
- d) etorri dela

12.-*Ez dut uste sorginak printzea igel*

- a) bihurtu zuela.
- b) bihurtu zuenik.
- c) bihurtu zuenentz.
- d) bihurtu zuena.

13.-*Aurtengo udan leku ibili gara.*

- a) askoan
- b) askotik
- c) askotan
- d) askoetan

14.-*Ba al dakizu Isabelek argazkia?*

- a) egin duen
- b) egin badu
- c) egin duelarik
- d) egin du

15.-..... *ez zuen etxeko lanik egin.*

- a) Zenbait umeek
- b) Zenbait umek
- c) Zenbait umeak
- d) Zenbait ume

16.-*Jakin al duzu nork argazkia?*

- a) egin duenentz
- b) egin duen
- c) egin duela
- d) egin duena

17.-*Aizu Mikel, atzo zein joan zinen mendira?*

- a) neskakin
- b) neskekin
- c) neskarekin
- d) neskeekin

18.-*Mundu honetan jende asko dago euskara*

- a) daki.
- b) dakienak.
- c) dakiela.
- d) dakiena.

19.-*Gurasoek etxeko lanak*

- a) eginarazi zizkizuten.
- b) eginarazi zenituen.
- c) eginarazi zuten.
- d) eginarazi zizuten.

20.-*Aurrekoan ez zenigun ezer esan,*

- a) eta oraingoan ere.
- b) eta oraingoan ez.
- c) eta ez oraingoan.
- d) oraingoan ere ez.

21.-*Iaz donostiarrak nagusitu ziren; aurten,, gasteiztarrak.*

- a) ordez
- b) berriz
- c) beraz
- d) baizik

22.-*Esan beharrekoa esanda dago;, etxera joan gaitzke.*

- a) berez
- b) beraz
- c) aldiz
- d) baino

23.-*Bi asteren itzuli zen.*

- a) buruan
- b) barru
- c) buruz
- d) artean

24.-*Etxeko lanak zuzen egin izan balitu, saria*

- a) jasoko zuen.
- b) jaso luke.
- c) jasoko lukeen.
- d) jaso zuen.

25.-..... *etxetik* *nahi dute gure lagunek.*

- a) Seme-alabak / joan
- b) Seme-alabak / joatea
- c) Seme-alabek / joatea
- d) Seme-alabak / joaten

26.-*Datorren asteburuan Donostiara*

- a) joango beharko dugu.
- b) joango behar dugu.
- c) joan behar izan dugu.
- d) joan beharko dugu.

27.-*Atzo, etxera joateko, pasatu nintzen.*

- a) zure etxe aurreko
- b) zure etxe aurretik
- c) zure etxe aurrean
- d) zure etxe aurrez

28.-*Joan zen asteburuan primeran*

- a) pasatu zitzaigun.
- b) pasatu ginen.
- c) pasatu gintuen.
- d) pasatu genuen.

29.-*Mikelek hitz egin zuten hitzaldian.*

- a) aipatutako buruz
- b) aipatutakoari gainean
- c) aipatutakoaren gainean
- d) aipatutakoaren buruz

30.-*Irabazi gastatzen dut nik.*

- a) beste diru
- b) hain diru
- c) beste dirua
- d) bezain dirua

31.-*Nire lagunak zalapartatsuak zintzoak dira.*

- a) beste
- b) baino
- c) bezain
- d) hain

32.-*Gure txikiak oso polita egin du.*

- a) semea / bidai
- b) seme / bidaia
- c) seme / bidai
- d) semea / bidaia

33.-*Atzo Eroskin erosi zituen.*

- a) hogeituro esnea
- b) esne hogeituro
- c) hogeituro esne litro
- d) hogeituro esne

34.-*Nik itxura horrekin kalean ikusiko, ez ezagutuko.*

- a) bazintut / zintuzket
- b) bazintudan / zintuzket
- c) banizu / zintudan
- d) baninduzu / nizuke

35.-*Nik zuek atzo ondo baino hobeto ezagutu kalean.*

- a) nizkizuen
- b) zintudan
- c) nizuen
- d) zintuztedan

36.-*Guk askotan hori ez dela egokia.*

- a) esaten diogu geure buruari
- b) esaten digu geure buruari
- c) esaten diegu geure buruei
- d) esaten dizkiogu geure buruari

37.-*Gizon horrek gozokiak primerakoak dira.*

- a) banatzen duten
- b) banatzen dituen
- c) banatzen dituzten
- d) banatzen duen

38.-*Jar itzazue mahaiak*

- a) bata bestearen ondoan.
- b) bata bestearen ondora.
- c) batetik bestera.
- d) bata bestearengana.

39.-*Xabierri asko gustatzen zaio egotea.*

- a) sei urteetako umeekin
- b) sei urteko umeekin
- c) sei urteko umeekin
- d) sei urteko umerekin

40.-*Nire lagunei ondo jatea eta telebista ikustea.*

- a) asko gustatutzen zaizkie
- b) asko gustatzen zaizkie
- c) asko gustatutzen zaie
- d) asko gustatzen zaie

41.-*Aizu neska, nortzuk etorri diren?*

- a) ikusi al dituzu
- b) ikusi al duzu
- c) ikusi al zaituzte
- d) ikusi al dituzun

42.-..... *bilera egiteko handiak jarri zituen Anek.*

- a) Hurrengo / ostopo
- b) Urrengo / ostopo
- c) Urrengo / oztopo
- d) Hurrengo / oztopo

43.-Mikel atzo goizean etorri zen; ez zuen agindutakoa ekarri.

- a) hala ere
- b) berehala
- c) nola edo hala
- d) behintzat

44.-Aukera ezazu baliokidea: *Emaiozu oparia oraintxe bertan!*

- a) Eman diezaiozun oparia oraintxe bertan!
- b) Eman iezaiozu oparia oraintxe bertan!
- c) Eman diezaiokezu oparia oraintxe bertan!
- d) Emango diozu oparia oraintxe bertan!

45.-Aukera ezazu azpimarratutakoaren baliokidea: *Aitziber, joan zaitez aitarengana eta esaiozu etortzeko!*

- a) joan zaitezen / esaiozu
- b) joan dadin / esaiozu
- c) zoaz / esan diezaiozun
- d) zoaz / esan iezaiozu

46.-Aukera ezazu baliokidea: *Nahiz eta zintzoa izan, gaiztotzat hartu zuten.*

- a) Zintzoa baden ere, gaiztotzat hartu zuten.
- b) Nahiz zintzoa, nahiz gaiztotzat hartu zuten.
- c) Nahiz eta zintzoa den, gaiztotzat hartu zuten.
- d) Nahiz eta zintzoa da, gaiztotzat hartu zuten.

47.-Aukera ezazu baliokidea: *Joan gaitezen tabernara!*

- a) Goazen tabernara!
- b) Tabernara goaz!
- c) Goaz tabernara!
- d) Goazela tabernara!

48.-Bilatu honen esanahia: *Horrek ez du hurrengo kukurik entzungo.*

- a) Gorreriak jota dago.
- b) Laster hilko da.
- c) Ez da berriro mendira joango.
- d) Inguruan ez dabil kukurik.

49.-Aukera ezazu baliokiderik hurbilena: *Zeinek egin ote du?*

- a) Zeinek egingo luke?
- b) Zeinek egin lezake hau?
- c) Batek daki zeinek egingo duen!
- d) Auskalo zeinek egin duen!

50.-*Atzo nire lagunek hartu zituzten.*

- a) bosna kafe.
- b) bosna kafeak.
- c) bost kafe bakoitzana.
- d) bost kafena.

51.-*Ariketa hori, zure lagun horrek ere egin du?*

- a) Bai, ariketa ere egin du Jonek.
- b) Bai, Jonek ariketa hori ere egin du.
- c) Bai, ariketa hori Jonek ere egin du.
- d) Bai, egin ere egin du Jonek.

52.-*Nork erosi zituen sagarrak?*

- a) Kapela gorria zeukanak.
- b) Kapela gorriak zeuzkana.
- c) Kapela gorria zeuzkanak.
- d) Kapela gorria zeukala.

53.-*Bihar gure aita, zer ordutan etorriko da?*

- a) 5etan gure aita etorriko da bihar.
- b) Gure aita etorriko da 5etan bihar.
- c) Gure aita bihar etorriko da 5etan.
- d) Bihar 5etan etorriko da gure aita.

54.-*Aneri kontu hori esan al zenion?*

- a) Esango ez diot, bada!
- b) Esango ez nion, bada!
- c) Esan ez banion, bada!
- d) Esan ez nion, bada!

55.-Aizu, Jon, zurito bat nahi al duzu?

- a) Zurito bat? Zoratuta nagoela, ala!
- b) Zurito bat? Ezta zoratuta ere ez!
- c) Zurito bat? Ezta zoratuta ere!
- d) Zurito bat? Zoratuagatik ere!

56.-Zer egin genezake bihar?

- a) Mendira joan gintezkeen.
- b) Mendira joan gintezke.
- c) Mendira joan dezakegu.
- d) Mendira joan genezake.

57.-Beno agur, ondo pasa asteburua!

- a) Baita zuri ere!
- b) Bai eta zuk!
- c) Bai eta zu!
- d) Baita zuk ere!

58.-Non ibili zara gaur goizean?

- a) Horretatik zehar ibili naiz.
- b) Hor zehar ibili naiz.
- c) Horren zehar ibili naiz.
- d) Horregatik zehar ibili naiz.

59.-Umeari zenbat aldiz kontatu diozu ipuin hori?

- a) Behin.
- b) Aldiz bat.
- c) Bat aldiz.
- d) Behin batean.

60.-Aukera ezazu erantzun zuzena: *Miren, egin ezazu ariketa hori!*

- a) Baita zera ere, egin dadin Ainhoa!
- b) Baita zera ere, egin dezan Ainhoak!
- c) Baita zera ere, egin dadila Ainhoa!
- d) Baita zera ere, egin dezala Ainhoak!

61.-Zein da zuzena?

- a) Kontuz, erori egingo zara eta!
- b) Kontuz, erori egingo zarela!
- c) Kontuz, erori egingo zarela eta!
- d) Kontuz, eror zaitezten!

62.-Aukera ezazu gramatikalki zuzena dena.

- a) A zer eguraldi polita egiten duela!
- b) A zer eguraldi polit egiten du!
- c) A zer eguraldi polita egiten duen!
- d) A zer eguraldia polita egiten duela!

63.-Zein da gramatikalki zuzena?

- a) Datorren astean opari bana emango die elkarri.
- b) Datorren astean opari bana emango zaio elkarri.
- c) Datorren astean opari bana emango dio elkarri.
- d) Datorren astean opari bana emango diote elkarri.

64.-Lehenago egunean oso filme polita ikusi genuen. Aurkitu azpimarratutakoaren baliokidea.

- a) Beste egunean
- b) Aurreko egunean
- c) Beste egun batean
- d) Lehenengo egunean

65.-Hauetako zeinek adierazten du ondoen gorputzaldi txarra edukitzea?

- a) Aldartea
- b) Sesioa
- c) Ondoeza
- d) Onddoa

66.-Zein da gorputzaren aldea?

- a) Besapea
- b) Belarritakoa
- c) Besaulkia
- d) Besamotza

67.-Zerekin lotzen duzu **ilunabarra**?

- a) Eguberriekin
- b) Goizarekin
- c) Arratsaldearekin
- d) Eguerdiarekin

68.-Zein da azpimarratutakoaren sinonimoa? *Martin Fiz-ek ondu* du azkenean bere marka!

- a) on egin
- b) hobetu
- c) ontzat hartu
- d) onetsi

69.-*Hori esan zizun mutila oso* zen.

- a) itsusikeria
- b) harroa
- c) handinahikeria
- d) handikitasuna

70.-*Eskola-umeengan oraindik ohikoa da* aurkitzea.

- a) mandoak
- b) euliak
- c) azeriak
- d) zorriak

I.1.2. BIGARREN PROBA: IDATZIA

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE1

Eredua: A

2. PROBA: IDATZIA

1996ko ekainaren 21a

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

NAN zkia.:

OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Konproba ezazu azterketa honek 11 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek zure azterketa-materialak jaso arte.

ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan laburra 4) Idazlan luzea
- Denbora: **3 ordu**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira ekainaren 28an.
- Gainditzen dutenek **ahozko proba** izango dute, Ordezkaritzan agertuko diren leku, egun eta orduetan (uztailaren 1etik 4ra bitartean)

AHOZKOAREN ULERMENA: TRANSKRIBAKETA

Ariketa honetarako *Euskadi Irratian* egindako elkarrizketa bat erabili zen. Jarraian grabazioaren transkribaketa ematen da.

Eguraldia

Eguneko berriak kontatzen ari gara apirilaren hogeita bosgarren honetan eta eguraldiaren eguneroko berri izaten da gurean. Zer esango dizuet gaurkoaz, ba, ona dago, eguraldi ona dago. Hodei potor batzuk ageri dira zeruan baina, garbitzeko traza hartu diogu eta gainera Pello Zabalak goizeko seietan esan digunaren arabera, ba, atzokoa bezalakoa etorriko da, beraz, ez da batere txarra. Jakin dezagun une honetan hiriburuz hiriburu, Euskal hiriburuetan zer moduzko giroa daukagun:

- Pilar Goya, Bilbon?
- Ba, Bilbon, kontra egin beharra. Garbituko duen ala ez ez dakigu baina momentuz triste ageri zaigu eguraldia. Erabat estalita eta lainoak besterik ez ditugu ikusten zeruan eta termometroa, ba, bederatzi-hamar graduren bueltan.
- Ez da, ba, niri kontra egiteagatik izango, eh?
- Espero dugu ezetz.
- Bederatzi gradu eta zerua triste Bilbon. Gasteizen, Axun?
- Bueno, hemen eguraldi txar-txarra ere ez dago baina, on-ona ere ez. Lehen bezalaxe gaude, zeruan **lainoak** eta **tarte** urdinak, bietatik dago eta freskotxo, bost gradu eta Erdiko tenperatura une honetan Gasteizen.
- Bueno tira, lainoak eta urdinguneak, beraz, Gasteizen. Joan Inazio, Donostian?
- Gaur ere zero **oskarbiak** izango ditugu, edo ditugu nagusiki, mendi inguruetan daude **hodeiak**. Gaur ere ez dugu euri konturik izango. Gaur ere fresko egiten du, hamar gradu Miramon gain honetan eta eguzkiaz gozatzeko eguna izango dugu gaur ere.
- Tira, traza dotorea hartu dio beraz, Joan Inaziok Donostiako eguraldiari. Itziar Gonzalez, Iruñean zer berri?
- Ba, txarrera joan da eguraldia Iruñean. Lehenago **oskarbi** bazegoen, orain hodeiak eta **ostarteak** dauzkagu erdi ta erdi zeruan. Tenperatura aldetik fresko, hamar gradu.
- Beraz, lainotzen ari da Iruñean zerua. Xipri Arbelbide, zer berri Ipar Euskal Herrian?
- Egunon. Goiz honetan termometroa zortzi gradutan dugu, zerua **garbi** eta diotenaz hemezortzi graduz gorat igoko da egun. Xiberuan berriz, **euri** xehe bat ari zela bostak eta erditan erran digu Junes Kasenabek eta termometroa hamar gradutan zutela.
- Xiberuan euri xehea egin du eta, ez Xiberuan bakarrik, toki gehiagotan ere euri xarraxtada batzuk bota ditu gaur goizaldean. Baina tira, une honetan daukagun hozberoa: Bilbon bederatzi gradu, Gasteizen bost, Donostian ha-

mar, Iruñean ere hamar eta Baionan zortzi. Zerua: Bilbon triste; Gasteizen lainoak eta urdinguneak; urdin gehienbat Donostian; Iruñean lehen oskarbi zegoen baina, orain lainotzen ari da eta Baionan, batez ere, zerua garbi.

— Pello Zabala, zer esango dizugu gaurko?

— Nik uste, egun, atzokoarekin **antzerakoa** izango dela gaurkoa eta hurrengoak ere hortxe-hortxe ibiliko dira. Antizikloia nahiko postura onean daukagu, txapela moduan gure **iparraldera** etzanda eta orduan, haizea xuabe-xuabe bedere, ba, ekialde, **ipar-ekialdekoa**; hotza, hori bai, hotza bueno, garai honetarako behintzat, zeatik, eguzkia ikusi eta hala ere, ba, ez dira goiengoak altu joaten, eta orduan antizikloiaren ezaugarriak ditu eguraldi tipo honek. Atzo **behelaino** ugariak ziren, gaur beste horrenbeste, tokirik gehienetan, ba, trinko, hortxe egongo dira, oraindik goietan ere zeozer ikusi daiteke baina, jaisten joango dira oraindikan, ba, eguna argitzen doan bitartean eta gero horiek denak harrotu egingo dira atzo egin zuen bezala, goiz partean zeruak garbi-garbi baziren gero laino txuri horiekin gelditu ziren, baina, laino horiek ziren behelainoak, harrotu eta gora igo zirenak eta hortxe, kieto; goietan hotza dagoelako, nolabait. Eta bueno, ba, horixe ematen du gaurkoan ere ikusiko duguna: zeru urdina momentu batzutan eta beste batzutan **lainoxka** batzuk baina, ez euri eta ez kontu haundirik ekartzen dutenak, **itzala** bakarrik egiten dute horiek. Tenperaturak hotzetik, hori bai, frexko goizean eta gero ere, ba, hamabost-hamazazpi, gaur beharbada atzo baino gradu pare bat gehixeago baina, hamazazpi-hamazortzitik gora ezin eginik; orduan, eguzkia ikusita, ba, pozik ateratzen zara eta uhum.... jertsea behar dela ikusten da.

1. AHOZKOAREN ULERMENA

Beheko laukian zenbait informazio duzu hutsune batzuekin. Saia zaitetz, entzun ahala, hutsune horiek betetzen, bakoitzean hitz bakar bat idatziz.

Testua bi aldiz entzungo duzu.

EGURALDIA

Hiriburuz hiriburu:

0. (Adibidea) Bilbon, erabat estalita eta *lainoak* besterik ez zeruan.
1. Gasteizen, zeruan eta urdinak.
2. Donostian, zeru; mendi inguruetan
3. Iruñean, lehenago ; orain, hodeiak eta
4. Ipar Euskal Herrian, zerua Xiberuan xehea egin du.

Pello Zabalaren iragarpena:

5. Gaurko eguraldia atzokoaren
6. Antizikloia postura onean daukagu eta etzanda.
7. Haizea ipar-....., garai honetarako hotza.
8. Gaur ere tokirik gehienetan ugariak.
9. Ikusiko duguna: une batzuetan zeru urdina; beste batzuetan batzuk.
10. Gaurko lainoek besterik ez dute egingo.

2. IRAKURRIAREN ULERMENA

Hona hemen Ainhoa Arteta kantariari eginiko elkarrizketa. Galderak era ordenatu batean dituzu, baina erantzunak desordenatuta daude. Saia zaitez, hortaz, galdera bakoitzari dagokion erantzun egokia bilatzen eta bere lekuan kokatzen. Erantzuten hasi baino lehen komenigarria da irakurketa azkar bat egitea.

Ainhoa Arteta: «Euskadiko zaletuek lehen baino gehiago dakite operaz»

Ainhoa Arteta Tolosan jaio zen, baina berak gipuzkoar eta bizkaitartzat jotzen du bere burua. Izan ere, aukera duen bakoitzean, Ispastera alde egiten du hiriak ematen ez dion lasaitasunaren bila. Orain dela bi urte inguru sari garrantzitsu bi irabazi zituen: New Yorkeko «Metropolitan Opera National Council» izeneko bata, eta Pariseko «Plácido Domingo» saria bestea. Orduz geroztik, Metropolitan-ek eta mundu zabaleko beste antzoki batzuek alderik alde zabaldu dizkiote atea.

- | | |
|--|--|
| 1 Zer da sopranoa? | A Batzuk falta dira, baina neurri haundi batean bai. |
| 2 Nola sortzen dira sopranoak? | B Tolerantziaren alde. |
| 3 Non zara ezagunagoa, hemen ala New York-en? | C Helburu bat. |
| 4 Ba al da New York oihan bat? | D Bakarren bati bestela iruditzen bazaio ere, baietz uste dut nik, batez ere errealistetan, opera hauek egiazko bizitzaren islada baitira. |
| 5 Egokiak al dira Charles Darwin-en teoriak operan? | E Ardura osoko pertsona, abestegatik den-dena ematen duena. |
| 6 Zertan da Euskadin operarako zaletasuna? | F Niri begiratu, eta zuk zeuk erantzun galdera horri. Izan ere, gaur egun jendeak garrantzi haundia goa ematen dio estetikari. |
| 7 Zer da Salzburgo? | G Hertsi-hertsiak, ia erabatekoak. |
| 8 Zein da operarik zailena? | H Hitz horrek bi esanahi ditu, bata ona eta bestea txarra. Ni lehenengoaren aldekoa naiz, artista onari erreferentzia egiten dionarena, hain zuzen. |
| 9 Negarrik egin al duzu inoiz eskenatokian? | I Guzti-guztiak. Barruan zeramaten onena ematen ahalegindu dira guztiak. |

- 10** Zer esango zenioke operara inoiz joan ez denari?
- 11** Zeren alde eskainiko zenuke emanaldi benefikoa Euskadin?
- 12** Agintzen al dute gizonek operan ere?
- 13** Ba al dute zerikusirik operako pertsonaiek gaurko gizon-ema-kumeekin
- 14** Zer-nolako harremanak izaten dituzu pertsonaia batekin?
- 15** Euskal Herrian zein da tokirik egokiena abesteko?
- 16** Ba al dakizu irrintzirik botatzen?
- 17** Bete al zaizkizu ume garaiko ametsak?
- 18** Igogailu batean zera irakur zitekeen behin: «Gehienez ere lau lagun sartu edo operako abeslari bat». Mitoa ote abeslarien lodi-tasuna?
- 19** Nor izan da sopranoarik onena?
- 20** Zer da «divo» bat?
- J** *Ondo antolatuz gero, munduko edozein toki da egokia.*
- K** *Jakingo ez dut, bada! Horiek nire lehenengo bokalizazioak izan ziren.*
- L** *Egunero lan eta lan eginez.*
- M** *Askotan.*
- N** *Guztiak badira ere, inolako dudarik gabe, gogoko ez duzuna.*
- O** *Hemen, nire herria delako. New York-en artearen munduari lotuta nago. Metropolitan-en kontzertu bat eman eta jendeak badu zure berri.*
- P** *Bai, dudarik gabe. Izan ere, gizakiaren izaera guztiz desitxuratzten da horrelako bizileku haundietan.*
- Q** *Bai, operan ere indartsuenek bakarrik irauten dute bizirik.*
- R** *Bai, beste arlo gehienetan bezala. Dena dela, esparru honetan ere gauzak aldatzen hasi dira.*
- S** *Euskal Herrian gero eta zaletasun haundiago dago. Eta zaletuek lehen baino gehiago dakite, nik uste.*
- T** *Joateko, merezi duen ikuskizuna baita.*


«Administrazioa euskaraz» aldizkaritik hartua eta moldatua

ERANTZUNAK

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20

3. IDAZLAN LABURRA

Hezkidetza edo koedukazioa dela eta, kanpaina baten berri heldu da eskola guztietara. Zuk, eskolako zuzendaria izanik, kanpaina honen berri ikasle guztiengana ailegatzea nahi duzu. Horretarako, eta beheko marrazkiak erabiliz, eskolan zehar hainbat txartel ipini nahi dituzu. Hortaz, **bi testu labur** (50 hitz ingurukoa bakoitza) idatzi behar dituzu.



4. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 200 hitz inguruko idazlana osatu behar duzu.

1.-Hona hemen irudimenezko pertsonaia baten datuak. Datu horiek kontuan hartuta saia zaitetz bere biografia osatzen.

Jon Arriortua Jakobson (1896-1936)

- *Ameriketako Virginian jaio.*
- *7 urte - Euskal Herrira etorri. Idazle bikaina. «Hortik» aldizkarian idatzi. Arrakasta handiko hainbat liburu argitaratu (lehen nobela oso goiz).*
- *20 urte - Aitziber Urdangarinekin ezkondu. 2 seme-alaba.*
- *Politika mailan konpromezu handia. Luma eta indarra kausa politikoaren alde. Egoera politikoa txartu. Jaioterrira itzuli emaztea eta seme-alabekin. Berrito idazten hasi.*
- *40 urte - Gaixotu. Gripeak jota hil. Gorpua Euskal Herrira ekarri eta omenaldia egin.*

EDO

2.-Ondoren doakizun narrazioaren hasierari zuk eman behar diozu jarraipena. Egin ezazu horri dagokion segida.

Igande goiz hartan ez neukan plan finkorik. Azkenean, neure buruari hamaika buelta eman ondoren, Zoorra joatea erabaki nuen; izan ere, denbora asko neraman hura bisitatu gabe. Dena den, momentu hartan ezin nuen imajinatu ere egin egun hartan zer gertatuko zen. (...)

I.2. DEIALDI IREKIA: HE2ko AZTERKETA

I.2.1. LEHEN PROBA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE2
Eredua: E

LEHEN PROBA: AAG

1996ko ekainaren 8a

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

NAN zkia.:

OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Atera ezazu suelto dagoen erantzun-orria koaderno honetatik.
3. Konproba ezazu koaderno eta erantzun-orria eredu berekoak direla.
4. Konprobatu azterketa honek 12 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
5. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak erantzun-orrian eta koaderno honetan.
6. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
7. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
8. Gelan ezin da erre.
9. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek azterketa-materialak jaso arte.

ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 asmatu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Koaderno honetan **EZ** markatu erantzunik eta **EZ** idatzi.
- Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira ekainaren 12rako.
- Gainditzen dutenek ekainaren 22an izango dute HE2ko 2. proba, goizeko 9,30etan.

01.-*Bada gauza bat, lehenbailehen*

- a) argitu beharrezko
- b) argitu behar dena
- c) argitu behar dela
- d) argitu behar litzatekeela

02.-*Han iritsi zen Olano helmugara, jo eta jo,*

- a) gurpila zulatuta edukiz
- b) gurpilarekin zulatua
- c) gurpila zulatuta zuela
- d) gurpil batez zulatuta

03.-..... *ikasten da hizkuntza bat.*

- a) Hitz eginez
- b) Hitz egiterakoan
- c) Hitz egiten
- d) Hitz egindakoan

04.-*Neuk lagatako leku aurkitu nuen poltsa.*

- a) bertan
- b) berdinean
- c) berean
- d) bertantxe

05.-*Kalera egiten dudan lehendabiziko gauza, egunkaria erostea izan ohi da.*

- a) jaitsitakoan
- b) jaisterakoan
- c) jaistearekin
- d) jaisteaz

06.-*Hori txorakeriatan gertatu zaizu!*

- a) ibili arren
- b) ibiltzeaz
- c) ibiliagatik
- d) ibiltzearren

07.-*Hamalau urte izango nituen, baina praka motxetan ibiltzen nintzen.*

- a) zegoeneko
- b) artean
- c) orduan
- d) harrezkero

08.-*Ez da erraza ume hauek zaintzen,*

- a) batak besteak baino bihurriagoak baitira.
- b) nor bihurriagoak baitira.
- c) nor bihurrienik baitira.
- d) zein baino zein bihurriagoak baitira.

09.-*.....gaixorik dagoela, parranda egin duela, gure Jesus ez dugu ia klasean ikusten.*

- a) Berdin / berdin
- b) Bai / bai
- c) Nola / hala
- d) Batean / bestean

10.-*Txikoria asko, mikatza ateratzen da kafea.*

- a) botaz gero
- b) botatzekotan
- c) botatzez gero
- d) botako badiozu

11.-*Karmelek eta, beren etxean afaltzera gonbidatu*

- a) digu
- b) gaitu
- c) gaituzte
- d) ziguten

12.-*Ea biharko liburuko azken kapitulua.*

- a) bukatzen baduzue
- b) bukatzen baduzuen
- c) bukatzen duzuen
- d) bukatuko duzuen

13.-*Konposatu kimikoa osatua dago.*

- a) hiru elementurengatik
- b) hiru elementuengatik
- c) hiru elementuetan
- d) hiru elementuz

14.-*Beste askoren legez horiek ere, ezin ikusi.*

- a) elkar beti eta elkarri
- b) elkarrekin beti eta elkar
- c) elkar beti eta elkar
- d) elkarrekin beti eta elkarri

15.-*Sorospen ikastaroa hasi eta bukatuko da.*

- a) irailean / ekainan
- b) irailean / ekainean
- c) irailan / ekainan
- d) irailan / ekainean

16.-..... egindako azken ikerketen berri eman zuen hizlariak.

- a) Minbiziaz
- b) Minberatuta
- c) Minbiziz
- d) Minbizietaz

17.-*Gauza guztiak lizuntzen eta hondatzen ari dira gela honetan. Izan ere, handia dago.*

- a) idortasun
- b) ximeltasun
- c) iluntasun
- d) hezetasun

18.-*Atzoko futbol partiduaren ostean, gihar guztiak dauzkat.*

- a) konkortuta
- b) minberatuta
- c) ubelduta
- d) pitzatuta

19.-*Hura zen zaparrada bota ziguna! eginda iritsi ginen etxera.*

- a) Bigun-bigun
- b) Tximu bat bezala
- c) Busti
- d) Mela-mela

20.-*Inork ez zuen ontzat hartu proposamena, bik*

- a) baino ez
- b) izan ezik
- c) soilik ez
- d) ez ezik

21.-*Harrezkero ezin izan zion Pablok edanari utzi;, gero eta gehiago edaten zuen.*

- a) hala nola
- b) halaber
- c) bestalde
- d) aitzitik

22.-*Lehen meztara jende asko joaten zen; orain,, askoz gutxiago.*

- a) hala eta guztiz ere
- b) ordez
- c) ostera
- d) nolana

23.-*Babe, filmeko txerriak, ez du soilik egiten, hitz ere egiten du.*

- a) kukurruku
- b) marru
- c) kurrinka
- d) kurrixka

24.-*Iritzi oso hedatua da hori irakasleen artean.*

- a) OHOeko
- b) OHOkoko
- c) OHO-ko
- d) OHO ko

25.-*Bakarka ez goaz inora. Zer edo zer nahi badugu, beharra dugu.*

- a) elkar hartu
- b) elkarri hartu
- c) elkarrekin
- d) elkar batera

26.-*Hemen ez badaude ere, egon behar dute nire giltzak.*

- a) han edo non
- b) inon
- c) edonon
- d) non edo non

27.-*Inork ere joan nahi ez dugunez, erabakiko dugu.*

- a) suertatuz
- b) zozketatzen
- c) zotz eginda
- d) suertez

28.-*Itxaropentsu ziren, baina*

- a) usteak ustel atera zaizkie.
- b) usteetan konformatu dira.
- c) itxaropenak erdia ustel.
- d) itxaropenak usteldu zaizkie.

29.-*Zeu izango zinen, noski, hori esan duena!*

- a) Ezta ametsik ere!
- b) Ez pentsatu ere!
- c) Ezta inola!
- d) Baita zera ere!

30.-*Inork erosi nahi ez zuenez, saldu behar izan zuen.*

- a) prezio erdietan
- b) prezioaren erdian
- c) erdi prezioan
- d) erdiko prezioan

31.-Orain ere erru guztiak guretzat. Uste dut irakasle horrek

- a) begia bota digula.
- b) begietan jo gaituela.
- c) begikeria digula.
- d) begitan hartu gaituela.

32.-Argibide gehiago Arabako Hezkuntza Lurralde izango duzu.

- a) Ordezkalartzan
- b) Ordezkaritzan
- c) Ordezkarian
- d) Ordezkoan

33.-Beti bera eta bera. galanta du horrek!

- a) Handitasun
- b) Harro-inbiria
- c) Harro-gose
- d) Handiuste

34.-Itxoidazu pixka batean, mesedez! Komunera joan behar dut lehenbailehen,
..... nago eta.

- a) txizalarriak
- b) txizagogoz
- c) txiza egiten
- d) txiza eragiten

35.-Gaur ere negarrez hasi zait. Kontuz ibili beharko dugu berarekin, oso
..... da eta.

- a) sentibera
- b) negargarria
- c) sentikoia
- d) negartsua

36.-Ondoren burdin zatia sutegian ipini eta arte eduki zuen.

- a) gorri-gorri egin
- b) erre
- c) kiskali
- d) gori-gori egin

37.-*Korrika alde egin behar izan genuen, baserritarrak txakurra
zigunean.*

- a) astindu
- b) aztoratu
- c) xaxatu
- d) jazarri

38.-*Oporrak iristeko daude umeak.*

- a) ametsetan
- b) grinetan
- c) erotuta
- d) irrikitan

39.-*Eta argazki hau, berriz, hamalau urte da.*

- a) bete nituenekoa
- b) beteko nituenekoa
- c) betetzen nituenekoa
- d) beteko nituen egunekoa

40.-*Oso gutxi tontorrera iristeko, baina, hurrengoan
lortuko dugu.*

- a) faltatzen zigun
- b) falta izan zaigu
- c) faltatzen izan zaigu
- d) falta izan zigun

41.-..... *nahi duena! Nik ez diot berriz lagunduko.*

- a) Egin dezan
- b) Egin dadila
- c) Egin dezala
- d) Egiteko

42.-*Bai ederki egin azalpena!*

- a) duzuna
- b) duzula
- c) duzunik
- d) duzun

43.-*Pake-akordioa lehenago sinatu izan balute, hainbeste jende ez*

- a) zitekeen hilko
- b) zatekeen hilko
- c) lirateke hilko
- d) lirateke hil

44.-*Ez horrela hartu, mesedez! Zeure esan dizut, eta ez adarra jotzeko.*

- a) hobe beharrez
- b) hobe delakoan
- c) hobe ustean
- d) onagatik

45.-*Azkenean lortu du gaixotasuna gainditzea,*

- a) nahiz eta asko kostatu arren.
- b) nahiz asko kostatzen.
- c) asko kostatzeagatik.
- d) nahiz asko kostatu zaion.

46.-*Nola egin duzu? - Zuk*

- a) esan bezala.
- b) esandakoaren bezala.
- c) esandako bezala.
- d) esan didazu bezala.

47.-*Nahi duzuna esan, baina pasatzen dute horiek gurekin!*

- a) gustura asko
- b) gustura askogatik
- c) gustura askoz
- d) gustuz

48.-*Auzia galdu egin du, baina asmoa du.*

- a) errekurtsos joateko
- b) epaitegira joateko
- c) gora jotzeko
- d) epaitegietara igotzeko

49.-*Gutziz gaitik kanpo gabiltza eta, berriro*

- a) harira etorritz...
- b) hariari tiraz...
- c) hariratuz...
- d) harira etortzen...

50.-*Ez, benetan, niretzat gehiegi da. jango dugu.*

- a) Erdibitan
- b) Erdibana
- c) Erdiz erdi
- d) Erditan

51.-*Iazko eskatu zuten ikastaroa, eta eman zieten.*

- a) Lauk / laurai
- b) Laurek / laurai
- c) Lauak / lauei
- d) Lauek / laueri

52.-*Goizeko sartu, eta eguerdiko ateratzen gara.*

- a) zortzietan / ordubitan
- b) zortziretan / ordubietan
- c) zortzietan / ordubietan
- d) zortziretan / ordubitan

53.-*Urte osoan pijamarekin egiten du lo; hain da, izan ere.*

- a) hozbera
- b) hozkia
- c) hozpela
- d) hotzikara

54.-*Ikaslerik, alferrik dira eskolak.*

- a) izan ez ezik
- b) izan ezik
- c) ez badira
- d) ez balira

55.-*Bai horixe, da gure umea!*

- a) polit asko
- b) polit askoa
- c) askoz polita
- d) polita askoa

56.-Mikelek: *Felix, biharko egin behar duzu lan hau, txukun-txukun!*

Felixek: *Aizu Mikel: azkar eta ondo, usoak egiten du hegan! Zer esan nahi du Felixek?*

- a) Gauzak ondo egin nahi badira, ezin dela presaka ibili.
- b) Agintzen diona egiten duenerako, uso ugari pasako dela.
- c) Lana agintzerakoan, txorietan pentsatzen dabilela.
- d) Azkar bezain ondo egiten saiatu, behintzat, egingo dela.

57.-*Zahar hitz, zuhur hitz. Zer esan nahi du esaera honek?*

- a) Ondo hitz egiteko, hitz zaharrak eta berriak erabili behar direla.
- b) Batzuek asko hitz egin, baina gero gutxi ematen dutela.
- c) Adinekoen esanetatik badugula zer ikasia.
- d) Hitz zaharren erabileran zuhur jokatu behar dela.

58.-*Atzoko partiduan halamoduz jokatu zuten txuri-urdinek. Zer esan nahi da esaldi honetan?*

- a) Erdipurdi jokatu zutela.
- b) Ondo samar jokatu zutela.
- c) Aurrekoaren antzera jokatu zutela.
- d) Irabazteko moduan jokatu zutela.

59.-*Gose ederra ekarri zuten; atera ahala jan zuten. Zein da baliokiderik hurbilena?*

- a) Gose ederra ekarri zuten; ahal zutena jan zuten.
- b) Gose ederra ekarri zuten; ateratakoa behintzat jan zuten.
- c) Gose ederra ekarri zuten; ateratakoa jan zuten.
- d) Gose ederra ekarri zuten; atera orduko jaten zuten.

60.-*Orain etxez etxe ibiltzen da liburu saltzen. Aurkitu baliokiderik hurbilena.*

- a) Orain etxez ibiltzen da liburu saltzen.
- b) Orain etxeetatik etxeetara ibiltzen da liburu saltzen.
- c) Orain etxerik etxe ibiltzen da liburu saltzen.
- d) Orain etxetik etxeetara ibiltzen da liburu saltzen.

61.-*Adibide bat jarriko dizuet, egitura hobeto uler dezazuen. Aurkitu baliokiderik hurbilena.*

- a) Adibide bat jarriko dizuet, egitura hobeto uler dezazuela.
- b) Adibide bat jarriko dizuet, egitura hobeto ulertzea.
- c) Adibide bat jarriko dizuet, egitura hobeto ulertuagatik.
- d) Adibide bat jarriko dizuet, egitura hobeto ulertzeko.

62.-*Ez dakit bihar etortzerik izango dudan. Aurkitu baliokiderik hurbilena.*

- a) Ez dakit bihar etorri ahal izango naizen.
- b) Ez dakit bihar etorriko naitekeen.
- c) Ez dakit bihar etortzen nitekeen.
- d) Ez dakit bihar etorriko ahal izango naizen.

63.-*Esaldi bakar bat da gramatikalki zuzena. Zein?*

- a) Denon gustukoa izan delaren ustean, agur t'erdi.
- b) Denon gustukoa izan delakoan, agur t'erdi.
- c) Denon gustukoa izan denez ustean, agur t'erdi.
- d) Denon gustukoa izan denaren ustean, agur t'erdi.

64.-*Esaldi bakar bat da gramatikalki zuzena. Zein?*

- a) Gure ikasleen artean badago ere idazle bat.
- b) Gure ikasleen artean baita ere badago idazle bat.
- c) Gure ikasleen artean idazle bat ere badago.
- d) Badago ere ikasleen artean idazle bat.

65.-*Dataren idazkera bakar bat da zuzena. Zein?*

- a) Gasteizen, 1995eko Martxoaren 7an
- b) Gasteizen 1995ko martxoak 7
- c) Gasteiz, 1995eko, martxoak 7an
- d) Gasteiz, 1995eko martxoaren 7a

66.-*Zein ez da gorputz atala?*

- a) aldaka
- b) orea
- c) bekaina
- d) txorkatila

67.-Zein ez da intsektua?

- a) izokina
- b) liztorra
- c) sitsa
- d) kakalardo

68.-Esaldi bakar bat da gramatikalki zuzena. Zein?

- a) Norberari zaindu behar diogu, besteek ez dute egingo eta.
- b) Pertsona bat bera zaindu behar da, besteek ez baitiote zainduko.
- c) Bakoitza bere burua zaindu behar du, besteek ez baitute zainduko.
- d) Nork bere burua zaindu behar du, bestek ez du egingo eta.

69.-*Bada egun osoa txantxetan pasatzen duenik. Zer esan nahi du?*

- a) Zail dela topatzea norbait egunero umore onez dabilena.
- b) Badagoela norbait egunero txantxetan ibiltzen dena.
- c) Badagoela jendea egun osoa txantxetan pasatzen duena.
- d) Ez dela erraza egunero-egunero umore onez ibiltzea.

70.-*Parisera joan zelarik, soziologia ikasketak egin zituen. Aurkitu baliokiderik hurbilena.*

- a) Parisera joatean, soziologia ikasketak egin zituen.
- b) Parisera joan harrezkero, soziologia ikasketak egin zituen.
- c) Parisera joanda, soziologia ikasketak egin zituen.
- d) Parisera joaterakoan, soziologia ikasketak egin zituen.

I.2.2. BIGARREN PROBA: IDATZIA

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE2

Eredua: A

2. PROBA: IDATZIA

1996ko ekainaren 22a

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

NAN zkia.:

OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Konproba ezazu azterketa honek 12 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Amaitzen duzunean, ez mugitu aulkitik arduradunek zure azterketa-materialak jaso arte.

ARRETAZ IRAKURRI

- Proba honek hiru ariketa ditu: 1) Irakurmena 2) Idazlan laburra 3) Idazlan luzea.
- Denbora: **3 ordu**.
- Proba honen emaitzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan agertuko dira ekainaren 28an.
- Gainditzen dutenek **ahozko proba** izango dute, Ordezkaritzan agertuko diren leku, egun eta orduetan (uztailaren 1etik 4ra bitartean)

1. IRAKURMENA

Ondorengo testuan hainbat hutsune agertzen dira. Aukeratu hutsune ba-koitzari dagokion hitzik aproposena. Komeni da erantzuten hasi aurretik tes- tuaren irakurketa arina egitea.

Landart eta Iparraldeko idazleen prosa

Iaz, *Maiatz* aldizkariak bere 21. alean (lan ixil horrek ere bestelako arreta me- reziko luke ba!) gai zentrala zuen: 25 urteko literatura Ipar Euskal Herrian. Bertan, Pierres Xarritonen lan interesgarri baten ondoan, Emilio Lopez Adanek beste bat paratu zuen, guztiz jakingarri eta irakurri beharrekoa (halakoxea zen *Jakin* honexetan orain ale batzuetako monografikoan Iparraldeko egoerari buruz idatzi zuena ere, bertakoaz aspaldi irakurritako analisirik zorrotz eta argiena). Besteak beste Beltzak dio, gutxi gorabehera, Daniel Landart dela Iparraldeko tradizio klasiko ederreko azken ordezkaria euskara-moldeari dagokionez; erreferentzia gisa baliozkoa dela, baina zerbait berria behar dela, zerbait berri hori *Maiatz* batasunera bildutako gazteak direla iradokiz edo. Hor badira egia osoak, baina badira komentatu nahi nituzkeen bestelako alderdiak ere. Noan puntuz puntu.

Daniel Landart idazle ona da, eta bere prosa-eredua ederra eta aldi berean fun- tzionala, joera ezberdinen arteko oreka: Lafittek eta *Herriako* kazetariak landutako idazmoldea,1..... euskalki ezberdinen ahozko ekarria eta Euskal Herri osoan, alfabetatuen artean2....., konpreni litekeen hizkera. Oraindik irakurri ez duena3..... has liteke: eskura ditu Daniel gaztearen obra4..... politago hura, *Aihen ahula*, eta berriki Irun Hiria5..... eta Kutzak publikatu dion *Batita Handia*. Gustuak anitzak dira beti ere, denbora ere aurrera doa eta bidezkoa da; hortaz, zerbait berria nahi izatea, aldaketak eskatzea. Zer dugu ordea, Landarten6.....? Zer berrikuntza? Zein idazle? *Maiatzek* dozenaka plazaratu ditu, ezin7..... da bere meritua. Baina noizbehinkako poemañoak eta liburu trauskil8..... alde batera utzita, gordin hitz eginez, zenbat idazle plazaratu dira obra9....., aberats, zabal batekin? Izango dira nik ahaztutakoak, eta10..... eskatzen diet hemendik barkamena, baina zerrenda nik egin beharko banu, prosa- gileen artean (beste poeta pare on bat ere badago eta) bi hauek baizik ez nituzke aipatuko: Xipri Arbelbide eta Itxaro Borda. Xipri, Beltzaren esanera, apezten molde zahar horretan sartu beharko genuke;11....., Itxaro baizik ez litzateke geratuko.

Ez ote dago besterik? Bai, badira gehiago. Baina, edo ez dute obra on bat egiteko12..... izan, edo talentua dute eskas, edo (honek ematen dit niri beldurrik handiena) hizkuntzaren osasuna dute higatuegia, eriegi euskara, prosa-lan bete eta oso bat egiteko. Prosak (Lafittek ere esana du hau)13..... azkar, indartsua eskatzen baitu, eta horixe iruditzen zait niri falta dutela Lapurdiko kostaldeko zenbait idazle14..... Nahiago nuke oker banengo. Bestelako arazoa dute15..... idazle gazteek: Irigoien anaiek, edo oraintsu idazten hasi den Antton Lukuk, euskara indartsua, bizia, bulartsua dute, Garazi aldekoa den bezalakoa, baina ahozkoari

gehiegi lotzen zaizkio idazterakoan ere, eta txokokeriaz16..... idazmolde hori konprenigaitza bihurtzen da inguru horretatik17..... gero; ber gauza gertatzen zaio Etxamendiri ere.

Konponbidea?18..... . Lana eta ahalegina. Dena dela, Nafarroa Beherean19..... den famili bideko hizkuntz transmisioaren etena datu kezkarriegia da, *Herri Urratsetan* diru-pilak bilduz ere konpontzen ez20..... Bienbitartean, segi idazten Daniel, Xipri, Itxaro, Pierres, Emilio eta beste guztiek.

Xabier Mendiguren, Jakin 86 (1995eko urtarrila-otsaila)

- | | | | | |
|-------------------|-----------------|----------------|-----------------|-------------------|
| (1) | (2) | (3) | (4) | (5) |
| a) Lapurdiko | a) seguru | a) oraintxe | a) inondik | a) lortu |
| b) Iparraldeko | b) ere | b) laster | b) ez | b) irabazi |
| c) Euskal Herriko | c) bederen | c) berandu | c) baino | c) aurkeztu |
| d) Hegoaldeko | d) ere bai | d) aurten | d) ezin | d) eman |
| (6) | (7) | (8) | (9) | (10) |
| a) ostean | a) politagoa | a) bikainak | a) lodi | a) oraintsu |
| b) atzean | b) lortezina | b) dotoreak | b) eskas | b) aldez aurretik |
| c) aurretik | c) ukatua | c) eginak | c) sendo | c) hemendik |
| d) aurrerantzean | d) antzeman | d) samarrak | d) zail | d) gaur |
| (11) | (12) | (13) | (14) | (15) |
| a) beraz | a) meriturik | a) idazle | a) gaztek | a) beste |
| b) eta | b) denborarik | b) hizkera | b) ezagunek | b) hainbat |
| c) baina | c) lekurik | c) irakurketa | c) kaskarrek | c) barruko |
| d) hain zuzen ere | d) burutaziorik | d) letra | d) onek | d) barnealdeko |
| (16) | (17) | (18) | (19) | (20) |
| a) osaturiko | a) urrunduz | a) Ondoko hau. | a) suertatu | a) dena |
| b) egindako | b) joanez | b) Idaztea. | b) egin | b) dela |
| c) beteriko | c) etorriz | c) Ez dakit. | c) berreskuratu | c) delarik |
| d) idatzitako | d) hurbilduz | d) Irakurtzea. | d) gertatu | d) den |

2. IDAZLAN LABURRA

Ondoko gai bien artean bat aukeratu eta garatu behar duzu.

Luzera: 200 hitz inguru idatzi behar duzu

1.-

Gasteiz, 1996ko ekainak 1

Zuzendari jauna/anderea, agur!

Eskutitz honen bitartez, zuen zentroa 96-97 ikasturterako beste zentro batean integratuko dugula jakinaraztera natorkizu. Badakit jakin, klaustrokideak ezezik guraso eta ikasleak ere kezkatuta zaudetela ikastetxearen etorkizunaz, hala ere irekita mantentzeak dakartzan kostu ekonomikoei ezin izango diegu erantzun. Gainera, jaiotze-tasa behera doala jakinik, gure iritziz argi ikusten da zuen ikastetxeak ez duela etorkizunik. Hau guztia dela eta, zuen ikastetxea Garamendi ikastetxean integratuko dugu. Irtenbide hau zuen gustukoa ez dela eta besteren bat egokiago ikusten duzuela badakidanez, hamabost eguneko epea duzue zuen proposamena aurkezteko.

Dena den, batzar bat izango dugu, zuekin eta Guraso Elkartekoekin, datorren ekainaren 20an zuen ikastetxearen etorkizunaz berba egiteko.

Besterik gabe, batzarra prestatzeko zuen proposamen idatzia laster eskura izango dudalakoan, har ezazu nire agurrik zintzoena.

Lurraldeko Hezkuntza Ordezkarria

2.-Atzo goizean merkatura joan zinen eta etxera itzuli zinenean konturatu zinen erositako elikagaiek ez zutela itxura onik. Hala ere, prestatu eta jan egin zenituzten. Gaur goizean, ostera, familia erdia makalik esnatu da. Haserre bizian, berehala zeure herriko Kontsumitzaile Elkartera jotzea erabaki duzu. Bertan salaketa idatziz egin behar duzula esan dizute eta hori da, hain zuzen, egitera zoazena.

Salaketa horretan, esan dizute, besteak beste, honako puntu hauek kontuan hartzeko:

- 1.-Non eta noiz egin duzun erosketa.
- 2.-Nola prestatu dituzun: gordinik, gisatuta, ...
- 3.-Zer elikagai mota zen egoera txarrean zegoena.
- 4.-Jasan dituzuen ondorioak.
- 5.-Egiten duzun hausnarketa eta eskatzen duzuna.

3. IDAZLAN LUZEA

Egunkarian ondoko berri bi hauek irakurri dituzu. Berriok irakurri ostean aukeratu bat eta konta ezazu ezagutzen duzun antzeko gertaeraren bat, zeure iritzia gaineratuz. Artikulu baten forma emaiozu idatziari.

Luzera: 350 berba inguruko idazlana egin behar duzu

1.-«Eraso arrazista bat salatu du SOS Arrazakeriak»

«Gipuzkoako SOS Arrazakeria taldeak herenegun gauean Donostiako TOP dantzalekuan eraso arrazista bat izan zela salatu zuen komunikabideetara bidalitako prentsa oharrean.

Informazio horren arabera, lagun talde bat Anoetako diskotekara sartzera zihoala haien arteko arabiar bati sartzea galarazi zioten. Joan den astean lapurretan aritu zirela esanez, zaindarien “hemen mairurik ez da sartzen” esan zioten arabiarrari. Honek aurreko astean ez zela dantzalekuan izan esan arren, “lepotik heldu zion zaindari batek, eta eskaileretan behera bultzatu zuen besteak”. Erorketaren ondorioz Donostiako sorospen etxean sendatu behar izan zuten.»

2.-«Bost txirrindulari hil dira aurten EAEko errepideetan 247 istripuetan»

«Euskal Autonomi Elkarteko errepideetan bost txirrindulari hil dira aurten, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak emandako datuen arabera. Ezker Batuak egindako galderei erantzunez emandako datuen arabera, guztira 247 istripu izan dituzte EAEko txirrindulariek errepideetan.

1995eko abenduaren 5a bitartean izandako istripuetan hildako bost txirrindularietatik hiru Araban zendu dira eta bi Bizkaian. Txirrindulari bi auto batek albotik jota hil ziren, beste bat auto batek harrapatuta, eta azkena mendian, pistatik aterata.

Madrilgo Senatuan egiten ari den araudi berriarekin hildakoen kopuruak behera egingo duela uste dute agintariek».

II. 1996ko LEHEN DEIALDI ITXIA

II.1. LEHEN DEIALDI ITXIA: HE1eko AZTERKETA

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE1
Eredua: A

IDATZIZKO PROBA

1996ko urtarrilaren 29a

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

NAN zkia.:

OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzaileek jasotzeko moduan.
2. Konproba ezazu azterketa honek 10 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Azterketa-material guztiak entregatu behar dituzu amaieran.

AHOZKOAREN ULERMENA: TRANSKRIBAKETA

Ariketa honetarako *Euskadi Irratian* egindako elkarrizketa bat erabili zen. Jarraian grabazioaren transkribaketa ematen da

Mari Karmen Garmendiarekin elkarrizketan

1. zatia

- Goizeko bederatziak eta zazpi minutu. Mari Karmen Garmendia Kultura Sailburu Anderea, egun on!
- Baita zuei ere!
- Zer moduz zaude?
- Ondo, eta zuek?
- Kezka askorekin etorri al zara, Mari Karmen?
- Bueno... eguneroko kezka; batzuk.
- Zeintzuk dira momentu honetan dituzunak?
- Zeintzuk ditudan? Bueno, ba,... Aurreneko kezka eskuartean ditugun gauzak aurrera ahal den zuzen eta txukunen ateratzea. Eskuartean zer daukadan? Ba, denetik, gure saila sail zabala baita. Beraz, sailaren atal guztietako kezka ditut, baina oso lankide jantzi eta zintzoak ditut; beraz, nola uztarri bakarrekoa ez naizen, ba, lankide onak izanez gero gauzak aurrera egiten dute.
- Nekatuta bizi da Kultura Sailburua?
- Nekatuta?
- Bai.
- Beste guztiek bezala.
- Nekatzen du zure lan honek?
- Zein ez da nekatzen?
- Jaja!
- Nekatu? Beste edozein lanek bezala. Ba,... normala da, ezta?, egun guztian jardun eta jardun, bueno, ja bat etxeratzen denean, ba, nekatuta izatea.; baina zein ez da nekatzen? Ni etxeko lanetan nabilenean ere nekatzen naiz, eh!
- Etxeko lan asko egiten al du, ba, Kultura Sailburuak?
- Beharko!
- Bai?
- Noski! Etxeko lanak ere, etxea ibiliko bada, etxeko bizitza ibiliko bada, etxeko lanak ere egin egin behar izaten dira.
- Baina ez esan, Mari Karmen, plantxan aritzen zarenik, esate baterako!
- Ba, ba, bai! Tarteka...
- Bai?
- ... nik astero egiten dut nire plantxako saioa. Laguntzaile bat badut, baina beti izaten da zerbait plantxatu beharra.
- Eta adibidez, erosketak Mari Karmen Garmendiak egiten ditu?
- Bai, bueno, egingo ez ditut, bada; baita hori ere.

- Alegia, plazara irten...
- Bai!
- ...eta erosketak egin ?
- ... bai, bai, bai, beste guztiek bezalaxe. Beste edozein etxeko andra edo etxeko jaun bezalaxe joaten naiz, orain etxeko jaun batzuk ere ikusten direlako erosketak egiten.
- Gutxi oraindik, ezta?
- Ba; geroz eta gehiago; lehen banaka batzuk, orain gehixeago.
- Konturatzan al zara hau gizonezkoa izan bazina ez genizun galdetu ere egingo?
- Bai, bai, badakit; nahiz eta galdera hori geroz eta gehiago egin behar den. Nik, esate baterako, zera, erosketak egitera joaten naizenean, ba, herri honetako gizon ospetsuekin ere topo egiten dut. Karrotxo hartu eta ,inoiz edo behin gainera, bakarren bat ume eta guzti, umea ere karrotxoan jarri eserita eta erosketak egiten. Eta oso ondo iruditzen zait.

2. zatia

- Dirua izaten da erosketak egiteko kontua, askotan, eta Kultura Saila gobernatzeko ere dirua izango da kontua, ez?
- Bueno, Kultura Saila eta beste edozein sail, baina baita, noski. Gure sailean ere diru kontuak, ba, kezka sortzen dute, nola ez? 39
- Ez zabilza ondroso diruz?
- Bueno, ez ni eta ez beste inor. Badakizue Ibarretxe lehendakariordeak behin eta berriz azkenaldi honetan esan du eta huraxe gogoratu nahiko nuke. Jaur-laritzaren diru-kontuetatik kopururik handiena Hezkuntzara eta Osasunera doa; gainerantzekoei, ba, erabiltzeko ezer gutxi edo, bueno, gutxi samar geratzen zaigu, ezta. 59
60
71
71
- Zenbat du Kultura Sailak patrikan? 92
- Bueno, esan beharra dago Kultura Sailaren poltsan, periodikoetan eta kopuruak azaldu direnean, Kultura Sailaren poltsan etxe honetako, beraz, EITBko txanponak ere bertan azaltzen direla; Kultura Saila bezala azaltzen da, baina Kultura Sailak bere baitan hiru poltsa edo esango nuke dituela: batetik, EITBri dagokiona, beraz gure diruetatik kopururik handiena. Eta, bestetik, ohizko Kultura Sailak ohizko politikarako duena, beraz, horrek esan nahi du Kultura, Hizkuntz Politika, Gazteria, Kirola eta, gainera horrezaz gain, ba, esate baterako bertan , gogoan hartu behar dugu bertan daudela, adibidez HABE, Euskadiko Orkestra eta baita ere Soin Heziketarako Institutua, IVEF esaten zaiona.; beraz gauza asko dago hor. Eta badago beste hirugarren poltsa bat edo gobernuko beste sailekin batera eta gainerantzeko erakundeekin batera hitzartutakoa, azpiegiturei dagokiena. 102
11
123
127
- Kulturaren barnean dauden zakuak dira guzti horiek, hitz egingo dugu banan bana zaku guzti horietaz, baina gainontzean, egunean eguneko kulturari dagokionean hori jarraitzeko betarik izaten du Mari Karmen Garmendiak?
- Bai. Egunero-egunero, edo norbaitzuk hartzen ditut hantxe nire saileko bulegoan edo neroni ere asko irtetzen naiz eta jendearekin etengabeko harremana dut.

Esate baterako, joan den astean ia egun oso bat Portugaleten pasatu nuen, konbidatu egin ninduten hara joan nendin eta benetan oso bisita interesgarria izan zen; bertako jende askorekin egon nintzen, ekintza asko ezagutzeko aukera izan nuen, pertsonak ezagutzeko aukera izan nuen, entzuteko eta galdetzeko aukera izan nuen. Atzo, adibidez, Azkoitian izan nintzen.

3. zatia

- Guk, adibidez, gaur apunte pare bat egin ditugu kulturari...
- Bai.
- ...noski kulturak askoz ere gauza gehiago ematen du, baina, esate baterako, Ramon Saizarbitoriak gaur aurkeztuko du Donostian bere azken nobela esan dugu, baina aspaldiko partez bere lehendabizikoa.
- Bai, hori da: aspaldiko partez bere lehendabizikoa. Nik Ramon aspalditik ezagutzen dut. Orain dela, ba... ez dakit, hogeitaka urte gaxte-gaxte ginela elkarrekin jarduten ginen, beste batzuekin batera, Zeruko Argiak zuen *Gazte naiz* orri haietan... ba, Ramon bera, Rikardo Arregi zena, Xabier Lete, Joxe Manuel Toledo, Mikel Lasa, ... Bueno, ni neu izan nintzen aurrena idazten hasi nintzen emakumezkoa; gerora Begoña Arregi, Amaia Lasa bera, etorri ziren. Ordutik ezagutzen dut, eta Ramonen aurreneko eleberriak edo nobelak, ba, gogoan ditut, ezta. Garai haietan nola hasi zen idazten, bera eta beste zenbait. Gogoan dut, baita ere, nire aurrean behin apustu nola egin zuten Txillardegik eta Ramonek, nork lehenago nobela bukatu.
- Eta?
- Bueno, nik uste dut Ramonek aurrea hartu ziola. Txillardegirena Elsa Scheelen zen, Txillardegik esku artean zuena, eta gogoan dut non egin zuten eta guzti, ezta.
- Hu, hu.
- Eta orain, ba, bueno, pozten naiz Ramonek hau argitaratu eta gaur aurkezteko duelako, benetan. Ez dut joaterik izango ordu horretan bertan telebistan beste gauza bat daukadalako, baina espero dut irakurtzea.
- Beste apunte bat gaur egin duguna Euskal Herriko mugetatik kanpo dago: Madrilen Oskorri taldeak euskal musika... musika zabaltzeko Elkarrek egin duen kontzerto horien barnean lehendabizikoa emango duelako Oskorrik.
- Bai; oso berri ona da. Eta atzo bertan kultur zabalkunderako eta sorkuntzarako daukagun zuzendariak, Amaia Rodriguez Hernandorenak esaten zidanez, bera han izan baita, oso harrera ona izan dute gure ordezkariak, hau da, abeslari eta taldeak. Amaiak esaten zidan oso ondo antolatutako aurkezpena izan dela, harreman ugari egin dutela eta harrera ona benetan; beraz asko poztu nintzen atzo Amaiak hori esan zidanean eta, bai, gaur ere irakurri eta zuek ere esan diezue gaur goizean...
- Hori da, bai.
- ...hala izango dela. Uste dut gutxitxo ezagutzen gaituztela hemendik kanpora eta iruditzen zait horrelako erabakiak eta horrelako saioak onak direla.

1. AHOZKOAREN ULERMENA

- Orain grabazio bat entzungo duzu. Grabazio hori hiru zatitan banatua dago. Zati bakoitza birritan entzungo duzu.
- Erantzun egokiena aukeratu eta atzeko koadroetan idatzi.

GALDERAK (testua: M. Karmen Garmendiarekin hizketan)

I. ZATIA

1.-Nekea dela eta, zer dio Mari Karmen Garmendiak?

- a) Bere lankideei esker ez dela hainbeste nekatzen.
- b) Etxeko zereginetan gutxiago nekatzen dela.
- c) Eguna lanean eman ondoren, nekatuta amaitzen duela.
- d) Batez ere,etxeko lanek nekatzen dutela.

2.-Edozein etxeko lan egiten al du Mari Karmenek?

- a) Plantxatze lanik orain ez.
- b) Plazako erosketak gero eta gutxiago.
- c) Denetik egin ohi du.
- d) Gaur ez du lehen adina lan egiten.

3.-Erosketen kontuan, zer da oso ondo iruditzen zaiona?

- a) Gizonak ere eginbehar horretan ikustea.
- b) Bere ume eta guzti erosketetara joatea.
- c) Irratikoek galdera hori egitea emakumezkoei.
- d) Gizonezkoek eta umeek ere laguntzea.

II. ZATIA

4.-Nola dabilta diru kontuak Kultura Sailean?

- a) Iaz baino askoz ere okerrago.
- b) Beste sailen antzera, juxtu samar.
- c) Kulturari beste sailetan baino larriago.
- d) Hezkuntzan baino zertxobait hobeto.

5.-Zein dira Kultura Sailak dituen diru-poltsak?

- a) EITBrena eta Kulturarena.
- b) Kulturarena, Kirolarena eta HABErena.
- c) EITBrena, Ohizko Politikarakoa eta Azpiegiturena.
- d) EITBrena eta Azpiegiturena.

6.-Kultura aktualitateari jarraipena egiteko, zer egiten du Kultura Sailburuak?

- a) Kultur erakundeekin harreman estuak izaten ditu.
- b) Egunero hartzen du bakarren bat bere bulegoan.
- c) Herriz herriko bisitaldiak sarri egiten ditu.
- d) Bulegoan jendea hartzeaz gain, bisitak ere egiten ditu.

III. ZATIA

7.-Zenbat eleberri edo nobela idatzi ditu Ramon Saizarbitoriak?

- a) Bat.
- b) Bi.
- c) Bat ere ez.
- d) Batzuk.

8.-Zer esaten du Mari Karmenek bere gaztaroari eta idazteari buruz?

- a) Ramonekin batera hasi zela nobelak idazten.
- b) «Zeruko Argia»n hasi zela idazten.
- c) Saizarbitoriaren idatziak oso gogoko dituela.
- d) Lehen emakume-idazlea izan zela euskal literaturan.

9.-Txillardegi eta Ramonen arteko apustuaz edo posturaz zer dio?

- a) Ez dakiela ziur nork irabazi zuen.
- b) Biak ere apustuzaleak zirela.
- c) Bere ustez Ramonek irabazi zuela.
- d) Txillardegik aurrea hartu ziola Ramoni.

10.-Madrileko Oskorriren kontzertua dela eta, diotenez....

- a) Saioa arrakastatsua izan zen.
- b) Oskorriren lehenbiziko saioa izan zen hiri horretan.
- c) Taldeko zuzendariak harreman onak egin zituen.
- d) Talde hau gutxitxo ezagutzen dute kanpoan.

2. IRAKURMENA

- Erantzun egokiena aukeratu eta dagokion letrari borobil bat egin.

Ondoko lerroetan bi Literatur Lehiaketa deialdi agertuko zaizkizu, bertan parte hartu ahal izateko baldintzak eta guzti. Ondoren, eta ezaugarriak ondo zehaztuta, hainbat pertsonaia. Hau ikusita zure lana honako hau izango da: erabakitzea **zein deialditan parte har dezakeen** pertsonaia bakoitzak (ez ahaztu **bakoitzak batean baino gehiagotan parte har lezakeela**). Erantzuna **borobil batez markatu behar duzu**.

LITERATUR LEHIAKETA (DEBA)

Debako Udalak antolatua, **XIII. Narrazio Laburren Literatur Sari-rako** lanak aurkezteko azken eguna **azaroaren 28koa** da. Gaia librea da. Sariketa honetan jatorriz gazteleraz idatziak dauden lanak soilik aurkez daitezke. Gutxienez sei foliokoak, makinaz idatziak, eta gehienez 30eko lanak aurkez daitezke. Debako bizi-laguna dela eta 18 urtetik gorakoa dela azaldu behar da. Lanak Debako Udaletxera bidali behar dira.

XIV. XABIER LIZARDI SARIA (ZARAUTZ)

Euskal Kulturgintzaren barruan haur eta gaztetxoentzako literatura zuzpertz nahirik, Zarauzko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur Departamenduarekin batera, **XIV. Xabier Lizardi Saria** antolatu du. Sariketa honetan jatorriz euskaraz idatziak dauden haur-ipuak aurkeztuko dira. Gaia librea izango da eta partaide bakoitzak lan bat baino ezin du aurkeztu. Lanek ezin dute hamabi orrialde baino gutxiagoko luzera izan. Lanak aurkezteko epea azaroaren 13an amaituko da eta Zarauzko Udaletxera bidali behar dira Xabier Lizardi Literatur Lehiaketarako direla adieraziz.

Zein deialditan parte har dezake pertsonaia bakoitzak?

1.-Aritz Adarra

- a) Debakoan
- b) Zarauzkoan
- c) Bietan
- d) Ez batean ez bestean

2.-Dolores Fuertes

- a) Debakoan
- b) Zarauzkoan
- c) Bietan
- d) Ez batean ez bestean

3.-Jesus L. de Mendiguren

- a) Debakoan
- b) Zarauzkoan
- c) Bietan
- d) Ez batean ez bestean

4.-Estibaliz Lauzirika

- a) Debakoan
- b) Zarauzkoan
- c) Bietan
- d) Ez batean ez bestean

5.-Maria Iseka

- a) Debakoan
- b) Zarauzkoan
- c) Bietan
- d) Ez batean ez bestean

Pertsonaiak

1.-Aritz Adarra Oker

1979an jaioa. Donostiako seme hau txiki-txikitatik «superdotatua» izan da; bestela, horra hor bere biografia. 10 urte zituela UBI bukatu eta lizentziatura egiten hasi zen. 13 urterekin, ordurako Historian lizentziatua, bere lehenengo liburuak eman zituen argitara: «*Mamuten aztarnak Euskal Herrian*» eta «*Koaternarioko bizi-modu latza*».

Oraingo honetan, eta lehiaketan parte hartzeko, oso lan egokia prestatu du, beti ere bere gaiarekin zerikusia daukana noski, baina, hori bai, ipuin tankerakoa: «*‘Izotza’ mamutaren abenturak*».

2.-Dolores Fuertes

Duela 29 urte Madrilén jaio zen. Izatez kanpotarra bada ere, txiki-txikitatik erakarri du Euskal Herriak, bertoko ohiturek, jendeak,... Hori dela eta, orain dela 5 urte gure artera etorri zen bizitzera, Debara hain zuzen ere. Madrilgo «Complutensen» Pedagogia egina dugu Dolores.

Literatura betidanik gustatu izan zaio, horregatik, eta bere arloarekin lotuta, Euskal Herriko ipuingintza nahikoa aztertu du, honen gainean zenbait lan aurkeztu dituelarik.

Oraingo Literatur Lehiaketan honako lan hau aurkeztu du «*Eneko en Bilbao o una aventura fantástica*».

3.-Jesus Lz. de Mendiguren

Literatur Lehiaketan parte hartzeko honako lan hau prestatu dut: «*Geltokiko ordu txikiak*». Lanaren luzera 29 foliokoa denez, onartua izango delakoan nago. Dena den, eta zuen informaziorako, hona hemen zenbait ezauzgarri pertsonal.

1950ean Gasteizen jaio nintzen arren, egun Zumaiako Udalean egiten dut lan, lorazain hain zuzen ere, eta Debako Kale Nagusian bizi naiz. Literaturarekiko nire zaletasunak bultzatu nau lehiaketa honetan parte hartzera, beraz, eta gehiago luzatu gabe, esku artean duzuen lana nire lehenengo dela esan daiteke (nahiz argitaratu gabeko beste zenbait narrazio badaukadan).

4.-Estibaliz Lauzirika Irujo

1957an jaio nintzen Arabako herri txiki batean. Bizitzaren halabeharrak Madrilera eramán gintuen anai-arrebak zein gurasoak, geroztik bertan bizi garelarik.

Psikologian lizentziatua, betidanik izan dut gogoko ipuinen mundua, baita honen inguruan zenbait ikerketa egin ere.

Oraingoan, gehiegi pentsatu gabe, Literatur Lehiaketarako deialdia irakurri nuenean, aspaldian idatzia neukan hamahiru folioko ipuina aurkeztea erabaki dut «*Heredia, un bazarro de Agurain*».

5.-Maria Iseka Arpajo

17 urtekoa izanik baliteke nire eskuhartzea kontuan ez hartzea. Dena den, eta hasierako errezeloak bazterturik, hona hemen nire lana «*“Saguzahar” taldearen abenturak*».

Oso luzea ez izan arren —13 foliokoa—, egokia dela uste dut. Hala ere, eta beste hainbat informazio baliagarria izango zaizuelakoan, hona hemen argibide batzuk.

Deban jaio eta bertan bizi naiz, nahiz eta ikasketak Donostiako Informatika Eskolan egiten ari izan. Arkeologi talde batean sartuta nagoenetik, aldizkari espezialdu zenbaitetan artikulu batzuk idatziak ditut, besteak beste, «*Errauspen nekrologikoak Debaldean*», «*Kobre Aroko aztarnak Gipuzkoan*».

3. IDAZLAN LABURRA

Ariketa honetan 100 hitz inguruko idazlana osatu behar duzu.

Aurtengo Ihauteriak direla eta, Udaletxeak ikastetxe arteko mozorro eta marrazki lehiaketak antolatu ditu. Hori dela eta, eskolako zuzendaria izanik, klaustroko tutore guztiei horren berri eman nahi diezu.

Idatz ezazu irakasleen gelako iragarki-taulan jarri beharreko oharra tutore guztiak jakinaren gainean egon daitezen.

4. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta 200 hitz inguruko idazlana osatu behar duzu.

Unibertsitateko zenbait ikasketatan matrikulatu ahal izateko eskatzen duten «**nota**» dela eta, UBIko zure ikasleek duela bi aste greba-eguna egin zuten hori guztia salatuz, eta «**numerus clausus**» delakoaren indargabetzea aldarrikatuz.

Zuk **zure adostasuna adierazi** nahi duzu, eta horretarako zure jarreraren aldeko argudioak azalduz **iritzi-artikulua** idaztea erabaki duzu. Hona hemen, lagungarri gisa, gaiaren garapenerako erabil ditzakezun zenbait puntu:

- Hasierak:
 - Noiz sortu zen?
 - Zergatik?
 - Zein karreratan aplikatzen zen?
- Gaurko egoera:
 - Definitu zein den.
 - Zergatik ailegatu gara egoera honetara?
- Iritzi pertsonala.
- Irtenbideak.
-

EDO

Legazpiko Eguzkialde Ikastolako zuzendaria zara. **Integrazioa** dela eta, datorren urtean zure ikastetxean «haur berezien multzo bat» hartu behar duzue. Ume horien 330 integrazioa benetakoa izan dadin, irakaskuntzan parte hartzen duten erakunde guztien inplikazioa behar-beharrezkoa ikusten duzu (udaletxea, gurasoak, irakasleak, ikasleak, e.a.). Hori dela kausa, beti ere integrazioaren aldeko giroa sortu nahian, Guraso Elkarteak hilero argitaratzen duen aldizkarian **iritzi artikulua** idaztea pentsatu duzu. Horretarako hona hemen lagungarri izan daitezkeen hainbat puntu:

- Eraikuntzaren baldintza fisikoak (eskailerak, igogailuak, e.a.)
- Haur berezien onarpena landu (etxean, eskolan, e.a.)
- Gurasoen inplikazio zuzena (orduz kanpoko ekintzak egokitu, e.a.)
- Irakasleen parte hartzea (aldeko jarrera, prestakuntza, e.a.)
-

II.2. LEHEN DEIALDI ITXIA: HE2ko AZTERKETA

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

HE2
Eredua: A

IDATZIZKO PROBA
1996ko urtarrilaren 30a

1. deitura:
2. deitura:
Izena:
NAN zkia.:

OHARRAK

1. Zure karneta mahai gainean utzi, aztertzailleek jasotzeko moduan.
2. Konproba ezazu azterketa honek 12 orrialde dituela eta denak ordena zuzenean daudela.
3. Erantzuten hasi aurretik, bete zure datuak.
4. Zure aulkitik mugitzeko edo informazioa eskatzeko, jaso eskua.
5. Ezin da azterketatik irten, arduradun batek baimena eman arte.
6. Gelan ezin da erre.
7. Azterketa-material guztiak entregatu behar dituzu amaieran.

1. IRAKURMENA

- **Erantzun egokiena aukeratu eta amaierako koadroetan idatzi.**

Yitzhak Rabinen hil ondoko garaipena

Israeldar gizarteak ez zegoen erabat pozik. Egia da, inkestak lagun, arabiarrekiko bake akordioagatik lur okupatuak emateko prest zeudenak gehienak zirela, baina aspaldian talde islamiar fundamentalistek eragindako sarraskiek eta segurtasunik ezak kezka bizia sortarazten zioten anitz israeldarri.

Izan ere, palestinarrei itzultzen dieten lurra zerbait neurgarri eta ukigarria da, eta bakea aldiz, egoera huts eta atxikigaitza, eguneroko eginetan atentatu terroristek hain erraz ikusten uzten ez dutena. Likud alderdi eskuindarrak arabiar terrorismo horrexetan oinarritu ditu luzaro bere kritikak Yitzhak Rabinen gobernu laboristaren kontra.

Lur okupatuetako kolonoak, judu ultranazionalistak eta Jainkoak argituriko era guztietako fanatikoak ere jo eta ke ari ziren, lau haizetara Rabin traidorea zela aldarrikatzen, Jainkoak berentzat emandako herrialde saindua arabiarrei lotsagabeki saltzen zielako. Horiek ere probokazio eta erasoak egiten zituzten palestinarren aurka, besteak hasiriko bake-bidea oztopatu eta mozteko.

Yasir Arafaten gobernuak, juduen aurkako terrorismoan lehenago hain abila zenak, ez zirudien oraingoan gai zenik Yihad Islamiarraren eta Hamastarren erasoak kontrolatzeko, eta israeldarrak kexu ziren. Bakegintza aurrera zihoan, baina eguneroko praktikan lehen uste zen baino traba, gaizkiulertu eta odol gehiagorekin. Bazuten bai, juduek, kezkaturik egoteko arrazoirik asko.

Gobernu laboristak, bestalde, ongi zekien bake-prozesu horren arrakasta-porrotean jokatzeko zituela datorren urteko hauteskundearen emaitzak, eta deskontentuen kopurua pixkanaka igonez zihoan. Gauzak horrela, Shimon Peresek eta Yitzhak Rabinek lehengo larunbatean Tel Aviven manifestaldi mitin sonatu hura antolatu zuten, ehun mila lagunuen aurrean, bakearen aldeko indarrak elkartu eta erakusteko, israeldar gizarte osoari adorea emateko.

Eta orduan ustekabea: judu erlijioso fanatiko batek, bere burua Yahweh-en beso mendekatzailatzat harturik, Israelgo lehen ministroa hil zuen. Segurtasunaren arduradunek, antza, ez zuten pentsatu judu batek era horretako atentaturik egin zezakeenik, eta horrela ero horrek tiroka Rabin erho (1) zuen.

(1) hil.

Ondoren, miraria: fanatismo irrazionalaren balentria ikusirik, Israeldarrek, ezker-eskuin diferentziak alde batera utzi eta argi ikusi dute bide okerra zein den, eta Rabin zuzen zihoala. «*Hil adi, alaba haite*» zaharra, berriz ere; bizitzak ukatu zion erabateko onespena, Herioak ekarri dio azkenean, ohorezko lore-koroa gisa. Buzuzagi hilaren ingurura milioi bat baino gehiago israeldar hurbildu dira, hondar agurra egitera. Haren ondorengoak, Shimon Peresek, lehenbiziko unetik bake-prozesua ez duela etengo iragarri du garbiki. Ematen duenez, orain hauteskunderik egingo balitz, defuntuaren alderdi laboristak sekulako arrakasta lortuko luke.

Bestalde, hazilaren (2) 6an, Rabinen hiletan Jerusalemen bilduriko Estatuburuak berrespen eta laguntza nabarmena eskaini diote Yitzhakek hasiriko bideari. Bereziki aipatzekoak izan dira Hosni Mubarak Egiptoko lehendakariak, eta Husein Jordaniako erregeak, biak lehen aldiz Israeleraturik, hildakoa goraiatzeko hitzak. Siriak ere, atentatua kondenatzean, argi erakutsi du ez dizkiola bakeari ateak itxi nahi.

Rabinen heriotzak, bestalde, zer pentsa eman behar izan die Hamastarrei, zeren hura, haiek ziotenez, arabiarren hain etsai handia izan balitz, ez baitzukeen hipernazionalista judu batek hilko. Horregatik, bake-bidea agian ez zatekeen berek uste bezain txarra izango, eta behar bada Arafati errespetu handiagoz begiratuko diote.

Joan den igandean Jerusalemeko lagunekin luzaz mintzatu nintzen telefonoz, egoera berriaz kezkatu. Esan zidatenez, orain, inoiz baino areago, arabiarrekiko bake-akordioekin aurrera segitzeko asmoa dago. Jendeak ez du odol gehiago nahi, eta atentatuaren ondoan alde bateko eta besteko fanatikoak argudiorik gabe gelditu dira. Oposizioak berak, Benyamin Netanyahu-en ahotik, lotsarren, nolabaiteko barkamena eskatu behar izan du, eskuinak Rabinen aurka sorturiko kriminalizazio kanpainagatik, eta Peresen politikaren kontra ez duela ezer egingo adierazi ere bai.

Auzi honetako partaideek, beraz, gatazka lehenbailehen amaitzeko gogoia erakutsi dute. Egia absolutuaren jabe argituek, bistan da, ez dute hain erraz etsiko, baina zinez esan daiteke honezkero gerra erabat galdua dutela, borrokaldiren batean oraindik inoiz garaile irten litezkeen arren, zoritxarrez.

Xabier Kintana, EGUNKARIA, 1995eko azaroak 9 (moldatua)

1.-Ondokoetatik zein dagokio testuari?

- a) Inkesten arabera, israeldarren gehiengoa arabiarrekiko bake akordioaren alde dago lur okupatuak eman ezean.
- b) Aspaldiko talde islamiar fundamentalistek eragindako sarraskiek israeldarren gehiengoa bakearen kontra jarrarazi dute.
- c) Kezkaturik egon arren, lur okupatuak emateko prest daude israeldar gehienak bakerako bidea izango bada.
- d) Israeldarrak ez daude pozik, talde islamiar fundamentalistek bakea lur okupatuen truke eskaini baitiete.

(2) azaroaren.

2.-Likud alderdi eskuindarrak zertan oinarritzen ditu bere kritikak Rabinen gobernuaren kontra?

- a) Lur okupatuak bakearen truke itzultzea ez da errentagarria.
- b) Lur okupatuak zerbait neurgarri dira, bakearen hein berean.
- c) Palestinarren indarkeriak jarraitu egiten du, lurrak entregatu arren.
- d) Ezin dira lur okupatuak itzuli arabiar terroristek ez dutelako nahi.

3.-Judu ultranazionalistek Rabin traidoretzat jo dute. Zergatik?

- a) Lur okupatuak bakearen truke palestinarrei eskaini dizkielako.
- b) Jainkoak berentzat emaniko lurraldea kendu dielako.
- c) Rabinek probokatu egin dituelako.
- d) Rabinek ez duelako Jainkoa errespetatzen.

4.-Zer dela eta daude kexu israeldarrak?

- a) Yasir Arafat terrorista abila delako.
- b) Yasir Arafat gezurti izanik, talde terroristez baliatzen delako.
- c) Yasir Arafat ez delako gauza Yihad Islamiarra eta Hamas kontrolatzeko.
- d) Yasir Arafaten gobernuak trabak besterik jartzen ez dituelako.

5.-Zerk bultzatu zituen Shimon Peres eta Yitzhak Rabin larunbateko mitina konbokatzerara?

- a) Bakearen aldeko joera indartsua erakutsi nahiak, israeldar guztiak animatzeko eran.
- b) Datorren urteko hauteskundeetan porrot egin nahi ez izateak.
- c) Deskontentu daudenak konbentzitzeko gogoak.
- d) Gero eta botu gehiago eduki nahi izateak.

6.-Rabinen hilketaren inguruan zein da adierazten den ideia nagusia?

- a) Miraria, israeldarrek ez baitzuten era horretako atentaturik egin zitekeenik espero.
- b) Rabinen hil ondoko garaipena, bizitzak eman ez diona Herioak ekarri baitio.
- c) Rabinen hil ondoko garaipena, bere alderdi laboristak hauteskundeak irabaziko ditu eta.
- d) Miraria, fanatismo irrazionalaren balentriak ezker-eskuin diferentziak ezabatu ditu eta.

7.-Rabinen hiletara bilduriko estatuburuek bakearen alde eskainitako laguntzen artean berebiziko garrantzia du...

- a) Siriak emanikoak.
- b) Arafatek emanikoak.
- c) Mendebaldeko Estatuak emanikoak.
- d) Hosni Mubarak eta Huseinek emanikoak.

8.-Zein da testu-egilearen ustez atera litezkeen ondorioetariko bat?

- a) Hamastarrek bere horretan jarraituko dute; orain, gainera, zenbait israeldarren laguntzarekin.
- b) Hamastarrek ikusiko dute bakea palestindarrentzat zein israeldarrentzat berdin-berdin txarra dela, Rabinen hilketak argi adierazten duenez.
- c) Hamastarrek oraingo bake-bidearen posibilitatea kontuan har dezakete, Rabinen hilketak Arafatekiko ikuspegia aldaraz diezaiekeen aldetik.
- d) Hamastarrek Arafati errespetu gehiagoz begiratuko diote hipernazionalismoak eragindako bake-bidea hartu duelako.

9.-Testu-egilea Jerusalemeko lagunekin telefonoz mintzatu eta berauek eman dioten inpresioa honela labur daiteke:

- a) Jendeak, oro har, arabiarrekiko bake-akordioarekin adostasuna adierazi du eta oposizioak dio ez duela kontra ezer egingo.
- b) Oposizioak, Rabinen aurka sorturiko kanpaina dela eta nolabaiteko barkamena eskatu eta gero, arabiarrekiko oraingo bake-akordioaren aldeko adostasuna adierazi du.
- c) Alde bateko eta besteko fanatikoek, argudiorik gabe gelditurik, ez diote trabarik jarriko bake-akordioari.
- d) Oposizioak, eta jendeak orohar, oraingo bake-akordioaren ondasunak adierazi ditu.

10.-Azkenik, zeinek, eta zergatik, irabaziko du auzi honetan?

- a) Egia absolutuen jabe argituek, ez baitute inoiz etsiko.
- b) Egia absolutuen jabeok, borrokaldiren bat irabaziz gero ere, azkenean etsi egingo dute eta.
- c) Auzi honetako partaideek, gatazka lehenbailehen amaituko dute eta.
- d) Auzi honetako partaideek, gatazka amaitzeko gogoia erakutsi dute eta.

2. IDAZLAN LABURRA

**Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta garatu behar duzu.
Luzera: 200 hitz inguru idatzi behar dituzu.**

Zu ikastetxe bateko zuzendaria zara eta matrikulatu berri diren ikasleen artean bada bat «seropositiboa» dena. Ikastetxeko gurasoek jakiten badute, horrek zein ondorio ekar lezakeen kontuan izanik, aurrea hartu eta gutun bat bidaltzea erabaki duzu. Bertan, besteak beste, zure iritzia eta klaustrokideena emango duzu eta, bide batez, egingo den bilera baterako deia egingo duzu.

EDO

Zure ikastetxean, zuk daramatzazu eskolaz kanpoko ekintzak eta eskubaloi talde bat osatu duzue. Konpetizioan sartzeko Federaziora gutun bat igorri behar duzu, bertan taldearen berezitasunak azalduz. Besteak beste honako puntuak ukituko dituzu:

- Zenbat zareten.*
- Zein konpetiziotan parte hartu nahi duzuen.*
- Umeen adinak.*
- Zein helbururekin osatu duzuen taldea*
-*

Amaitzeko gai honi buruzko bilera bat eskatuko duzu.

3. IDAZLAN LUZEA

Ondoko bi gaien artean bat aukeratu eta garatu behar duzu.

Luzera: 350 hitz inguruko idazlana egin behar duzu.

Ikastetxearen euskalduntze plana: Zure ikastetxea D eredukoa izanik, aspaldi honetan bereziki, arazo batek kezkatzen zaitu: hain zuzen ere, ikasleek klaseetatik kanpo euskara ez erabiltzeak. Hori dela eta, klaustroko barne-erabakidarako txosten bat prestatzea eta aurkeztea erabaki duzu. Besteak beste honako puntu hauek ukituko dituzularik:

- zenbaterainoko eragina izan dezake eskolak klasetik kanpoko erabileran?*
- giroa euskalduntzeko har litezkeen neurriak: irakasleen aldetik, ikasleen aldetik, ikastetxearen aldetik...*
- neurri horiek non, noiz, nola: klasean, pasiloetan, bileretan, patioetan...*
- ezagut dezakezun esperientzia bat edo beste...*

EDO

Laster batean zuen ikastetxeak sare pribatuan geratu edo publikora pasatzea erabaki beharra du.

Zu, bi proposamenetatik, baten aldekoa zaitugu. Horretarako laster guraso, irakasle eta abarren artean egingo den batzarrerako txosten bat aurkeztu behar duzu.

Hona hemen uki ditzakezun zenbait puntu:

- Momentuko egoera.*
- Zer eskaintzen du sare batak eta besteak (pedagogia aldetik, ekonomiko, gizarte mailan, emaitzetan ...)?*
- Irakasle, ikasle eta gurasoengan duen eragina: bai sare batek bai besteak.*
- ...*

III. 1996ko BIGARREN DEIALDI ITXIA

Bigarren deialdi itxiko azterketak deialdi irekiarekin batera egin ziren eta, ondorioz, azterketa bera izan zen bai idatzian bai ahozkoan (ikus idatzizko azterketak liburu honen I.1.2 eta I.2.2 ataletan).

IV. AHOZKO AZTERKETAK

IV.1. AHOZKO AZTERKETAK: HE1

HE1eko ahozko azterketak bi zati ditu:

Albiste laburrak: orri batean ematen zaizkion bi albiste laburren artean bat aukeratu eta prestatu beharko du azterketariak 20 bat minutuan, gero aztertzaileen aurrean azaltzeko bospasei minututan.

Elkarrizketa: albiste laburraren azalpenaren ondotik, aztertzaileek gai bat proposatuko diote eta horren inguruan hitz egingo dute azterketariak eta aztertzaileek beste bospasei minututan.

ALBISTE LABURRAK

OHARRA: bi albiste labur eskaintzen dizkizugu, bakoitza bere gai be-reziarekin. Nahi duzuna aukera dezakezu zure azalpenerako. Garatu zuk aukeratutako gaia. Lehendik duzun esperientzia, ezaguera eta iritzia erabil dezakezu horretarako.

1.

Jolas-parkeak ez dira seguruak. Madrilgo Jolas-Parkeak eta Port Aventurak izan ezik, gainontzeko guztiek ez dituzte gutxieneko segurtasun-baldintzak betetzen. Espainiako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak egindako azterketak berriki azpimarratu duenez. Azterketa horren arabera, jolas-parkeetako segurtasun-neurrien gaineko araudirik ez dago batere, eta ikuskapen ofizialik ere ez da ia egiten. Gune horietan gertatzen diren istripu asko eta asko zainketa kaskarra delako eta erabiltzaileak behar bezala informatzen ez dituztelako gertatzen direla jakinarazi dute gainera. Horregatik, horiek guztiak kontuan hartu eta behar bezalako araudia egitea eskatu dute haurren segurtasunerako.

ikuskapen: inspektzioa

Kaloriak gutxitzeak bizitza luzatzen du. Gutxiago jango bagenu, gizakiok 140 urte betetzera iritsiko omen ginatke. Horixe da zientifiko britainiar eta estatubatuarren talde batek aldarrikatzen duen teoria ausarta, beren laboratorioetan jan-neurri zorrotz baten pean jarritako arratoiak askoz ere denbora luzeagoan bizi daitezkeela frogatu ondoren. Orain, ikertzaileek gizakiekin gauza bera gertatzen ote den ikusi nahi dute. Brian Merry doktoreak uste duenez, kalorien murrizketa gogor batek ikaragarri jaisten omen du pertsonak minbizia harrapatzeko edo adinarekin zerikusia duten beste gaitz batzuk jasateko duen arriskua. Honen arabera dieta-aldaketa batek bizitzaren luzapena ekar dezake. Esperimentuak, hala ere, kontu handiz egin beharrekoak dira, eta beti ere medikuen kontrolpean.

2.

C bitaminarekin katarroetatik babestuz. Negu partean katarroak gauza ohi-koak dira. Gaixotasunaren errua birusek dute; izan ere, gure gorputzean sartu ondoren ondoeza sortarazten digute. Zergatik gertatzen da hori guztia? Gure gorputzeko defentsa-mekanismo naturalek huts egiten dutelako, edota mekanismo hauek ahulduta egonik, indartu beharrean daudelako. Behin arrazoia ezagutu ondoren neurriak hartzeko moduan gaude, eta gaurkoan neurri erraz bezain sinplea aipatuko dugu: C bitamina. Hau, normalean, janari eta edarien bidez ahoratzen dugu, baina zenbait kasutan kopurua ez da nahikoa izaten gorputzarentzat. Honelako kasuetan nora jo behar dugu? Botikara, baina beti ere kontuan hartuz iturri naturalak artifizialak baino hobeak direla.

ondoeza: malestar

Frantziako etxeetan 40 milioi animalia bizi dira. Frantziako Laborantza Ministerioak eman berri dituen datuen arabera, hiru etxetik bitan animaliak bizi dira gizakiekin batera. Michaux txostenak dioenez, Frantzian 7,8 milioi zakur eta 8,2 milioi katu daude. Haez gainera, etxeetan diren 19 milioi arrain, sei milioi txori eta milioi bat karraskari —hamsterrak edo kuiak batik bat—. Datuok erakusten dute neurritz kanpoko populazioa dagoela. Abere horiek azkar ugaltzen dira eta jasotzen dituen nahikoa jende ez dago. Horregatik, Animaliak Babesteko Elkarteak bakarrik 200.000 zakurretik 300.000ra bitartean hiltzen ditu urtero.

karraskari: roedor

kuaia: cobaya

3.

Abelgorri haragiaren kontsumoak berriz gora egin du «behi eroen» afe-raren ondoren, ENBA sindikatuaren ustez. Behi Eroen arazoak eragindako «urduritasunaren» ostean, abelgorri-haragiaren kontsumoak berriz gora egin du, Euskal Nekazarien Batasunak prentsa ohar baten bidez jakinarazi duenez. Hiltegiatan, biltegi handietan, eta jendaurreko postuetan nabaritu du salmenta-igoera sindikatuak. Martxoaren bukaeran abelgorri haragiaren salmenta nabarmen jaitsi zen, ENBAren arabera; eta oilasko, untxi eta txerrikiaren salmentak, berriz, gora egin zuen. «Kalitateko euskal labela duen abelgorri-haragia saltzen duten lekue-tan, ordea, ez zuten beherakada hori sumatu, baina orain %10 gehiago saltzen dute hauek», sindikatuak emandako informazioaren arabera. Kalitateko euskal okela erosteko deia egin du ENBAk, «haragi merkea naturalak ez diren teknikak erabiliz soilik lortzen baita».

abelgorri: ganado vacuno

Esloveniako hartzak Pirinioetara eramango dituzte bertan bizitzeko. Hil honetan edo hurrengoan, Esloveniako mendietan bizi diren bi hartz gazte harra-patu eta Melles (Garonna Garaia) inguruko basoetara eramango dituzte bertan bizi daitezen. Eslovenian 350 hartz daude, Pirinioetan bizi diren dozena bat hartzen

familikoak. Pirinioetara eramango dituztenak 4 eta 6 urte arteko arra eta emea izango dira. Askatu aurretik, hartzei azterketa medikoak egingo dizkiete beren osasun egoera ikusteko eta ondoren, mikrotxip bat duen lepoko bat jarriko diete, nondik nora dabiltzan kontrolatzeko. Datorren urtean beste hartz esloveniar bat Pirinioetara eramateko asmoa dute *Life* programaren barnean lanean ari diren Artus taldekoek.

4.

«Mirarizko produktuak» ez erosteko deia kontsumitzaileei. Zientifikoki frogatu gabe badaude ere, mirarizko produktu hauek kontsumitzaileari mesede egiten omen diote. Hori adierazten dute behintzat beraiekin batera ageri diren kanpainek. Hala ere, arazoa ez du produktuak berak sortzen, baizik eta berari lotutako informazioak. Produktuok osasun edo estetika arazoei —loditasuna, zelulitisa, ...— konponbide harrigarriak eskaintzen dizkieten arren, frogatutako eragin sendagarririk ez dute. Are gehiago, hainbat kasutan arriskutsuak ere izan daitezke. Hori dela eta, Bizkaiko Farmazeutikoen Elkargoak, eta Euskal Autonomi Elkarteak Kontsumitzaileen Elkarteak produktu horiei buruzko informazio-kanpaina hasi dute, kontsumitzaileei produktuok ez erosteko aholkatuz.

Denden %30ek hautsi egin dute merkealdiari buruzko araudia. Jaurlaritzako Merkataritza eta Kontsumo Sailak egindako ikerketaren arabera, Euskal Autonomi Elkarteak denden %30ek baino gehiagok ez dute bete merkealdirako indarrean dauden araudia. Jaurlaritzak 214 denda ikuskatu zituen eta horietatik askotan araudiaren kontrakoak harrapatu zituen, merkatutako produktuak hilabete lehenagotik salgai egon behar duela agintzen duen araudiaren aurkakoak bereziki. Merkataritza eta Kontsumo Sailak esan duenez, legedia hautsi duten dendak «egindako hutsegitearen arabera» zigortuko dituzte.

araudia: reglamento

ikuskatu: inspeccionar

5.

Zikoina bere bakardadean. Joan den astean Gasteizko San Bizente elizako zikoina emeak habiatik alde egin zuen, janari bila ziurrenez. Baina ez zen bueltatu, eta ez du sekula egingo. Bizileku zuen hiriguneko dorrera zihoan, egunkari orri bat mokoan zeramala, eta haize bolada batek orria begietara tolestu eta itsu-itsuan jo zuen «Los Arquillos»eko teilatua. Arra eta arrautzak bakarrik utzi ditu zikoina emeak, eta arrak ondo ulertu du etorkizun hurbilean txitak izango direnak zaintzeko arduradun bakarra dela bera. Bakarrik geratu bada ere, zikoina arrak ez du etsi. Ama eta aitaren lanak bereganatu ditu eta, janariaren bila joateko ez bada, ez du habiatik alde egiten. Arrisku bizian dira zikoina arra eta bere arrautzak. Bi arrisku nagusi dituzte: arrautzak hoztu eta inkubazioa gelditzea, edota txitek jaiotzea lortuko balute, aita bakarrik utzi eta hotzak hiltzea.

etsi: resignarse, desistir

Telebistako indarkeriak eragina badu; baina erlatiboa, ez osoa. Telebistan agertzen den indarkeriaren eta haurren jarrera biolentoari buruz ikerketa asko egin dira. Ikerketa gehienak bat etorri dira lau puntutan. Lehenengoa, indarkeriaz betetako saio asko ikusten dutenek gero jarrera biolentoagoa izan dezaketela aurrikusi dute, baina honek ez du esan nahi programa biolento gehiago ikusten dutenik. Bigarrena, pertsonaiekin identifikatzen diren haurrengan eragin handiagoa du indarkeriak. Hirugarrena, mutilengan eragin handiagoa du neskeengan baino. Laugarrena, jarrera biolento handiagoa duten haurrei zailago egiten zaie fikzioa eta errealitatea bereiztea. Hala ere, hainbat ikerketak eragin ona ere badaukala frogatu dute. Gizartearen aldeko saioak (Barrio Sésamo,...) ikusi dituzten haurrek, gero gizartearen aldeko jarrera hobea izan dezaketela aurrikusi dute.

bilakaera: garapena, eboluzioa
aurrikusi: prever

6.

Eskoletan katolikoek eskubide berak izango dituzte haur musulman eta protestanteek. Jeronimo Saavedra Hezkuntza ministroak eta Juan Alberto Belloch Barne eta Justizia ministroak akordioa izenpetu zuten atzo fede-agintari musulmanekin eta eliza protestanteen ordezkariekin, sinesmen hauetako haurrek beren erlijioa eskoletan ikasi ahal izateko. Guraso musulmanek eta protestanteek beren seme-alaben ikastetxeetako zuzendaritzari jakinarazi beharko diote haurrentzat erlijio ikasgaia nahi dutela. Ikastetxeek aukeratuko dute irakaslea. Klase hauek Estatuak ordainduko ditu osatzen diren taldeetan gutxienez hamar ikasle baldin badaude. Ikasleak gutxiago badira, gurasoek beraiek ordaindu beharko dute. Ikasgaia jasoko dutela, ordea, Estatuak bermatuko du. Bellochek jakinarazi zuenez, musulmanak eta protestanteak 600.000 inguru dira Espainian. Juduek ez dute beren erlijioa irakasteko eskubiderik eskatu eta horregatik ez zaie musulmanei eta protestanteei emandako aukera eskaini.

bermatu: garantizatu

Lech Walesak elektrizista gisa jardungo du berriz. Lech Walesa, Poloniako lehendakari izandakoa eta Solidarnosc sindikatuko buru-ohia, Gdansk-eko untzioletako bere lanpostura itzuli zen atzo elektrizista-lanean aritzeko. Walesak goizeko 04.30etan (GMT) jo zuen untzioletara Mercedes auto batean eta bi bizkarzainek lagunduta. Hauexek dira lehendakaritza tituluarekin batera lehendakari izateagatik gordetzen dituen pribilegioak. «Itzuli egin naiz ez dudalako nondik bizi, eta ea zer esaten diodan emazteari hilaren amaieran soldatarik ematen ez badiot», adierazi zuen. Walesak gogorarazi zuen Poloniak ez zuela legezko araudirik kargua utzi duen estatuburuari jubilazioa eta bizi-maila duina ziurtatzeko. Legebiltzarrak oraindik ez du onartu lehendakari-ohi guztiei bizitza osorako pentsioa eskaintzeko legea.

buru ohia: ex líder
duina: digno
untziola: astillero

7.

Telefono eramangarrien sukarra. Badirudi daramanari prestijioa ematen diola. Hainbat kasutan «giza-maila»-ren adierazlea, are gehiago pasadizo farregarrien sortzailea. Horra hor Italian gertatutakoa, telefonoaren deiari erantzuteko Ebanjelioaren irakurketa bertan behera utzi zuen apaizarena; edota telefonoaren deia entzun orduko, futbol-zelaia utzita aldageletara joan zen futbolariarena, edo berarekin batera bazkaltzen ari zen kideari konturatu gabe deitu zion politikoarena. Hau guztia ikusita, musika ekitaldietan zein Parlamentuan debekatu egin dute bere erabilera. Parlamentuko lehendakariak, Irene Pivettik, «kilker-lapiko» bihurtuta zegoen Parlamentuan deiak eragozten zituen ezkutu magnetiko bat ipintzeko agindua eman zuen. Jarraian hirurogei urteko diputatu batek salaketa egin zuen esanez ezkutuak hedatutako mikrouhinek «gizonezkoen esfera sexuala» min zezakeela. Enrico Finzi soziologoaren ustez, gizon askori bere gizontasunean konfidantza ematen dio.

giza-maila: nivel social
mikrouhin: microonda
ezkutu: escudo

Eskale bat erreta hil da, eta beste bat zauritu egin dute Parisen. Jean Tibéri-k, Parisko alkateak, adierazi zuenez, «krimen bat beti da mesprezagarria baina zoritxarreko gizaki bat hiltzea are mesprezagarriagoa da; eskatzen dut, beraz, ahalgin guztiak egitea errudunak harrapatzeko eta barbaria horren egileak gogorki zigortzeko». Parisko alkateak, beraz, ez zuen zalantzarik izan atzo goizeko gertakari latza nahita egindako hilketa bat izan zela adieraztean. Erreta hildako gizona egoitzarik gabe zegoen, eta azken egunotan Lafayette kaleko izkina batean pasatzen zituen gauak, metroko berotasuna kanporatzen duen irteera batean. Gertakaria astelehen goizeko 04.30etatik 05.00etara bitartean gertatu zen, ordu horietan lekuko bakan batzuek ikusi zutelarik gizon bat sutan, garrasika eta korrika. Ezin izan zuen inork ezer egin, eta gizona bizirik erreta hil zen. Lekukoetarik batek zioenez, apur bat lehenago hiru gazte korrika ikusi zituen, bere ustez ihesean.

mesprezagarri: despreciable

8.

Nekea gainditzeko aholku batzuk. Gero eta zailagoa da gaur egungo bizitzak sortzen digun konpetitibitate-giro horretatik ihes egitea. Egunez egun batere betetzen ez gaituzten lanak egiten ditugu. Motibaziorik gabe aurkitzen gara maiz. Bizimodu horrekin ezinezkoa da gure gorputza eta gure adimena ez afektatzea. Horrela, une jakin batean neke kronikoak jotzen gaitu. Sintomak: nekaturik jaikitzea, behar adina atsedean hartu ez dugun sentazioarekin. Aldarteia ere ez da betikoa: depresioa, kontzentrazio-falta eta irrika-sexualaren galera. Fisikoak ere ager daitezke (buruko minak, giharretako minak,...). Nola gainditu hori? Jarduera fisikoen programa bat hasi, bakoitzak gogoko duen ariketa moduarekin (ibili, igerian egin,...), baina beti ere erlajatzeko. Bizimodua ere aldatu, ahal bada:

lanari eskainitako denbora arrazionalizatu, denbora librea disfrutatzen ikasi, satisfakzio iturri izango diren jarduerak egin eta atsedeen hartu (behar adina lo egin giro lasaian eta zaratak isolatuz).

aldarte: umorea
isolar: aislar

Inpotentzia-kasu ia guztiak sendagarriak dira. Inpotentzia-kasuen %98 sendatu egiten dira. Balearetako Urologia, Sexologia eta Andrologia Zentroko zuzendariak azaldu duenaren arabera, inpotentzia oso egoera larria da, ikuspegi psikologikotik batez ere, gizonezkoa bezala bere bikotea ere afektatuz, eta kasurik larrietan suizidioraino eramanez dezake gaixoa. Inpotentzia harreman-sexualak mantentzeko ezintasun bezala definitu daiteke. Gizonezkoak harreman-sexuala edukitzean saiatzen den kasu guztietatik %30etik gora huts egiten duenean komeni da espezialista batengana jotzea. Inpotentzia sendatzeko metodoak oso desberdinak dira, kasu bakoitza diferentea baita. Hala ere, aukera asko dauzka gaur egun terapeutikak: hasi neurri higieniko eta dietetikoetatik (tabakoa eta alkoholaren kontsumoa gutxitu), substantzia basoaktiboak edo aparatuek erabiltzeraino, eta azken erremedio bezala kirurgia aipatuko genuke, protesiak ezarriz.

9.

«Igande-arratsaldetako sindromea»ri aurre egin. Igandea jende askorentzat asteburuaren amaiera gisa gaititu ezinezko egoera izan ohi da. Une horretan hainbat sentimendu agertzen dira: suminkortasuna, ezinegona, larritasuna,.... Horra hori igande-arratsaldetako sindromea, psikologoek gero eta gehiago diagnostikatzen duten koadroa. Sindrome honek jotzen dituen pertsonak bi motatakoak izan ohi dira: pertsona oso konpetitiboak batetik, beren lanbidearekin zerikusia duen guztiaz jabetu nahi dutenak, eta aisia eta jai-egunak denbora galdutzat hartzen dituztenak. Eta bestetik beren lan-giroa modu konfliktiboan bizi dutenak, beren lanbidean inolako satisfakziorik aurkitzen ez dutenak. Pertsona horiek angustiatu egiten dira astelehena iristen ari dela eta lanera itzuli behar dutela ikustean. Nola egin aurre angustia honi? Errezetarik ez dago, azken finean, bizimodua aldatu behar da, lana bere lekuan kokatuz, daukana baino garrantzi handiago eman gabe, eta bizitza erreala norberaren asmo eta nahiekin ahalik eta ongien egokituz.

suminkortasuna: irritabilidad
aisia: denbora librea

Bost trasplante 36 ordutan, eta bizirik. Leonardo Cioce 28 urteko gaztea, berriro jaio dela esan daiteke, bere gorputzaren bost atal operazio berean trasplantatu zizkiotelako: urdaila, hesteak, giltzurrun bat, gibela eta pankrea. Operazioak 36 ordu iraun zuen guztira. Aurreneko aldia zen gisa honetako operazioa egiten zela munduan. Barin bizi zen Leonardo Cioce lehendik ere hainbat operazio jasanda zegoen bere herriko ospitale desberdinetan, «Gardner sindromea» izeneko gaixotasunak jota zegoelako. Gaitzak hesteak, garuna, hezurak, larruazala, eta abar afektatzen dituzten tumore txikitxo ugari sortaraziz, eta azkenerako organoak itotzera iristen dira. Pro-

zesuan zehar, une bat iritsi zen non medikuen iritziz trasplante multiplea zen bizia salbatzeko aukera bakarra. Hala ere, kostua ikaragarria zen, eta, hori gutxi balitz, organo-emaileak ere beharrezkoak ziren. Sekulako kanpaina egin ondoren laguntza ofizialak, jabetza eta ondasunen gaineko hipotekak, eta solidaritateak aurrekontua estali zuten. Emaileen organoak iristen hasi ziren. Guzti horren ondorioz, esan daiteke heriotza seguru batetik libratu dela Cioce.

garuna: burmuina, cerebro
ondasun: aberastasun

ELKARRIZKETA GAIAK

Aztertzailerek honelako gaiak erabili izan dituzte elkarrizketarako:

- Osasuna
- Giza-eskubideak
- Kontsumoa
- Ekologia
- Estresa
- Jolasak eta jostailuak
- ...

IV.2. AHOZKO AZTERKETAK: HE2

**Proba honetan bi ariketa egin behar dituzu.
30 minutu izango dituzu guztia prestatzeko.**

1.-TESTU BATEN AHOZKO LABURPENA

Irakur ezazu arretaz alboko orrian datorren testua —apunte laburrak jasoaz, nahi baduzu—. Gero **zazpi minutu** izango dituzu haria aztertzaileei azaltzeko, testua birkontatuz. Bigarren mailako xehetasunak bazter ditzakezu, helburua **nondik-norako nagusiak** ematea baita. Idatzizko laburpena besterik gabe irakurtzea ez da onartuko; testua bera zatika irakurtzea ere ez, testua han edo hemen lagungarri gisa erabiltzea zilegi bada ere.

OHARRA: *Testu hauek normalean aldizkarietatik edo libururen batetik jasotako artikuluak izan ohi dira, fotokopiatuak eta orrialde bat edo bikoak.*

2.-AZALPEN LIBREA

Ondoko hiru gaien artean bat aukera eta presta ezazu. Gero **zazpi minutu** izango dituzu gutxi gora-behera zure ideiak aztertzaileei azaltzeko. Egizu eskematxo bat paper batean, gero zure azalpenari lotura eta ideia-jarraipen argia eman ahal izateko. Mintzatzeko orduan ezin izango duzu testu jarraitu bat irakurri.

Hona hemen azalpen librerako erabili diren gai-multzo batzuk:

- 1.-Irakasleen ordutegia: egokia ala ez? Arrazoitu.
- 2.-Guggenheim museorako dirua egoki erabilia?
- 3.-Goenkale telesaila aurrerantzean erdaraz ere bai.

- 1.-Loteria tokatuko balitzaizu...
- 2.-Gero eta parke natural gehiago: Gorbeia, Urkiola, Aralar...
- 3.-Nola antolatuko zenuke zure lanean urteko ordutegia? Arrazoitu.

- 1.-«Umearen zentzuna, etxean entzuna» esaerari zer deritzozu?
- 2.-Futbol profesionalean ez al da diru gehiegi xahutzen?
- 3.-Aurtengo urtebetetze-oparia: telefono mobila.

- 1.-Jaiotze tasa behera. Zein da irtenbidea? Adopzioa ...
- 2.-Jateko ohiturak aldatzen doaz.
- 3.-Informatika gero eta premiazkoagoa.

- 1.-Irakaskuntzan, birziklatu zertarako?
- 2.-Auzoetako dendak desagertzen doaz. Noren errua?
- 3.-Gero eta gutxiago irakurtzen omen da.

- 1.-Zaborrak erre ala birziklatu?
- 2.-Nekazal turismoa gora.
- 3.-Ba al dago disziplina arazorik ikastetxeetan?

- 1.-Testuliburua gehiegi erabiltzen ote da?
- 2.-Hiri handietan bizimodu erosoagoa?
- 3.-Erretzaileek gero eta eskubide gutxiago.

- 1.-«Irakasleek opor gehiegi» leloa oraindik ere sarri entzuten da.
- 2.-Anorexia, gaixotasun latza gaur egun.
- 3.-Gero eta GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde) gehiago.

- 1.-Eskola-porrotean, nork du erantzukizuna? Arrazoitu.
- 2.-Dirudienez, langabezia behera.
- 3.-Udako kanpamentuak arrakastatsuak azken urteetan.

- 1.-Gurasoek gehiegi agintzen dute ikastetxeetan?
- 2.-Udaberria iritsi eta argaltzeko irrikitan.
- 3.-Zahar-egoitzak guztientzat edo ahal dutenentzat bakarrik?

V. ZUZENKETARAKO IRIZPIDEAK (*)

(*) Atal honetan aztertzaileren bi gauza biltzen dira: alde batetik kalifikazio-sistema nagusiaren azalpen labur bat (V.1 puntua); eta bestetik aztertzaileren esku-liburuko zati garrantzitsuenak (V.2 eta hurrengoak). Esku-liburu horretan aztertzaileren lana bideratzeko erabili ohi diren orientabide, adibide, taula eta abar jasotzen dira.

V.1. KALIFIKAZIO-SISTEMAREN AZALPENA

V.1.1. ERREFERENTZIA NAGUSIAK

Irakasleen Hizkuntz Eskakizunetan bi maila daude ezarrita (martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua). Lehenik eta behin hizkuntz eskakizun bakoitzaren mamia aipatu behar da.

- **HE1:** ez da euskara eta ez euskaraz irakasteko, baina euskara zerbitzu-hizkuntza legez erabiltzeko gaitasuna garantizatzen du. Irakaslea gai izango da, besteak beste, honako hauek euskaraz egiteko:
 - ikasleekin taldeka edo bakarka eskolako arazoez (jokabidea, motibazioa, emaitzak, ikasleekin edo irakasleekin izandako arazoak, familiako arazoak etab.) hitz egiteko;
 - gurasoekin, irakasleekin, hezkuntza-administrazioako langileekin irakaslanarekin lotutako gaii buruz aritzeko (eskolaren funtzionamendua, helburuak, ikasleei buruzko iritziak, ebaluaketarako irizpideak etab.)
- **HE2:** euskara edo euskaraz irakasteko gaitasuna bermatzen du. HE1eko trebetasunez gainera, honako hauek ere betetzeko gai izango da HE2duna:
 - bere alorreko irakaskuntza euskaraz eman ikasleei, bakarka zein taldeka, azalpen majistrala eginez zein gelan eztabaida sortuz eta jasotako galderei erantzunez;
 - eskolak prestatzeko materialak ulertu (argitalpenak, programa ofizialak, testu-liburuak, kontsulta-liburuak, artikuluak, pelikulak, bideoak, zintak, irrati-programak...);
 - programa orokorrak eta bere alorrekoak euskaraz idatzi;
 - fitxak, apunteak, materialak, ariketak eta abar euskaraz idatzi;
 - ariketak zuzendu, txostenak idatzi eta bestelako balioespen-iharduerak.

Oro har Hizkuntz Eskakizunen inguruko arauzko erabaki nagusiak ondoko hauek dira:

- Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua (1993ko apirilaren 2ko EHAA).
- 1994ko urtarrilaren 10eko Agindua (1994ko urtarrilaren 26ko EHAA)
- 1995eko apirilaren 10eko Agindua (1995eko maiatzaren 11ko EHAA)
- 1996ko apirilaren 24ko Erabakia (1996ko maiatzaren 10eko EHAA)

V.1.2. DEIALDI IREKIA

Deialdi irekiaren kalifikazio-sistema zehatza ezagutzeko ikus 1996ko apirilaren 24ko Erabakia liburu honen eraskinetan: VII. 2. atala: Arauzko erabakiak. Ondoko lerrootan era laburrean biltzen da sistema hori.

Deialdi irekiak hiru zati edo proba ditu: lehenengoa Aukera Anitzeko Galdekizuna da. Bigarren zatian Irakurmena eta Idazmen-ariketak biltzen dira; eta lehen eskakizunean baita Ahozkoaren Ulermena ere. Hirugarren proba Ahozkoa izan ohi da. Proba bakoitza baztertzailerak da eta GAI edo EZ GAI moduan kalifikatzen da.

Lehen proban puntuak honela banatzen dira:

LEHEN PROBA	HE1	HE2
Puntuak	70	70
Gainditze-muga	45	45

Bigarren proban idazlanek pisu handia dute. Idazlanak zuzentzeko berariazko baremoak erabili dira (ikus aurrerago zuzenketarako irizpideak, baremoak etab.: V.2. puntua eta hurrengoak).

BIGARREN PROBA	HE1	
Ahozkoaren Ulermena	Otik 5era	
Irakurmena	Otik 5era	
Idazlan Laburra	Oso Gutxi	1
	Gutxi	2
	Nahikoa	4
	Ongi	6
	Oso Ongi	8
Idazlan Luzea	Oso Gutxi	5
	Gutxi	10
	Nahikoa	15
	Ongi	20
	Oso Ongi	25
Gainditzeko	24 puntu	

HE2	
ariketarik ez	
Otik 10era	
Oso Gutxi	1
Gutxi	2
Nahikoa	4
Ongi	6
Oso Ongi	8
Oso Gutxi	5
Gutxi	10
Nahikoa	15
Ongi	20
Oso Ongi	25
24 puntu	

Hirugarren probaren, hau da, Ahozkoaren, kalifikazioa **Gai** edo **Ez Gai** izan da.

V.1.3. DEIALDI ITXIAK

Kalifikazio-sistema zehatza ezagutzeko ikus 1995eko apirilaren 10eko Agindua liburu honen eraskinetan: VII.2. atala: «Arazko erabakiak». Ondoko lerrootan era laburrean biltzen da sistema hori.

Deialdi itxiko azterketak bi zati izan ditu: Idatzizko zatia eta Ahozkoa; ez da izan, beraz, alde zurretiko Aukera Anitzeko Galdekizunik. Azterketa gaunditzeko bi zatiak gaunditu behar dira.

IDATZIZKO ZATIA	HE1	
Ahozkoaren Ulermena	Otik 5era	
Irakurmena	Otik 5era	
Idazlan Laburra	Oso Gutxi	1
	Gutxi	2
	Nahikoa	4
	Ongi	6
	Oso Ongi	8
	Bikain	10
Idazlan Luzea	Oso Gutxi	5
	Gutxi	10
	Nahikoa	15
	Ongi	20
	Oso Ongi	25
	Bikain	30
Gaunditzeko	24 puntu	

HE2	
ariketarik ez	
Otik 10era	
Oso Gutxi	1
Gutxi	2
Nahikoa	4
Ongi	6
Oso Ongi	8
Bikain	10
Oso Gutxi	5
Gutxi	10
Nahikoa	15
Ongi	20
Oso Ongi	25
Bikain	30
24 puntu	

Gero, lortutako puntuaziotik idatzizko azterketaren nota ateratzen da, bai HE1ean bai HE2an:

PUNTUAK	IDATZIAREN KALIFIKAZIOA
0-10	Oso Gutxi
11-23	Gutxi
24-32	Nahikoa
33-40	Ongi
41-45	Oso Ongi
46-50	Bikain

Ahozko zatian kalifikazio hauetariko bat ipintzen zaio azterketariari: Oso Gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi, Bikain. **Nahikoa** lortu behar da gainditzeko.

Azterketaren nota orokorra

Azterketa gainditzeko, bai HE1ean eta bai HE2an, bi zatiak gainditu behar dira: Idatzizkoa eta Ahozkoa. Beraz, zati batean Gutxi edo Gutxiegi ateraz gero, azterketaren nota orokorra ere Nahikotik beherakoa izango da. Azterketaren nota orokorra ondoko mailen arabera ipintzen da, bai Idatzizko zatia bai Ahozkoa kontuan hartuta: Oso Gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi, Bikain. Zalantzako kasuetan ahozko zatia gehiago balioesten da.

Etengabeko ebaluazioa

Azterketa ez gainditu arren, 3. ataleko zenbait azterketarik HE1 lor dezake eta 5. moduluko zenbaitek HE2. Horrela, ahozkoa gainditu duen baina idatzizko zatian 22 edo 23 puntu dituen ikasleak dagokion Hizkuntz Eskakizuna lor dezake, baldin eta idazmenean etengabeko ebaluazio positiboa badu eta idazlanetako bat gainditu badu. Alderantzizkoa ere gerta daiteke kasu bereziren batean: idatzia gainditu baina ahozko zatian gaindituaren muga-mugan dagoen ikaslea bada, alegia, beti ere mintzameneko etengabeko ebaluazioa gainditua badu.

V.2. IDAZLANAK

V.2.1. SARRERA

Hizkuntz Eskakizunen ebaluaziorako irizpideen artean, besteak beste, honako hauek aipa daitezke idazmenari dagokionez:

HE1
<p><i>Era askotako hartzaileei (lankideei, gurasoei, ikasleei) egokitutako testu sinpleak idazteko gai izatea, komunikazio-asmo desberdinekin, zalantzak argitzeko kontsulta-materialak erabiliz. Ikasketariak bere irakaslanean dituen hizkuntz egoera arruntei egokitzen zaizkien testu sinpleak idazteko gauza den ala ez egiaztatuko da. Erregistro egokia aukeratu beharko du, horretarako, zuzentasunez, ortografia-arauak errespetatuz eta testuari barne-lotura eta koherentzia emanaz. Ikasketariak, halaber, laguntzarako materialak erabiltzen jakin beharko dute lexiko eta ortografiazko zalantzak argitu ahal izateko.</i></p>

HE2
<p><i>Irakaslea testu-mota desberdina (argibideak, aktak, txostenak, eskutitzak...) erredaktatzeko gai izango da, zuzentasunez eta hartzaileari ulergarri gertatzen zaion eran. Irizpide honen bidez ikasketariak ekoizten dituen testuetan hizkera idatziaren egokitasuna, koherentzia eta barne-loturazko baliabideen erabilera egokia eta zuzena, hiztegi-aberastasuna eta zehaztasuna eta ortografia-arauak errespetatzen dituen ala ez ebaluatuko da.</i></p>

Aztertzailerak azterketari baten idazlana baloratzean galdera nagusi bati erantzun behar dio: Noraino da ulergarria testua? Hau da, komunikazioa ezartzen da? Idazlearen asmoa argi harrapatzen da? Idazlanetan era ezberdinetako errakuntzak egoten baitira, testua ulertzeko oztopo bilakatzen direnak eta, batzuetan, komunikazioa zapuzteraino eraman dezaketenak, hala nola, ideia ilunak edo errepikatuak, informazioaren desordena, gramatika eta ortografia-akatsak, adierazpen teknikoegiak edo arruntegiak eta abar.

Lau mailatan egingo da testuaren balorazioa:

Azterketa-maila	Aztertzen den testuaren alderdia
1. <i>Koherentzia</i> →	— Informazioa edo edukia
2. <i>Kohesioa</i> →	— Testuaren artikulazioa edo esaldiez gaineko loturak
3. <i>Zuzentasuna</i> →	— Morfosintaxia, ortografia, lexikoaren zuzentasuna...
4. <i>Bestelakoak</i> →	— Egokitasuna, baliabide espresiboak...

Ondoren irizpide xeheagoak eskaintzen dira azterketa-maila bakoitzerako:

V.2.2. KOHERENTZIA (informazioaren aukeraketa eta egituraketa)

Atal honetan *idazlanaren adierazia* kalifikatuko da; hots, azterketariak eskaintzen duen informazioaren pertinentzia eta kalitatea, batetik, eta beronen ordena, zehaztasun eta zehetasun-maila, egituraketa... bestetik.

Esan gabe doa idatzitakoak proposatutako gaiarekin lotura izan behar duela; bestela, idazlanaren kalifikazioa «Gutxi»tik beherakoa izango da eta aztertzaileak zirkunstantzia horren berri emango du puntuazio-orrian ondoko hau idatziz: «*Ez du loturarik proposatutako gaiarekin*».

Informazioaren kantitatea eta kalitatea

• Kantitatea

Mezua ulertzeko behar diren datu guztiak, eta horiek bakarrik, ematen diren ala, alderantziz, informazio gehiegi edo gutxiegi ematen den begiratuko du aztertzaileak.

<u>Informazio gehiegi salatzen dutenak</u>	<u>Informazio gutxiegi salatzen dutenak</u>
<ul style="list-style-type: none"> — Errepikapenak — Erredundantziak — Datu irrelebanteak idazlanaren xederako — Soberazko informazioa (betelana) 	<ul style="list-style-type: none"> — Hutsarteak adierazian — Presuposizio edo datu inplizitu gehiegi, hartzaileak zertan jakin ez dauzkanak

• Kalitatea

Testuan eskaintzen den informazioa ona den ala eskasa den begiratuko du aztertzaileak. Oro har, honela deskriba litezke bi mutur hauek:

<u>Informazio ona</u>	<u>Informazio eskasa</u>
Ideia osabeteak, argiak, ulergarriak, zehazki formulatuak. Berehalaxe antzematen da esan nahi duena.	deia osagabeak, ilunak, ulergaitzak; enuntziatu generikoegiak. Irakurleak esanahia berregin behar du edo hipotesiak egin behar ditu testuan esplizituki adierazten ez dena ulertu ahal izateko.

Informazioaren egitura / Parrafoak

Ondoren deskribatzen diren bi muturretatik, testua zeinetara makurtzen den zehazten saiatuko da aztertzailea:

<u>Informazioaren egitura egokia</u>	<u>Informazioaren egitura eskasa</u>
Datuen aurkezpenak alde zuzenetik era-bakitako ordena baten araberrako anto-lamendua erakusten du (kronologikoa, espaziala, kausa-ondorioa, orokorretik xehera...). Informazio berria era pro-gresiboan aurkezten da. Parrafoek ideia oso bana garatzen dute, beste parrafoetako ideietatik ondo bereiziak; puntu eta aparte mugaturik ageri dira.	Datuen aurkezpena ordena gabea da edo gorabehera handiak erakusten ditu. Informazioa era anarkikoan aurkezten da. Parrafoek ez dute osotasun-batasunik erakusten. Ideien garapena askotan eten egiten da edo han-hemenka, parrafo desberdinen artean barreiatu edo errepikatuz ager daiteke. Puntu eta aparteak ausaz ezartzen direla dirudi.

V.2.3. KOHESIOA (testuaren artikulazioa)

Atal honetan aztertzaileak *edukia azaltzeko moldeari* begiratuko dio, testua osatzen duten elementuen arteko kohesio-mekanismoen edo formen ikuspegitik (loturak, artikulua, izenordeak, sinonimoak...)

Balorazioa emateko, edozein testutan erabili ohi diren kohesiorako mekanismoak aztertuko dira bi ikuspegitatik: **zuzentasuna**, lehena, eta ugaritasuna edo **aberastasuna**, bigarrena. Nolanahi ere, gramatika tradizionalari dagozkion puntuak morfosintaxia, etab. hurrengo puntuan, «Zuzentasuna» izeneko V.2.3. atalean, baloratuko dira.

Aztertzaileak bere arreta nora zuzendu behar duen erakusten du ondoko gida honek:

Erreferentziarako eta errepikapenerako mekanismoak

Kate idatzian agertzen diren elementuak aurretik edo atzetik esandakoarekin erlazionatzeko dauden mekanismoak ongi erabili dauden aztertuko da. Era berean, egoeraren testuingurua osatzen duten elementuak (pertsonek, lekuek eta denborek) eta beren erreferentziak ondo jositako dauden behatuko da:

• Ordezkapen lexikala

– **Sinonimoen bidez** (aurretik aipatutakoari eremu semantiko berdintsua duen beste hitz batez erreferentzia egitea).

Adb.: *Eskola, ikastetxe, ikastegi, zentro...*

– **Hiperonimoen bidez** (eremu semantiko zabalagoa duten hitzak edo hitz multzoak).

Adb.: *Ziklista > kirolari // Testu-liburu > baliabide didaktiko...*

– **Parafraasi bidez** (kontzeptu baten baliokide semantikoa den egitura sintaktikoa).

Adb.: *Gor > entzuten ez duen pertsona*

• Elipsia edo elementuren bat ezabatzea:

Adb.: «*Ane ez da etorri. (Ane) Gaixorik dago*».

• Determinatzaileak

Artikulua (-a, -ak, -ok); «bat» eta gainerako **zenbatzaileak**; **erakusleak** (*hau, hura...*) eta abar. Hauek guztiek era askotako erlazioak ezartzen dituzte hitzen eta erreferentzien artean: ezaguna/ezezaguna, igorlea/hartzailea, hurbil/urrun...

• Deiktikoak

Denbora, pertsona eta espazio-harremanak ezartzen dituzte. Egoera komunikatiboaren testuingurua zehazten dute:

– **Pertsona**: igorlea (*ni, nire, nirekin...*; *gu, gure...*). Hartzailea (*zu, zure, zurekin...*; *zuek, zuen...*)

– **Lekua**: *hemen, hor, han...*

– **Denbora**: *orain, lehen, gaur, orduan, beranduago...*

Adib.: «*Bihar bidaliko dizut atzo eskatu zenidana, hemen sobran baitaukat han behar duzuna*»

Loturak (lokailuak eta gainerako testu antolatzaileak)

Azpiatal honetan testuko esaldien artean era ezberdinetako erlazioak ezartzen dituzten lokailuak eta gainerako testu-antolatzaileak dira aztergai gorago aipatutako bi ikuspegietatik. Adibidez:

<ul style="list-style-type: none"> ● Emendiozkoak (zerbait gaineratzen dela adierazteko) <p><i>komak eta ere, ere bai, baita ere ere ez, ezta ere gainera orobat honez, horrez gain(era)</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Kausa-ondorioa (arrazoiak, zergatiak eta ondorioak ezartzeko) <p><i>beraz hortaz honen-horren-hainbestez ondorioz izan ere horregatik hau, hori dela eta</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Ordena <p><i>lehenik, bigarrenik... bat, bi... hasteko lehenengo eta behin ondoren gero azkenik amaitzeko</i></p>
<ul style="list-style-type: none"> ● Aurkaritzakoak (aurrekoarekiko kontra-kotasuna adierazteko) <p><i>baina ordea berriz aldiz dena den hala ere</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Konparazioa (aurretik esandako zerbaitekiko analogia nahiz diferentzia seinalatzeko) <p><i>era berean modu berean berdin bestalde bestera</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Adibide ematea (azalpen edo adibideak emateko) <p><i>adibidez esate baterako hau da hots hala nola bestela esanda</i></p>
<ul style="list-style-type: none"> ● Espazioa (esandakoa espazioaren koordenadetan kokatzeko) <p><i>goian behean gorago beherago hemen, hor, han</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Denbora (esandakoa denboraren koordenadetan kokatzeko) <p><i>aldi berean beranduago bien bitartean honez, horrez, harez gero artean ondoren</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Egiaztapena/laburpena (adierazitakoaren birformulazio edo laburpena gaineratzeko) <p><i>laburtuz hitz gutxitan bestela esanda izan ere</i></p>

V.2.4. ZUZENTASUNA (morfosintaxia, lexikoa eta ortografia)

Kontuan hartzekoak:

HE1
<i>Mezuaren ulergarritasunerako ondorio larririk ez duten akats ortografikoak eta morfosintaktikoak erakusten dituzten ekoizpenak dira.</i>

HE2
<i>Akats ortografikoak eta morfosintaktikoak oso urriak dira.</i>

lido honetatik, aztertzaileak ondoren zehazten direnak hartuko ditu kontuan:

Morfosintaxia eta lexikoa

Errakuntza bakan batzuk onargarriak badira ere, zuzentasun-akats larrien deskripzioan datozen zenbait puntutan sistematikoki huts egitea edo, sistematikoak izan gabe, puntu desberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, GUTXI edo OSO GUTXI kalifikazioa emango zaio azterketariari.

Era berean, lexikoaren zuzentasunari dagokionez, zenbait akats larritzat joko da, hala nola, euskal hitz arrunten ordeaz erdal hitzak erabiltzea edo hitzen bat ez dagokion esangurarekin erabiltzea. (Ikus *V.5 atala*: «AKATSAK, akats larrien deskripzioan "Hitzaren esparrua"»).

Ortografia (puntuazio-zeinuak barne)

Kontuan hartzekoak:

● Puntuazio-zeinuak

Puntuazio-zeinuen arauak ez dira beti normatiboak edo objektiboak. Dena den, badira perpausaren antolamendu sintaktikoarekin eta semantikoarekin zerikusia duten arau nagusi batzuk. Horien aplikazioari erreparatuko diogu, besteak beste, perpausak puntuen bidez ondo mugaturik dauden, elkarren segidan doazen maila bereko kideak komaz bereizirik ematen diren, hitz betegarriak (*bada, dena den, adibidez, beraz...*) koma tartean doazen, galdera eta harridura-zeinuak beren tokian dauden, etab.

● Ortografia

- Erabilera handiko hitzetan egiten diren akatsak **larriak** dira beti, baita euskal ortografiako puntu konfliktiboenetan egiten direnak ere (*z-s-x / tz-ts-tx / h-Ø / g-j* eta abar).
Adb.: «*au isan sen*» «*asken hezkutitzean ezaten senidan besala*».
- Aldiz, beste zenbait huts **txikitzat joko dira**: erabilera urriko hitzen ortografia («*h*»ak bereziki), hitz elkartuetan marratxoaren erabilerari dagozkionak, maileguetako *-u* eta *-o* bukaeretan sortzen diren zalantzak, eta antzekoak. Adibidez:

Erabilera urriko hitzetako H letraren inguruko zalantzak: mihura (landare bizkarroia) miura meatze (meategia) mehatze ahur (eskuaren barnealdea) aur haltz (zuhaitza) altz orbel (hosto ihartua) horbel auhen (atsekabea) ahuen hegi (mendiaren hegala) egi		● Hitz elkartuen idazkera aurrez aurre aurrez-aurre ozta-ozta ozta ozta zuzen-zuzenean zuzen zuzenean irakasmaila irakas-maila legegizon lege-gizon lan hitzarmena lan-hitzarmena esku-zabal eskuzabal ortografi arauak ortografi-arauak ortografia(-)arauak hizkuntz gaitasuna hizkuntz-gaitasuna hizkuntza(-)gaitasuna hezkuntza(-)sistema hezkuntz-sistema	
● -u/-o bukaera maileguetan dokumentu dokumento kreditu kreditu zentro zentru dialekto dialektu			
ONDO	TXARTO	ONDO	TXARTO

V.2.5. BESTELAKOAK

Zuzentasun, koherentzia eta abarretan ezaugarri berdintsuak dituzten idazlanen artean badira bestelako aldeak. Atal honetan baloratuko dira:

Baliabide espresibo orokorrak

- Hizkuntz sistema malgutasunez eta erraztasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten duen konplexutasun sintaktikoa.
- Lexikoaren jatorria (lexiko zaindua), aberastasuna eta zehaztasuna.
- Idazlearen ausardia, testuaren elaborazio-maila, orijinaltasuna.

Egokitasuna

Gaiaren testuingururako adierazpen kolokialegiak agertzen dira batzuetan. Besteetan, berriz errejistro formalegia erabili ohi da.

V.3. AHOZKO PROBA

V.3.1. SARRERA

Hizkuntz Eskakizunak egiaztatzeko ebaluazio-irizpideetan honako hau dator, besteak beste, mintzamenari dagokionez:

HE1	HE2
<p><i>Aldez aurretik zehaztu gabeko elkarrizketa informaletan parte hartu ahal izatea eta eskola-inguruaz edo irakaslanari buruzko gaien inguruko aurrez prestaturiko eztabaidetan esku hartu ahal izatea.</i></p> <p><i>Irizpide honen bidez ikasketariak bere ideiak argiro antolatzeko eta adierazteko duen gaitasuna neurtu nahi da. Era berean, hartzaileak ulertzen duen eta egoerari eta helburuari egokia zaien diskurtsoa produzitzeko duen gaitasuna. Ikasketariaren ahozko adierazpena zuzentasunaren aldetik ere neurtuko da.</i></p>	<p><i>Eskolaz kanpoko nahiz barneko gaiez era desberdinetako elkar-truke komunikatiboetan parte hartzeko gai izatea, gaiaren inguruko informazio egokia emanaz, bere ikuspuntu eta iritziak azalduz, arrazoituz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren aldaera desberdinei egokituz.</i></p> <p><i>Irizpide honen bidez bere ahozko ekoizpenaren zuzentasuna, zehaztasuna, jarotasuna eta ebakera neurtu nahi da. Orobat, gaiarekiko egokitasuna lexikoaren aldetik, bere ideiak era logiko eta egituratuan azaltzeko gaitasuna eta bere hizkera komunikazio-egoera desberdinei egokitzekoa.</i></p>

Azterketarien ahozko ekoizpena baloratzeko ondoko bost alderdi hauei erreparatuko die aztertzaileak:

Azterketa-maila	Aztertzen den testuaren alderdia
1. Osagai morfo-fonetikoa →	Ebakera, azentua eta doinuera
2. Zuzentasuna →	Arau morfosintaktikoen erabilera zuzena
3. Lexikoa →	Lexikoaren aberastasuna eta zehaztasuna
4. Jariakortasuna →	Abiadura, etenak eta mezuaren berrantolaketak
5. Bestelakoak →	Informazioa edo edukia. Baliabide espresiboak

Ondorengo orrialdeetan ahozko proba baloratzeko irizpide xeheak eskaintzen dira atalez atal:

V.3.2. OSAGAI MORFO-FONETIKOA

Atal honetarako erreferentziatzen euskara batuan diharduen jatorrizko hiztunaren ahoskera hartuko dugu, eta eredu zehatzagoa ematearren, irrati-telebistako profesionalena (1). Hortaz, zenbat eta gehiago hurreratu hauen ahoskerara, orduan eta kalifikazio hobea emango zaio azterketariari.

(1) Ahoskera bezalako gai koropilatsu eta gutxi aztertu honetan, nahiz eta neurri batean eztabaidagarria izan, eredu hau aukeratu da, batetik, erreferentzia bat, edozein dela ere, ezinbestekoa baita eta, bestetik, berau eginkizun honetarako egokia eta aproposa baita eta edozein aztertzailek ezagutzen baitu.

Ahozko proban, osagai morfo-fonetikoari dagokionez, ondoko azpiatal hauek dira bereziki zaindu eta baloratu behar direnak:

- Ebakera:
- Prosodia: azentua / intonazioa
- Hiatu problematikoak

Hona hemen azterketariaren ahoskera ebaluatzeko zenbait irizpide xehe:

Ebakera (fonemen burutzapena / hotsen elkarketa)

● Fonemen burutzapena

Azpiatal honetan euskal fonemen burutzapen egokia behatu behar da, ondoko hauek aintzat hartuz:

- <z> eta <s> ez bereiztea ez da akastzat hartuko.
- <tz> eta <ts> ez bereiztea ez da akastzat hartuko.
- <j> kontsonantearen ebakera ezberdinak onartzekoak dira: **[x]** **[y]** **[z]** [xan, yan, zan].
- <g> grafia daramaten erdal maileguetan **[x]** eta **[g]** ebakerak, biak, onestekoak dira.
Adb.: *biologia* > [bioloxia] eta [biologia]; *genesi* [xenesi] eta [genesi].
- <il>ren ordainez **[y]** ahoskatzea («yeismoa»), euskal fonetika zuzenaren kontra joan arren, ez da zigortuko.
Adb.: *neskatila* > [neskatila] burutzapen zuzena eta [neskatiya], akastzat hartuko ez dena.

«Bestelakoak» atalean sarituko da, ordea, <z> eta <s>, <tz> eta <ts> bereizten dituen azterketariaren ahoskera eta <il>ren burutzapen zuzena.

Ondoko hauek ebakerako **akats larritzat** hartuko dira:

- <tz> erdarazko <ch>ri dagokion hotsaz ahoskatzea.
Adb.: *aldatzen* > *aldachen*
- <z> <x> balitz bezala sistematikoki ahoskatzea.
Adb.: *zuen* > *xuen*; *zulatu* > *xulatu*; *zarata* > *xarata*...
- <ge, gi> daramaten euskal jatorriko hitzetan **[x]** ahoskatzea.
Adb.: *ogi, gezi* > *oji, jezi*...
- Erdarazko «cerro» edo «zona» moduko hitzetako hasierako **[θ]** soinua zenbait hitzetan ahoskatzea.
Adb.: *asimilacio, palatalizatu, zigarro*...
- Hitz bukaerako leherkari gorren burutzapen «arraroak»:
Adb.: *Nik* > *niz, nig, nit, ni-Ø*...
dut > *duz, duk, dud*...

Baita hitz artekoak ere:

Adb.: *erritmo* > *errizmo, errikmo*...

Azken puntu honetakoak azterketariaren artikulazio-organoen arazo somatiko gaindiezi-naren ondorio diren neurrian, azterketa batzordeburuari jakinaraziko zaio. (Nolanahi ere, berau ez da behin ere arrazoi bakarra izango azterketariaren bati «Gutxi» kalifikazioa emateko).

Hotsen elkarketa

Edo hitzak elkartzean sortzen diren aldaketa fonetikoak.

EZ eta BAIT partikulek aditz laguntzaileari erasteen eragiten dituztenak:

EZ+B→EZP: ezpadator, ezpalitz D→EZT: eztago, eztira L→EL: eluke, elitzateke Z→ETZ: etzuen, etzaizkio N→EN: enator, enoa G→EZK: ezkara, ezkinen	BAIT+D→BAIT: baitaude, baitira Z→BAITZ: baitzara, baitzaio L→BAIL: bailuke, bailiteke N→BAIN: bainaiz, bainago G→BAIK: baikara, baikintezke
---	---

Arau fonetiko hauek ez errespetatzea ez da akastzat hartuko atal honetan; hala ere, «Bestelakoak» atalean sarituko da errespetatzen dituen azterketariaren ahoskera.

Prosodia (azentua eta intonazioa)

Azpiatal honetan ezin da irizpide xeherik eman. Dena dela, aztertzaiak honako hauek begiratuko ditu besteak beste:

- Gorago ezarritako «hiztun-ereduaren» azentubidera eta intonazio modura hurreratzen den ala ez azterketaria.
- Erdal doinueraren eragina norainokoa den; hau da, hitzak erdarazko «llanak» bezala ahoskatzen dituen etab. Adb.: *mintzaména, koadernóa, baserría*.
- Funtsezko tonu-aldaketak adierazi nahi duenarekin ongi lotzen dituen: galderak, harri-durak eta esaldi sinpleak doinuera egokiz ematen dituen; ea tonua indartzen duen garrantzitsutzat jotzen dena nabarmentzeko (galdegaia, esaterako) edo interesguneak inguruko osagarrietatik bereizteko.

Hiatu problematikoak

Hitz bukaerako <-io> hiatuari -a artikulua erasteen sor daitezkeen ahoskera desegokiak: Adb.: *enumerazioa > enumerazioia, enumerazioa...* edo diptongo gisa ahoskatzea

Era honetako ebakera sistematikoak akats larritzat joko dira.

V.3.3. ZUZENTASUNA (morfosintaxia eta lexikoa)

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2
<i>Azterketariaren hutsegite morfosintaktikoek komunikazio-etenak eta gaitzulertuak sorraz ditzake, baina bere burua zuzentzeko adina ezagutzen du gramatika.</i>	<i>Zuzentasun handiz hitz egiten du. Noizik behin mezuaren ulermena eragozten ez duten hutsegite morfosintaktikoak izan ditzake</i>

Errakuntza bakanak onargarriak badira ere, zuzentasun-akats larrien deskripzioan datozen zenbait puntutan sistematikoki huts egitea edo, sistematikoki izan gabe ere, puntu desberdinetan behin eta berriz huts egiten badu, GUTXI edo OSO GUTXI kalifikazioa emango zaio azterketariari. Gauza bera esan dezakegu autozuzenketez: noizbehinkakoak izanez gero onargarriak dira, baina mezuaren ulermena eragozten badute, NAHIKOA ez emateko arrazoia izan daitezke. Dena dela, akatsak eta autozuzenketak ezin ditugu zorrotasun berberaz epaitu lehenengo eta bigarren Hizkuntz Eskakizunetan.

Era berean, lexikoaren zuzentasunari dagokionez, zenbait akats larritzat joko dira, hala nola, euskal hitz arrunten ordeaz erdal hitzak erabiltzea edo hitzen bat ez dagokion esangurarekin erabiltzea. (Ikus V.5. atala: «AKATSAK», akats larrien deskripzioan «Hitzaren esparrua»).

V.3.4. LEXIKOA (aberastasuna, zehaztasuna eta egokitasuna)

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2
<p><i>Eskola-gaiei buruzko lexiko aski garatua du, batzuetan asmatu ez arren; bestelako gaietan lexiko orokorraren jabe da, batzuetan hitz desegokiak, erdaratik hartutakoak edo parafraasiak erabili behar baditu ere.</i></p>	<p><i>Nabarmena da lexiko aberatsaren jabe dela. Bere arloko gaietan lexiko zabala eta zehatza erabiltzen du, baina nolabaiteko muga ere badu. Noiz behinkako gabezia-egoera horietan euskal itxurako ordainak erdaratik mailegatzeko, parafraseatzeko eta antzeko estrategiak garatuak ditu. Hala ere, inoiz asmatu ezina ere gerta liteke.</i></p>

Ondoko puntuotan zentratuko da aztertzailearen arreta:

Aberastasuna / zehaztasuna

Azterketariak gaia garatzeko berba-sorta nahikoa darabilen ala ez begiratuko da. Lexiko mugatua salatzen duten zenbait gertaera:

- Errepikapenak. Adb.: *erabaki bat hartzea erabaki zuen.*
- Hutsarte lexikoak: behar duen berba ez aurkitzea.
- Berba makuluen eta esangura zehazgabeko berben abusua.
Adb.: *zera, ba, baina, orduan, pixka bat, gauza, egin, tresna, kontu...*

Egokitasuna

- Adierazpen kolokialegiak edo formalegiak agertzen dira diharduen gai-testuingururako.
Adib.: *eskola bateko ikasleen gurasoei idatzitako komunikazioren batean «kaka burutik behera egiten die zuen semeak zaindariei»* (nahi duena egiten duela adierazteko), adierazpen kolokialegia litzateke; eta *«Gure ikasle estimatuen guraso zareten jaun-andre agurgarrioi begirunez zuzentzen natzaizue...»* bezalako adierazpenak, aldiz, formalegiak.

V.3.5. JARIAKORTASUNA (abiadura, etenak eta berrantolaketak)

Kontuan hartzekoak:

HE1	HE2
<i>Hizkeran gutxienezko jariootasuna izango du, inoiz osatu gabeko esaldiak eta etenak gertatu arren.</i>	<i>Hizkera jario eta uniforme, ez derrigor jatorrizko euskaldunak adinakoa, baina bai honek onargarritzat joko lukeena.</i>

Jariakortasunaren hiru alderdi hauek begiratuko dira:

Abiadura

Hiztun guztiek ez dute hitz-jario eta etorri bera: batzuek beste batzuek baino motelxeago hitz egiten dute. Gainera, hiztun berberak bizkorrago edo mantsoago hitz egin dezake, egoera zein den. Zaila da, beraz, neurri-patroi bat ezartzea (2). Dena den, azterketariari jatorrizko euskaldunak onargarri joko lukeen gutxienezko abiadura eskatuko zaio. Aztertzailerak bere senaz, gutxi gora-beherako estimazioez eta azterketariaren ihardunak sortarazten dion inpresioaz (erosotasuna, nekea..) baliatuko da azpiatal hau baloratzeko.

Etenaldiak

Kate mintzatuan barrena eten batzuk derrigorrezkoak dira (arnasa hartzeko, unitateak bereizteko, eta abar egiten direnak); beste batzuk, aldiz, aukerakoak (efektu erretorikoak sortzekoak, adibidez). Badira beste batzuk, hizkuntz sistemaren kontrol mugatuaren ondorio, komunikazioa astun bihurtzen dutenak eta mezuaren harrera galaraz dezaketenak. Eten hauek gaitzestekoak dira. Adibidez:

- Batera eman beharreko hitzen artean etenak egitea:
 - Aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean: *Lehenagoan ikusi ... zintugun*
 - Sintagma banaezinetan: *bere ... etxean; zazpigarren ... pisua; beste ... orri ... bat*
- Galdegaiaren eta aditzaren artean egitea: *Etxera ez, automobila hartzera ... nindoan*
- Konparatiboetan etena lekuz aldatzea: *Peru Anton ... baino trebeagoa da*
- Hitzaren barruan etenak egitea: *zu...regana; ekarri zen...ituzten*

«Oihartzunak» eta berrantolaketak

Hiztun trebeenek ere, tarteka bederen, huts egiten dute oharkabeen. Nekeak, urduritasunak, interes ezak eta abarrek eragindako jarduerazko errakuntza horiez ohartu bezain laster, zuzentzen saiatzen da hiztuna, atzera joaz esandakoa berrantolatzeko. Beste zenbaitetan

(2) HE2ko mailaren pareko hizkuntza arrotzen (ingelesa, kasu) ikasleei jatorrizko hiztunek darabilten abiadura motelena eskatzen zaie gutxienez. Euskarari dagokionez, jatorrizko euskalduna 95-140 hitz/minutuko abiaduran mintzatzen omen da (HABE, Mintzamena lantzen. 1985). Gutxienezko abiadura hori eskatuko zaie, bada, HE2ko azterketariei. Azterketa honetan ez dira, hala ere, minutuak eta hitzak kontatuko. Datu hau erreferentzia gisa har daiteke aztertzailerak bateratze saioetan.

esaldia modu batean hasi eta erdian dagoela, bukatu gabeko esaldiari «norabide» berria ematen dio. Ahozko hizkuntzaren fenomeno hauek onargarriak dira, bakanka gertatzen direnean.

Autozuzenketa neurturik egiten denean onargarria bada, neurritz kanpo egiten denean, hizkuntz sistemaren kontrolik eza salatzen du eta komunikazioa galarazi egiten du.

V.3.6. BESTELAKOAK

Koherentzia (gaiarekiko atxikimendua, informazioaren kalitatea, testuaren egituraketa)

Ataltxo honetan hauexek dira aztergai: batetik, azterketariak eskaintzen duen informazioaren pertinentzia eta kalitatea; bestetik, beronen ordena, zehaztasun eta xehetasun-maila, egituraketa... Testuaren aspektu hau baloratzeko, ikus gorago, idazlanaren ebaluazioari dagozkion irizpideetan, koherentziaz esandakoa, beti ere kontuan harturik ahozko hizkeraren ezaugarriak direla eta, ondorioz, askoz ere malguago aplikatu behar direla han zehaztutakoak.

Baliabide espresibo orokorrak

- Hizkuntz sistema malgutasunez eta erraztasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten duen konplexutasun sintaktikoa eta elaborazio-maila.
- Solaskidearen arreta erakartzeko eta interesa pizteko, eraginkorragoa izateko, azalpen osatuago eta zehatzagoak burutzeko eta abarretarako baliabide erretorikoak, orijinaltasuna eta ausardia.

Hizkuntzaren sistema fonologikoaren kontrola

Euskal fonema «zailen» burutzapen zuzena sarituko da atal honetan.

V.4. PROBAK BALORATZEKO IRIZPIDEEN LABURPENA

IDAZLANA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. KOHERENTZIA (informazioaren aukeraketa eta egituraketa)

- **Informazioa.** Mezua ulertu ahal izateko behar diren datuak ematen ditu? Informazio larregi edo gutxiegi ematen du? Kontraesanik dago enuntziatuen artean?
- **Egitura.** Informazioaren ordenamendua logikoa da? Ba al dago errepikapenik, informazio hutsarterik edo etenik?
- **Parrafoak.** Parrafo bakoitzak ideia desberdin bat garatzen du?

2. KOHESIOA (testuaren artikulazioa)

- **Loturak.** Testu zatien arteko erlazio logikoak (kausa-ondorioa, ordena, emendioa, aurkaritza...) adierazten dituzten lokailuak eta testu antolatzaileak ondo erabilia daude?
- **Ordezkapenerako mekanismoak (izenordainak, erakusleak, zenbait adberbio...).** Ba al dago errakuntzarik izenordainen eta erakusleen erabileran? Elementu bat berriz aipatzeko baliabide desberdinak erabiltzen ditu ala beti berbera?

3. ZUZENTASUNA

Zenbat akats morfosintaktiko, lexiko eta ortografiko larri dago?

- **Morfosintaxia / lexikoa.** Testua ulertzea galarazten duten akatsak asko dira? Hizkuntzaren arau morfosintaktiko nagusiren batean sistematikoki huts egiten du? Hitz guztiak berezko esanahiaz erabiltzen ditu beti?
- **Puntuazioa / ortografia.** Puntuazio akats larriak (punterik eza, justifikaziorik gabeko komak sujetoaren ondoren, komarik gabeko aposizioak...) dago? Galdera eta harridura zeinuak ondo erabiltzen ditu? Hitz arruntetan akats ortografiko larriak ageri da?
- **Hitzen ordena.** Esaldia osatzen duten hitzak ordena logiko eta ulergarrian ezarrita daude?

4. BESTELAKOAK

- **Baliabide espresibo orokorrak.** Konplexutasun sintaktikoa; aberastasun eta zehaztasun lexikoa; idazlearen ausardia; elaborazio maila; orijinaltasuna...
- **Erregistroa.** Ba al dago gaiarentzat baldres edo arruntegi / teknikoegi edo konplexuegi gertatzen den adierazpenik? Idazlearen tonua familiarregia edo zuzenregia / distantedegia da jasotzailea zein den kontuan harturik?
- **Idazlanaren presentazioa.** Marjinak eta lerroak zuzenak dira? Kaligrafia ulergarria da? Tilulua, atalak, parrafoak... ondo bereizirik daude?

AHOZKO PROBA BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. OSAGAI MORFO-FONETIKOA

- **Ebakera.** Fonemak ongi burutzen ditu? Erdal maileguetarako lege fonetikoak errespetatzen ditu? Ahoskera itxiegia erakusten du?
- **Azentua / Doinuera.** Nabarmena al da ama-hizkuntzaren eragina hitzen azentuan eta esaldien intonazioan? Esanahia eta doinuera bat datoz?
- **Hiato problematikoak.** -io bukaerari artikulua erasteen zuzen ahoskatzen du?

2. ZUZENTASUNA

- **Morfosintaxia.** Arau morfosintaktiko nagusiak (ergatiboa, aditzaren komunztadura, laguntzaile mota, juntagailu eta menderagailu nagusiak...) ondo menderatzen ditu?
- **Lexikoa.** Hitzak dagokien esanahiaz erabiltzen ditu?

3. LEXIKOA

- **Aberastasuna / Zehaztasuna.** Hitz desberdin ugari erabiltzen ditu ala hitz multzo txiki batera mugatzen da? Esanahi zabalegiko berba zehazgabeak eta berba makuluak asko dira? Hitzak asmatu ezina gertatu zaio?
- **Egokitasuna.** Gaiarentzat kolokialegi edo formalegi gertatzen diren adierazpenak erabiltzen ditu?

4. JARIAKORTASUNA

- **Abiadura.** Astiro mintzatzen den jatorrizko hiztun baten pareko abiaduraz hitz egiten du? Diharduen abiaduragatik nekoso egiten da haria segitzea?
- **Etenaldiak.** Zalantza eta erraztasun eza salatzen duten etenak egiten ditu? Isluneak betetzeko «eee...», «mmm...» bezalako betegarriak aspergarri gertatzen dira?
- **Berrantolaketak.** Neurritz kanpoko berrantolaketak egiten ditu?

5. BESTELAKOAK

- **Koherentzia.** Behar diren datuak era ordenatuan eskaini ditu, informazio larregi edo gutxiegarri eman gabe? Ba al dago errepikapenik edo kontraesanik esandakoen artean?
- **Baliabide espresibo orokorrak.** Konplexutasun sintaktikoa, baliabide erretorikoak, orijinaltasuna...
- **Bestelakoak.** Fonema «zailen» burutzapen zuzena.

V.5. AKATSAK

- **Akatsen balioespena**

Azterketariak idazlanetan nahiz ahozko probetan egiten dituzten akatsak era askotakoak izaten dira: batzuk munta handikoak edo «larriak» eta beste batzuk ez hain larriak edo garrantzi gutxiagokoak. Ez dira, beraz, denak berdin baloratuko. Akats baten garrantzia hiru irizpide nagusi hauen arabera baloratuko da:

1.-Noraino oztopatzen duen mezuaren ulergarritasuna. Larriagoak dira gaitzulertuak sortzen eta mezuaren harrera galarazten dutenak ulergarritasunean ondoriorik eragiten ez dutenak baino. Azken hauek garrantzi gutxiagokoak dira, irizpide soil honi dagokionez.

2.-Zein den akatsak ukitzen duen hizkuntz sistemaren egitura. Irizpide honen arabera, larriak dira oinarrizko arau morfosintaktiko edo ortografikoetan eta maiztasun handiko hitzetan egiten direnak. Maiztasun urriko hitzetan edo egitura sintaktiko konplexuago edo bitxiagoetan egiten direnak ez dira hain garrantzitsuak.

3.-Noraino den sistematikoa. Akats batzuk «*hutsak*» dira —iharduerazko akatsak alegia—, urduritasunak, estuasunak edo arreta faltak eragindakoak; beste batzuk, berriz, «*errakuntzak*» edo egitura morfosintaktikoren baten kontrolik ezak eragindakoak. Lehenengoak ez dira sistematikoak izaten eta, askotan, azterketariak berak zuzentzen ditu idazlana berri-rakurtzean (edo esandakoaren berrantolaketak eginez, hizketan ari denean). Hauek ez dute, beraz, aparteko garrantzirik, neurriz gertatzen badira. Bigarrenak, ordea, sistematikoak izaten dira eta garrantzitsuagoak, arau morfosintaktiko, ortografiko edo lexiko-item jakin batzuen kontrol osagabea erakusten baitute.

- **Akatsak hizkuntz trebetasunen eta Hizkuntz Eskakizunen arabera**

Oro har, akatsen garrantziari nahiz kopuruari dagokienez, eta Hizkuntz Eskakizun beraren barnean, idazlanetan zorrotzago jokatuko da eta ahozko azalpenetan malguago.

Era berean, Hizkuntz Eskakizunei dagokienez, HE2an HE1ean baino zorrotzago jokatuko da.

Ondoko tauletan idazmenean behinik behin larritzat jotzen diren hainbat akats ematen dira, adibide gisa:

IDAZLANETAKO AKATS LARRIAK

Hitzaren esparrua

akatsak	adibideak
<ul style="list-style-type: none"> • Katetoria gramatikalen aldateta. • Erdaratiko maileguen erabilera eskasa: -a artikulua ahaztea -s pluralgilea erastea -femeninoaren -a ez ezabatzea. • Hitzari ez dagokion esangura atxikitzea. • Euskal hitz arrunten orde z erdal hitzak erabiltzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Barrez/negarrez egin (barre/negar egin)</i> <i>Bi oihuka entzun ziren</i> <i>Arrantzale nekatuta bat (arrantzale nekatu bat)</i> <i>Hobeto da horrela (hobe)</i> <i>Zu baino nekatutako nago (nekatuago)</i> • <i>Pegamento bota behar dut ondo itsasteko</i> <i>Azken zentso egin dutenean...</i> <i>Botos lortzeko kanpaina</i> <i>Etiketas erabiliz</i> <i>Gimnasia moderna</i> <i>Erreakzio kimika</i> • <i>Doktoreen zenbakia (kopurua)</i> <i>Nire aitak (gurasoak)</i> <i>Zazpi seme dauzka (seme-alaba)</i> • <i>Non daude tijerak?</i> <i>Utzi mesa gainean</i>

Aditza

akatsak	adibideak
<ul style="list-style-type: none"> • Aditzaren komunztadura ez errespetatzea • Laguntzaile mota gaizki hautatzea • Aditzaren aspektua, tempusa (hipotetikoa barne) edota modua gaizki erabiltzea • Ordena gaizki. • Nominalizazioak gaizki egitea • Partizipioari lotzen zaion -ta atzizkiari pluralaren marka erastea 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Gizonak ikusi dut</i> <i>Liburu batzuk erosi zuen</i> • <i>Kalean ikusi dit</i> <i>Zer ipintzen da liburuan?</i> <i>Kezkatzen zait</i> <i>Hau gaizki funtzionatzen da</i> • <i>Atzo gelan egoten ginen (egon ginen)</i> <i>Garaiz heldu nahi nuen, baina ezin dut (ezin izan dut)</i> <i>Lehen esan nuen bezala (esan dudan)</i> <i>Orain pozik egingo nuen (egingo nuke)</i> <i>Esango banioke (esango banio)</i> <i>Sartu zarete barrura! (zaitzte)</i> <i>Goaz etxera!</i> • <i>Ez nahi du etorri</i> <i>Joango behar du</i> • <i>Ez daki patata tortila egitea</i> <i>Programatzera ikasi du</i> <i>Jotzera hasi da</i> <i>Mendira joan gustatzen zaio</i> <i>Etxera joatea agindu zion</i> • <i>Nekatutak gaude</i>

Deklinabidea, sintaxia...

akatsak	adibideak
<ul style="list-style-type: none"> ● Determinatzailearen inguruko akatsak ● Zenbait kasuren erabilera okerra -(r)ik, -(r)entzat, ... ● Izen propioak ● Bizidun / bizigabeak ● Mugagabea ● -a itsatsia ● «ere» partikularen erabilera okerrak ● -ela partikula erlatibotzat ematea ● zehar galderak gaizki egitea ● Galdera zuzenak zehar galderaren -n atzizkiarekin ematea ● Hitzen ordena desegokia ● Subordinazio-atzizkiak gaizki eranstea ● Posposizioen inguruko erabilera okerrak ● <i>Nola / nolako; Bezala / bezalako</i> ● <i>Beste</i> ● <i>Elkar</i> ● <i>Ber-</i> morfemaren inguruko akatsak ● Kopuruak / fetxak 	<ul style="list-style-type: none"> ● <i>Mutila hori</i> <i>Mutilak hauek</i> ● <i>Ez daude gaitarik</i> <i>Hori nirentzat, gurentzat da</i> ● <i>Nekanearekin etorri da</i> ● <i>Txakurrera hurbildu</i> ● <i>Istripurik gerta ez daitezen</i> <i>Zenbait liburuak</i> <i>Edozein mutilari</i> ● <i>Tontakeri bat</i> <i>lau pertson</i> ● <i>Ere bai esan zuen</i> <i>Ekarri zuen ere... (eta antzekoak)</i> <i>Bilbon egon naiz eta Donostian ere</i> <i>Ez dut ezer ere ez egin</i> ● <i>Ezagutzen dut gizon bat</i> <i>Parisen bizi dela</i> ● <i>Ez dakit zer ordu da</i> <i>Noiz itzuliko naizela galdetu dit</i> ● <i>Nola esaten den hau?</i> <i>Aizu, zer den hau?</i> ● <i>Daukat etxe bat mendian</i> <i>Lokalizatzeko baserria da gehiegi</i> <i>Beste herriko gizon bat (herriko beste gizon bat)</i> <i>Ekonomiko arazoak</i> ● <i>Dezakela / dezakeela</i> <i>Nuenela / nuela</i> ● <i>Biok artean</i> <i>Ikasturtearen zehar</i> <i>Epearen kanpo aurkeztu du lana</i> ● <i>Nola da zure etxea?</i> <i>Hori nirea bezala da</i> <i>Jon zu bezala da</i> ● <i>Goazen beste lekura (leku batera)</i> ● <i>Elkar egon ziren</i> ● <i>Patxi berak kontatu du</i> <i>Hauteslea berari jausi zaio boto-papera</i> <i>Etxe bertatik irten zen</i> ● <i>Urtarrilak 13an</i> <i>1900: mila bederatziehun (eta bedera- tziehun)</i> <i>erdi litro</i>

V.6. IDAZLANETARAKO ETA AHOZKO PROBETARAKO BAREMOAK

Aurreko orrialdeetan zehatz-mehatz ematen diren neurpideak ondoren datozen lau taulen bidez aplikatu behar dira; horretarako:

Idazlanak

Testu idatziak ebaluatzerakoan arlo desberdinak hartuko dira kontuan: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna, gaiarekiko atxikimendua, bestelakoak. Arlo desberdin horiek era integratu baten bidez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren mailaz mailako deskribapenak benetako ekoizpenen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Deskribatutako mailak hauexek dira: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi**. Horrez gain, deialdi itxietan, idazlanen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

Ahozko proba

Proba hau kalifikatzerakoan arlo desberdinak hartuko dira kontuan: osagai morfo-fonetikoa, zuzentasuna, lexikoa, hitz jarioa, gaiarekiko atxikimendua, bestelakoak. Arlo desberdin horiek era integratu baten bidez ematen dira aplikatu behar den baremoan. Baremo horretan proposatzen diren deskribapenak benetako ekoizpenen hurbilpentzat hartu behar dira.

Nota globala kalkulatzeko honela jokatuko da: Baremoan datozen deskribapenetatik hurbilena aurkitu beharko da eta kalifikazioa horren arabera eman. Deskribatutako mailak hauexek dira: **Oso gutxi, Gutxi, Nahikoa, Ongi, Oso Ongi**. Horrez gain, deialdi itxietan, ahozko ekoizpenen bat erabat apartekoa bada, **Bikain** kalifikazioa ere eman ahal izango zaio.

Dena dela, ezinbestekoa dugu kontuan hartzea «Nahikoa» dela baremo hauen abiapuntua. Ekoizpen bati «—idatziari zein ahozkoari— Gutxi» kalifikazioa emateko ez ditu zertan bete «Gutxi» sailean agertzen diren ezaugarri guztiak; aski izan daiteke atal batean edo bestean huts egitea.

Deialdi irekian Gai/Ez Gai moduan kalifikatuko da Ahozko proba.

IDAZLANAK HE1

Deskribapena	Nota
<ul style="list-style-type: none"> ● Testu oso ona. Sinplea dela esan badaiteke ere, oso gutxitan sortarazten dio tentsioa irakurleari. ● Informazio, gertaera eta argudio errelebanteak aurkezten ditu era erakargarrian; ideia nagusi nabarmenak eta ongi garatuak. Mezuaren haria erraz segitzen uzten duen testu egituraketa logikoa. ● Aditz-forma eta gramatika-egitura konplexuagoetan ere oso akats gutxi antzematen dira. Baliabideetan oraindik mugaturik badago ere, hizkuntz sistema zuzentasunez erabiltzeko trebetasuna erakusten du. Ortografi akats gutxi. ● Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa menderatzen ditu. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu. 	OSO ONGI
<ul style="list-style-type: none"> ● Testu ona. Bere sinpletasunean, ongi eta erraz ulertzen da eta gutxitan sortarazten dio tentsioa irakurleari. ● Informazio, gertaera eta argudio ongi aurkeztuak; ideia nagusi aski argiak, gehienetan ongi garatuak. Mezuaren haria esfortzu larregirik gabe segitzen uzten duen testu egituraketa egokia. ● Aditz forma eta gramatika egitura nagusiak ongi erabiltzeaz gain testua borobiltzeko forma aberasgarriak erabiltzen ditu. Gramatika eta ortografi akatsen bat izan dezakeen arren, horiek ez dira oztopo testua ulertzeko. ● Lexiko orokorra eta eskola-giroko berarizkoa ongi ezagutzen ditu, noizean behin mugak eta hitz desegokiak antzeman badaitezke ere. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu. 	ONGI
<ul style="list-style-type: none"> ● Testu ona. Apartekoa eta oso-osoa izan gabe, oro har ongi ulertzen da, irakurlearengan tentsio handirik sortu gabe. ● Informazio nahikoa, ongi garatua, esanguratsua eta era egokian egituratua aurkezten du. Hala ere, ideiarene baten garrantzia edo borobiltasuna dudazkoa gerta daiteke edo daturen bat ondo lotua ez egotea. ● Arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusiak ondo erabiltzen ditu. Forma konplexuagoetan eta erabilera urriagoko hitzetan akatsak ager daitezke, baina ez dute gehienetan testuaren ulergarritasuna baldintzatzen. ● Lexiko orokorra eta eskola-giroko berarizkoa ezagutzen ditu, batzutan mugak eta hitz desegokiak antzeman badaitezke ere. 	NAHIKOA
<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurleari tentsioa sortarazten dion testua; honek askotan arazoak ditu idatzitakoa ulertzeko edota sinpleegia iritzi diezaioke. ● Informazioa, gertaerak eta argudioak aurkezten dituen arren, euren garapena edo ideien arteko lotura desegokia izan daiteke, argitasuna edota errelebantzia falta daieke edo testuaren egituraketa eskasa izan daiteke. ● Arau morfosintaktiko eta ortografiko nagusi gehienak kontrolatzen dituen arren, horietan ere behin baino gehiagotan huts egiten du. Hizkuntz baliabideen eskasiak nahiz gramatika eta ortografi akatsen maiztasunak gaitzulertuak edota egonezina sortaraz dezakete irakurlearengan. ● Lexiko mugatua eta zehazgabea. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakada nabarmenak ager daitezke. 	GUTXI
<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurleari tentsio handia sortarazten dion testua; honek etengabe arazoak ditu idatzitakoa ulertzeko edota guztiz sinplea iritzi diezaioke. ● Informazio elementu batzuk eta zenbait gertaera eta argudio aurkeztu arren, ez da gai ideia osabeteak eta argiak adierazteko edo testuaren egituraketa eskasarengatik ezin da mezuaren haria segitu. ● Gramatika-egitura nagusi gutxiren kontrola erakusten du. Adierazpen ohikoenetan ere akats morfosintaktiko edota ortografikoak ager daitezke. ● Lexiko mugatua eta zehazgabea. Berba okerrak edota erdarakada nabarmenak ager daitezke. Muga nabarmena antzematen da gaia gutxieneko zehaztasunez garatzeko. 	OSO GUTXI

AHOZKO PROBA HE1

Deskribapena		Nota
<ul style="list-style-type: none"> ● Gai da ahozko zeregin arrunt gehienak erraztasunez burutzeko; solaskideak gutxitan somatzen ditu zailtasunak azterketariak bere ideiak adierazten dituenean. ● Aditz forma eta gramatika egitura konplexuagoetan ere oso akats gutxi antzematen dira. Baliabideetan oraindik mugaturik badago ere, hizkuntz sistema zuzentasunez erabiltzeko trebetasuna erakusten du. ● Lexiko orokorra eta eskolaren esparrukoa menderatzen du. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu. ● Jatorrizko hitzunaren abiadurara heldu ez arren, hizkera jariakor eta uniforme erakusten du. 		OSO ONGI
<ul style="list-style-type: none"> ● Gai da ohiko komunikazio-egoeretan ahozko zereginak, oro har, erraztasunez eta erosotasunez burutzeko, nahiz eta solaskideak batzutan zailtasunak somatu. ● Aditz forma eta gramatika egitura nagusiak ongi erabiltzeaz gain bere ideiak borobiltzeko forma aberasgarriak erabiltzen ditu. ● Lexiko orokorra eta eskola-giroko berarizkoa ongi ezagutzen ditu, noizean behin mugak eta hitz desegokiak antzeman badaitezke ere. Maiztasun gutxiagoko hitzak ere erabiltzen ditu. ● Hizkera oraindik motela, baina nahiko erregularra, solaskidearengan oso gutxitan egonezina sortzen duena. 		ONGI
<ul style="list-style-type: none"> ● Gai da elkarrizketan parte hartzeko, gertaerak eta esperientzia pertsonalak komunikatzeko eta bere iritziak adierazteko, nahiz eta batzutan solaskideak zailtasun handiak somatu. Hala ere, gehienetan, komunikazioa aurrera ateratzen du. ● Arau morfosintaktiko nagusiak, oro har, zuzentasunez erabiltzen ditu, eta batzutan forma aberasgarriak ere bai. Inoiz akats larriak eta txikiak antzeman badaitezke ere, akatsok ez dute mezuaeren harrera eragozten. ● Gai orokorrei eta eskola-girokoei buruzko lexiko aski garatua, batzutan mugak eta hitz desegokiak (txarto hautatutakoak, erderakadak, etab.) antzeman arren. ● Hizkera askotan motela eta ez uniforme erakuts dezake, baina ez solaskidea aspertarazterainokoa. 	Gehienetan ondo ahozkatzen du. Bali-teke zenbait fonema gaizki burutzea eta azentuan eta intonazioan ama-hizkuntzaren eragin handia izatea.	NAHIKOA
<ul style="list-style-type: none"> ● Zailtasun handiak elkarrizketan parte hartzeko. Nahiz eta gertaerak, esperientzia pertsonalak eta bere iritziak nola edo hala adierazteko gauza izan, darabiltzan hizkuntz baliabideen eskasiak askotan zapuzten du komunikazioa eta ez dio biderik ematen azalpen edo arrazonamendu luzexkak egiteko. ● Egitura nagusi batzuk ondo menderatzen baditu ere, beste asko ez ditu ondo kontrolatzen edo akats larri etengabeek gaitzulertuak edo ernegua eragiten dituzte maiz solaskidearengan. ● Lexiko mugatua eta zehazgabea. Gaizki hautatutako berbak edo erdarakada nabarmenak ager daitezke. ● Hizkera oso motela eta irregularra; etenaldi eta berantolaketa ugari. 	Baliteke mezuaeren ulerkuntzarako arazo diren zenbait fonemaren burutzapen «bitxiak» agertzea edo gaztelaniaren mendeko doinuera erakustea.	GUTXI
<ul style="list-style-type: none"> ● Zailtasun ia gaindiezina elkarrizketan aritzeko eta bere iritziak edota jarrera pertsonala adierazteko, nahiz eta esaldi solte batzuk ongi burutu. Baliteke gertaeraren bat edo bere esperientzia pertsonalarekin zerikusia duten zenbait kontu jakinetan nolabaiteko trebetasuna erakustea. ● Oso hizkuntza sinplea erabiltzen du edo akatsak oso ugari eta sistematikoak dira. ● Oinarri-oinarrizko lexikora mugatzen da. Berba okerrak, mailegu bitxiak edota erdarakadak maiz erabil ditzake. Muga ia gaindiezina erakusten du esan nahi duena gutxieneko zehaztasunez adierazteko. ● Hizkera oso motela, zatikatua eta oso irregularra, komunikazioa erabat zailtzen duena. 		OSO GUTXI

IDAZLANA HE2

Deskribapena	Nota
<ul style="list-style-type: none"> ● Testu borobila, ia inolako zailtasunik gabe irakurtzen dena. ● Informazio, gertaera eta argudio errelebanteak aurkezten ditu era erakargarrian; ideia nagusi nabarmenak eta ongi garatuak. Mezuaren haria erraz segitzea uzten duen testu egituraketa logikoa. ● Ez dago lexiko, ortografia, puntuazio eta gramatika akats larrik; idazlanak hizkuntz sistema ia erabateko zuzentasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten du. 	OSO ONGI
<ul style="list-style-type: none"> ● Testu oso ona eta landua, irakurlearengan oso gutxitan zailtasunak eragiten dituena. ● Informazio, gertaera eta argudio ongi aurkeztuak; ideia nagusi aski argiak, gehienetan ongi garatuak. Mezuaren haria esfortzurik gabe segitzea uzten duen testu egituraketa egokia. ● Irakurleak akats txikiak eta —oso noizbehinka— larriren bat soma ditzake; nolabaiteko limitazioak soma daitezke hizkuntz sistema zuzentasunez erabiltzeko. 	ONGI
<ul style="list-style-type: none"> ● Testu ona eta landua, zenbaitetan irakurlearengan nolabaiteko tentsioa sortu arren. ● Informazioa, gertaerak eta argudioak egokiro aurkeztu eta garatzen ditu, nahiz eta irakurleari zenbaitetan kosta dakioken ideia nagusiak euren euskarri direnetatik bereiztea; zenbaitetan gerta liteke ideiak arrazoiturik ez egotea. Testu egituraketa nahikoa mezuaren haria segitzeko. ● Irakurleak lexiko, ortografia eta gramatikaren aldetik akatsak eta hizkuntz sistemaren erabilera nolabait mugatua somatu arren, honek guztiak ez du gehienetan testuaren ulergarritasuna oztopatzen. 	NAHIKOA
<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurleari tentsioa sortarazten dion testua; elaborazio maila bat erakusten badu ere, irakurleak batzutan arazoak ditu idatzitakoa ulertzeko. ● Informazioa, gertaerak eta argudioak aurkezten ditu, baina askotan argitasun eta euskarri eskasarekin; ideien arteko lotura desegokia eta iluna izan daiteke edota testu egituraketa eskasa; zailtasunak mezuaren haria segitzeko. ● Lexikoaren, ortografiaren eta gramatikaren erabilera desegokia, irakurlearengan zenbaitetan interferentziak eta gaitzulertuak sortarazten dituena. 	GUTXI
<ul style="list-style-type: none"> ● Irakurleari tentsio handia sortarazten dion testua; nahiz eta testua oso sinplea ez izan, irakurleak askotan arazoak ditu idatzitakoa ulertzeko. ● Informazio elementu batzuk eta zenbait gertaera eta argudio aurkeztu arren, ez da gai ideia osabeteak eta argiak adierazteko. Gerta liteke testu egituraketa argirik ez egotea eta mezua segitu ezin izatea. ● Irakurleak berehalaxe antzematen du lexiko, ortografia eta gramatika akats larri ugari, askotan ernegua sortarazten diotenak. 	OSO GUTXI

AHOZKO PROBA HE2

Deskribapena	Nota
<ul style="list-style-type: none"> ● Ez du inolako eragozpenik azalpen konplexuak egiteko edo bere ideiak xehetasunez adierazteko. ● Euskara batuan diharduen jatorrizko hiztunarenarekin pareka daitekeen ahoskera. ● Oso akats gutxi eta gehienak iharduerazkoak eta ez-sistematikoak. ● Lexiko zabala eta zehatza bai bere lanbideari dagozkion gaietan bai gai orokorrei dagozkienetan. ● Mintzagai orokorretan nahiz bere lanbideari dagozkienetan jatorrizko hiztunarenera asko hurbiltzen den hizkera jariakor eta uniformea. 	OSO ONGI
<ul style="list-style-type: none"> ● Bere lanbideari dagozkion hozko zeregin guztiak erraztasunez egiten ditu. ● Euskara batuan diharduen jatorrizko hiztunarenera asko hurreratzen den ahoskera, ama-hizkuntzaren eragina soma daitekeen arren. ● Noizean behingo akatsak; egitura gutxi batzuren kontrol osagabea, baina ez gaitzulertu larriak eragiteko bestekoak. ● Bere lanbideko nahiz ohiko gizarte harremanetako gaietan lexiko zabala eta zehatza darabil aparteko arazorik gabe, nahiz eta noizbait zailtasunak somatu eta egiten duen aukera egokiena ez izan ● Hizkera jariakor eta uniformea, nahiz eta nabaria izan jatorrizko hiztuna ez dena; inoiz edo behin zalantzati ager daiteke; hitzak bilatu beharrak eta esanaren birformulazioak etenak eta desorekak sor ditzakete. 	ONGI
<ul style="list-style-type: none"> ● Irakaslanak oro har eskatzen dituen ahozko zereginak burutzeko gai da, baita ideia konplexu samarrak adierazteko ere. ● Ahoskera gehienetan onargarria jatorrizko hiztunarentzat; fonemak ondo burutzen ditu; azentuan eta intonazioan ama-hizkuntzaren eragina izan dezake. ● Zuzentasunez hitz egiten du, noizik behin mezuaren ulerkuntza oro har eragozten ez duten akats morfosintaktiko larriren bat izan dezakeen arren. ● Lexiko orokor aberatsa; bere lanbideari dagozkion gaietan lexiko zabala eta zehatza erakusten du, nolabaiteko muga soma badaiteke ere; noizbehinka asmatu ezina gerta liteke edo dagokion euskal hitzaren orde zerdararik mailegatutakoaz baliatu beharra. ● Hizkera jariakor eta uniformea, ez jatorrizko hiztunarena adinakoa, baina honek onargarritzat joko lukeena. 	NAHIKOA
<ul style="list-style-type: none"> ● Ideia konplexuak adierazteko zailtasun nabariak ditu. ● Zenbaitetan ahoskera ez onargarria, nahiz eta entzuleak esaten zaiona gehienetan erraz ulertu ahal izan; gerta liteke zenbait fonema gaizki burutzea; azentuan eta intonazioan ama-hizkuntzaren eragin nabaria erakuts dezake. ● Arau morfosintaktiko nagusi gehienak kontrolatzen baditu ere, akats txiki eta larriek tentsioa eta gaitzulertuak sortarazten dituzte solaskidearengan. ● Lexiko mugatua; zailtasunak hitzak aukeratzeko; gaia aurrera ateratzeko besteko hitz errepertorioa erakusten badu ere, muga nabariak somatzen dira bereziki alde zurretik prestatu gabeko topikoez aritzen denean. ● Hizkera askotan motela eta irregularra entzulearengan egonezina sortaraz dezakeena; zalantzati agertzen da eta noiz behinka komunikazioa eten ere egin daiteke. 	GUTXI
<ul style="list-style-type: none"> ● Ahozko azalpen traketsa edo nekagarria solaskidearentzat. ● Baliteke mezuaren ulerkuntzarako arazo diren zenbait fonemaren burutzapen «bixiak» agertzea edo gaztelaniaren mendeko azentua eta intonazioa erakustea. ● Oinarrizko aditz forma eta gramatika egituretan ere akatsak antzematen dira. Arau morfosintaktiko askoren kontrol osagabea. Komunikazioa maiz galarazten dezaketen akats txikiak eta larriak. ● Lexiko murrizta: oinarrizko hiztegira mugatzen da; alor honetan erakusten duen ga-beziak ez dio biderik ematen bere lanbideari dagozkion gaietan gutxieneko zehaztasun, sakontasun eta zabaltasunez euskaraz aritzeko. ● Hizkera irregularra eta motelegia, esaldi laburretan izan ezik; oso zalantzati. 	OSO GUTXI

VI. ERANTZUNAK

VI.1. DEIALDI IREKIKO ERANTZUNAK

Bigarren deialdi itxiko erantzunak ere hauexek izan ziren, deialdi irekikoak berberak alegia. Deialdi itxian, halere, ez zen Aukera anitzeko Galdekizunik izan.

HE1: AAG

1	B	11	D	21	B	31	C	41	B	51	C	61	A
2	C	12	B	22	B	32	B	42	D	52	A	62	C
3	D	13	C	23	A	33	D	43	A	53	D	63	D
4	A	14	A	24	A	34	A	44	B	54	B	64	B
5	B	15	B	25	B	35	D	45	D	55	C	65	C
6	D	16	B	26	D	36	A	46	C	56	B	66	A
7	B	17	C	27	B	37	B	47	A	57	D	67	C
8	D	18	D	28	D	38	A	48	B	58	B	68	B
9	A	19	A	29	C	39	C	49	D	59	A	69	B
10	C	20	D	30	A	40	D	50	A	60	D	70	D

HE1: Ahozkoaren ulermena (Eguraldia)

Erantzun zuzenena, beti ere, letra **lodiz** dagoena da; dena den, parentesi artekoak ere zuzentzat joko dira. Bestelako hitzik ez da onartuko. Bestalde, erantzun zuzen hauetan ager litezkeen akats ortografikoak ez dira puntuazioa jaisteko erabiliko.

- 1 **lainoak / tarte**
- 2 **oskarbiak** (oskarbia; urdinak; urdina) /**hodeiak**
- 3 **oskarbi / ostarteak**
- 4 **garbi** (garbia) / **eur**
- 5 **antzerakoa** (antzekoa)
- 6 **iparraldera**
- 7 **ipar-ekialdekoa**
- 8 **behelaino**
- 9 **lainoxka** (laino; lainotxo)
- 10 **itzala**

HE1: Irakurmena (Ainhoa Arteta)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
E	L	O	P	Q	S	C	N	M	T
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
B	R	D	G	J	K	A	F	I	H

HE2: AAG

1	B	11	C	21	D	31	D	41	C	51	C	61	D
2	C	12	C	22	C	32	B	42	B	52	B	62	A
3	A	13	D	23	C	33	D	43	B	53	B	63	B
4	C	14	B	24	B	34	A	44	A	54	A	64	C
5	A	15	B	25	A	35	A	45	D	55	D	65	D
6	D	16	A	26	D	36	D	46	A	56	A	66	B
7	B	17	D	27	C	37	C	47	A	57	A	67	A
8	D	18	B	28	A	38	D	48	C	58	C	68	D
9	D	19	D	29	D	39	A	49	A	59	A	69	C
10	A	20	B	30	C	40	B	50	B	60	B	70	C

HE2: Irakurmena (Landart)

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
B	C	A	D	B	A	C	D	C	B
11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
A	B	B	A	D	C	A	C	D	A

VI.2. LEHEN DEIALDI ITXIKO ERANTZUNAK

Hemen lehen deialdi itxiko erantzunak biltzen dira. Bigarren deialdi itxiko erantzunak deialdi irekikoak berberak izan ziren, AAGkoak kenduta.

HE1: Ahozkoaren ulermena (M. Karmen Garmendia)

1	2	3	4	5
C	C	A	B	C
6	7	8	9	10
D	D	B	C	A

HE1: Irakurmena (Literatur lehiaketa)

1	2	3	4	5
B	A	B	D	B

HE2: Irakurmena (Rabin)

A eredua

1	2	3	4	5
C	C	B	C	A
6	7	8	9	10
B	D	C	A	D

VII. ERASKINAK

VII.1. ESTADÍSTIKA-LABURPENA

DEIALDI IREKIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	1.951	1.848
Atarikoa gaintu	1.631	1.024
Idatzia gaintu	1.196	540
Ahozkoa gaintu	1.017	410
Gaintitze-tasa	52,1	22,2

1. DEIALDI ITXIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	253	252
Gaintituak	164	135
Gaintitze-tasa	64,8	53,6

2. DEIALDI ITXIA

	HE1	HE2
Aurkeztuak	412	411
Gaintituak	260	248
Gaintitze-tasa	63,1	60,3

VII.2. ARAUZKO XEDAPENAK

VII.2.1. LEHEN ZEHAZTAPENA

47/1993 DEKRETUA, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena. (apirilaren 2ko EHAA)
(.....)

II. ATALBURUA.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

2. *atala.*-Lanpostua lortzeko eta bertako lana betetzeko beharrezko diren euskararen ezagutza mailek finkatutakoa da irakaspostuetako hizkuntza eskakizuna.

Hizkuntza eskakizuna finkatzeko, izaera orokorreko hizkuntza trebetasunak sartuko dira (ahozko eta idatzizkoaren ulermena edo adierazpena), baita 4. eta 5. ataletan adierazitako helburuak beteko direla bermatzeko izan eta zuzenean irakaskuntzarekin lotuta daudenak ere.

3. *atala.*-Irakaspostuei ezarriko zaizkien hizkuntza eskakizunak bi dira: 1. hizkuntza eskakizuna eta 2. hizkuntza eskakizuna.

1. hizkuntza eskakizuna ez euskarazko ez euskaraz irakaskuntzak ematen ez dituzten irakasleek betetako irakaspostuei ezarriko zaie, baina euskara zerbitzu hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da. 2. hizkuntza eskakizuna euskarazko edo euskaraz irakaskuntzak ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei ezarriko zaie, eta euskara zerbitzu hizkuntza eta irakaskuntza hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko da.

4. *atala.*-1. HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

- ikasleekin bakarka edo taldean irakaskuntza iharduerarekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: besteak beste, jokabide, motibazio, ikasketetan lortutako emaitza, beste ikasle batzuekin eta irakasleekin izandako arazo eta ikasketak egiteko familiako giroaz aritzeko;
- ikasleekin bakarka edo taldean beren adineko arazoekin eta interes bereziekin zerikusia duten gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: familiako arazo, adiskidetasuna, nortasuna, zein bere hel-dutasunerako bidean izan dezaketen beste edozein arazoz aritzeko;
- gurasoekin, irakasleekin eta hezkuntza administrazioko langileekin, hizkuntza maila egokian nahiz eta teknikoa ez izan, honako gaietaz euskaraz hitz egiteko gai: eskolaren funtzionamendu, helburu, pedagogiako jokabide, ikasturteko egitarau, ikastaroari eta zehazki ikasleari buruzko iritzi, eskolako orduko eta orduz kanpoko iharduera, ebaluaketarako irizpide, lortutako emaitza eta, orokorrean, pedagogia lanari eta ikastetxearen funtzionamenduari buruzko gaietaz aritzeko.

5. *atala.*-2. HE-ko eskakizunarekin, besteak beste, dena delako irakaslea honako honetarako izango da gai:

- 1. HE-rako zehaztutakoa euskaraz egiteko;
- bere ikasgaiko edo alorreko irakaskuntzak ikasleei, bai bakarka, zein taldeka, euskaraz emateko, dela azalpen majistrala eginez, zein gelan eztabaida sortuaz eta jasotako galderei erantzunez;
- eskolak prestatzeko edo ikasleek irakurtzeko probetxugarriak izan daitezkeen euskarazko argitalpenak, programa ofizialak, testu liburuak, kontsulta liburuak, artikuluak eta abar ulertzeko;
- irakasgaiarekin zerikusia izanik eskolak prestatzeko probetxugarria izan daitekeen ahozko materiala euskaraz ulertzeko (besteak beste, pelikulak, bideoak, zintak, irrati programak);

- programa orokorrak eta bakoitzaren alorreko programazioa euskaraz idazteko;
- eskolak emateko fitxak, apunteak, materialak, ariketak, ebaluazioko ariketak eta abar euskaraz idazteko;
- ariketen zuzenketa, txostenen idazketa eta ikasleen lana baliostatzeko beste edozein iharduera euskaraz egiteko.

(.....)

VII.2.2. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

AGINDUA, 1994ko urtarrilaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Irakaslegoaren Euskalduntze Alfabetatzerako IRALE Programaren ebaluazio-bidea arautu eta irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko probak edukinez eta formaz zehazten dituena. (urtarrilaren 26ko EHAA)
(.....)

I ERASKINA

1.-HEI EGIAZTATZEKO EBALUZIO-IRIZPIDEAK

Hizkuntz eskakizunak zedarritzeko irizpideak finkatzen dituen 47/1993 Dekretuak ezartzen dituen hizkuntz gaitasunen arabera HEI egiaztatu ahal izateko honako ebaluazio-irizpide hauek erabiliko dira:

A) Gaitasuna frogatu behar deneko hizkuntz egoerei dagokienez.

Irakasle-ikasketariak HEI egiaztatuko badu, eskola-inguruan, hau da, eskolan ohizko diren egoeretan hizkuntz gaitasuna baduela erakutsi behar du, konkretuki ikasleekiko elkarrizketan (banaka nahiz taldean), gurasoekin, gainerako irakasleekin eta Hezkuntza Administrazioako pertsonalarekin dituen harremanetan.

B) Komunikazio-gaiei dagokienez

B.1.-Ikasleekiko elkarrizketan

- Irakaslanarekin zerikusirik duten gaietan: ikasleen jokaera, motibazioa, eskola-lorpena, beste ikasle eta irakasleekin izan ditzaketen bestelako arazoak eta etxean duten ikas-giroa, besteak beste.
- Ikasleek, zein bere adinean, dituzten arazo eta interesekin loturik dauden gaietan: familiako, lagunekiko nahiz nortasun-arazoetan; era berean heltze-prozesuan izan dezaketen beste edozein alderdi esanguratsu.

B.2.-Beste irakasleekin, ikasleen gurasoekin eta Hezkuntza Administrazioako pertsonalarekin dituen harremanetan.

- Eskolarekin loturik dauden gaietan: pedagogiazko helburu eta orientabideak, ikasturtearen programazioa, ikasturteari buruzko iritzia orohar eta ikasle bakoitzari buruzkoa, eskola barneko nahiz eskolaz kanpoko ekintzak, neurketa-irizpideak, lortutako emaitzak eta, orohar, pedagogialanarekin eta ikastegiaren funtzionamenduetarekin loturik dauden gaietan.

C) Hizkuntz trebetasunei dagokienez.

1.-Kanal anitzetik igorritako ahozko testuetako informazio nagusia jasotzea.

Irizpide honen bidez ahozko mezuetan dauden oinarritzko ideiak ulertu diren ala ez egiaztatu nahi da. Komeni da, horretarako, eskola-inguruan ohizkoak diren hizkuntz egoeretan erabili diren testuak erabiltzea.

2.-Eskola-inguruan ohizkoak izanik eta orohar irakaslanarekin loturik dauden gaiei buruzko testu idatzietako informazio nagusia beste inoren laguntzarik gabe antzematea.

Irizpide honekin ikasketariak zailtasun-maila eta luzera desberdinetako testu idatzietatik informazioa jasotzeko duen gaitasuna neurtu nahi da, beti ere luze-zabalean erabilgarri diren testuetan: aktak, zirkularrak, jakinarazpenak, eskutitzak, buletinak, ikasmaterialak...

3.-Testu idatzi nahiz ahozkotan daudekeen hizkuntz elementu ezezagunen eta informazio inplizituen esanahia deduzitzea.

Irizpide hau aurreko beste biek in loturik dago. Ikasketariak testu idatzi eta ahozkoak zenbateraino ulertzeko gai den neurtu nahi da. Arreta berezia hartuko da ikasketaria testuan ezagutzen ez dituen hizkuntz elementuen esanahia bereganatu eta egiaztatzekeo gai den ala ez neurtzerakoan, horretarako testuingurua, bere kultur jakituria, prozedura analitiko eta etimologikoak edo bestelako baliabideak erabiliz, adibidez benetan ulertu den egiaztatzekeo testuan atzera egitea edo kontsulta-materiala erabiltzea. Era berean testuinguruagatik elementu inplizituak ateratzeko edo testuaren hitzez hitzkeo esanahiaz haratago ulertzeko duen gaitasuna (igorleak izan dezakeen zeharbidezkeo intentzioa, ironia...).

4.-Aldez aurretik zehaztu gabeko elkarrizketa informaletan parte hartu ahal izatea eta eskola-inguruaz edo irakaslanari buruzkeo gaien inguruko aurrez prestatuturiko eztabaidetan esku hartu ahal izatea.

Irizpide honen bidez ikasketariak dituen ideiak argiro antolatu eta adieraztekeo eta hartzaileak ulertzen duen eta egoera eta helburuari egokia zaion diskurtsoa produzitzekeo duen gaitasuna neurtu nahi da. Era berean, ikasketarien ahozkeo adierazpena zuzentasunaren aldetik neurtuko da, eta mintzajardunean etenik gerta ez dadin lagunduko zaio: galderak eginez, argudioak emanaz, txandaka mintzatuz...

5.-Era askotako hartzaileei (lankide, guraso, ikasleak) egokitutako testu sinpleak idaztekeo gai izatea, komunikazio-intentzio desberdinak dituztelarik, zalantzak argitzekeo kontsulta-materialak erabiliz.

Irizpide honekin bilatzen da ikasketariak bere irakaslanean dituen hizkuntza egoera arruntei egokitzen zaizkien testu sinpleak idaztekeo gauza den ala ez egiaztatzea. Erregistro egokia aukeratu beharko du, horretarako, zuzentasunez, ortografia-arauak errespetatuz eta testuari barne-lotura eta koherentzia emanaz. Ikasketariak, halaber, laguntzarako materialak erabiltzen jakin beharko dute lexiko eta ortografiatzeko zalantzak argitu ahal izatekeo.

6.-Eskuratutako hizkuntz ezagupenak erabiltzekeo gai izatea, ikasprozesuan autonomia indartzeko autozuzenketa-prozedura zenbaitz baliatuz.

Irizpide honen bitartez neurtu nahi dena zera da: ikasketariak berak edo bere lankideek egin ditzaketan akatsak, ahoz nahiz idatziz, identifikatzeko, eta, zenbaitetan, zuzentzekeo gai den ala ez.

2.-HE2 EGIAZTATZEKEO EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Hizkuntz eskakizunak zedarritzekeo irizpideak finkatzen dituen 47/1993 Dekretuak ezartzen dituen hizkuntz gaitasunen arabera HE2 egiaztatu ahal izatekeo honako ebaluazio-irizpide hauek erabiliko dira:

A) Gaitasuna frogatu behar deneko hizkuntz egoerei dagokienez.

Irakasle-ikasketariak HE2 egiaztatzekeo badu, eskola-inguruan, hau da, eskolan ohizkeo diren egoeretan hizkuntz gaitasuna baduela erakutsi beharko du, konkretuki ikasleekikeo elkarrizketan (banaka nahiz taldean) eta gurasoekin, gainerako irakasleekin eta Hezkuntz Administraziokeo pertsonalarekin dituen harremanetan. Orobat, eta oroz gain, bere gaia edo arloa euskaraz irakasteko gai dela erakutsi beharko du.

B) Komunikazio-gaiei dagokienez.

Irakaslanarekin ikasleek dituzten arazo eta intereseekin eta eskolako jardunarekin loturik dauden gaiez gainera Eraskin honetako HE1-i buruzkeo atalean ezarri den bezalaxe ikasketariak HE2 egiaztatutako badu bere jakintzagai edo arloa azaltzekeo trebetasuna erakutsi beharko du.

C) Hizkuntz trebetasunei dagokienez.

1.-Ahozko edozein testutako ideia nagusiak eta berariazko informazioa jaso eta horren edukia ahoz nahiz idatziz adieraztea.

Irizpide honen bidez zera neurtu nahi da: erabilpen-esparru desberdinetan (giza-harremanak, komunikabideak, Administrazioarekiko harremanak, ikasgelan erabiltzen den hizkuntza...) benetan erabiltzen diren testuen nondik norakoaz eta bigarren mailako informazioaz jabetu diren ala ez; testuak beti ere aktualitatea, kultura, irakaslan orohar hartuta edo irakaslearen jakintza gaiarekin zerikusia duten gai bereziagoak izango dute ardatz; irakaslea, honenbestez, informazio hori kritikoki analisatu, berrantolatu eta bere ekoizpenetan erabiltzeko gai izango da, ahoz nahiz idatziz.

2.-Ikasleak darabilen hizkera estandarretik asko urruntzen ez den euskalki batean ekoiztutako ahozko testuetako nagusiki zein gai azaltzen diren ulertzea.

Ikaslearen ikastetxea kokaturik dagoen eskualdeko euskalkian ahoz ekoiztutako testuak orohar ulertzen dituen ala ez neurtu nahi da. Hizkera estandarretik oso urrun ez dauden benetako edo egokitutako testuetan adierazitako ideia nagusiak eskuratu dituen egiaztatu nahi da. Testu horiek eskola-ingurutik atereak izango dira.

3.-Era askotako testu idatzietako informazio nagusiaz eta xehetasunez jabetzea, informazio inplizitua eratorriz. Kalitate eskaseko testuak direnean, akatsak, koherentzia-erak, e.a. antzematea, bai edukiari bai alderdi formalagoei (ortografia, zuzentasuna...) dagokienez, testu horiei buruzko bere iritzia azalduz.

Irizpide honen bidez ikasketariak bere irakas-jardunarekin loturik dauden testu idatziak ulertzeko bereganatu duen trebezia neurtuko da, testuan ezezagun gerta dakizkiokeen elementu esplizituak testuinguruagatik zuzen interpretatzeko eta hitzez hitzeko esanahiaz haratago ulertzeko duen gaitasuna kontuan hartuz. Era berean, bere ikasleek kalitate eskasaz ekoiztutako testuak kritikoki irakurtzeko eta behar izanez gero testuok hobetzeko orientabideak (akatsen zuzenketa, testuaren egokitzapena, e.a.) emateko gaitasuna zenbateraino bereganatu duen begiratu da.

4.-Bere jakintza-gaiarekin loturik dagoen gai bati buruzko azalpena egitea. Argi eta era ordenatuan mintzatuz, aurrez prestatutako eskema edo gidoia garatuz, informazioa eta argudioak era logikoan aurkeztuz, egiten zaizkien galderi erantzunez, irakasmaila bakoitzak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza...) eta irakaskuntza-arlo bakoitzak dituzten ezaugarri eta berezko formak kontuan hartuz.

Irizpide honekin ikasketariak aurrez erabakitako eskema edo gidoia erabiliz bere jakintzagaiari buruzko gai baten inguruan dituen ideiak antolatu eta era logikoan azaltzeko eskuratutako gaitasuna zenbaterainokoa den neurtu nahi da, horretarako hizkera jariatza eta zuzena erabiliko duelarik. Orain esandakoaz gain bere hizkeraren zehaztasuna, ebakera eta egiten zaizkion galderi ihardestean emandako erantzunak egokiak diren ala ez ebaluatuko da, bere irakasmailak eta beren arloan dituzten berezko ezaugarriei atxekiz.

5.-Elkar-eraginezko elkarrizketetan parte hartzea, eskola barneko munduaz nahiz eskolaz kanpoko diharduten gaien inguruko informazio egokia emanez, bere ikuspuntu eta iritzia azalduz, arrazoituz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren aldaera desberdinei egokituz.

Irizpide honen bidez eskola-giroko informazioa (adibidez errendimendua, ikaslearen jarrera, ikastetxearen funtzionamendua, programen egokitzapena...), eskolaz kanpoko (eguneroko bizimodua, aktualitatea) eta komunikazio-egoera desberdinei buruzkoa (elkarrizketa arrunta, klaustro edo bestelako bilerak) azaltzeko gai den ala ez neurtu nahi da. Bere ahozko ekoizpenaren zuzentasuna, zehaztasuna, jariatza eta ebakera; gaiarekiko atxekimendua hiztegiaren aldetik; era logiko eta egituratuaz dituen iritzia azaldu eta bere hizkera komunikazio-egoera desberdinei egokitzeko gaitasuna neurtuko da (solaskide-kopurua, komunikazio-intentzioa eta testuinguruko beste elementu batzuk).

6.-Zuzentasunez eta hartzaileari ulergarri gertatzen zaion eran testu-mota desberdinak (argibideak, oharrak, aktak, txostenak, eskutitzak...) eta bere arlo edo jakintza-gaiarekin loturik dauden ikasmaterialak (fitxak, apunteak, eskemak, neurketa-probak...) erredaktatzea, iturri anitzeko informazioa integratuz eta testuari barne-lotura ematen dioten baliakideak (lokailuak, aditz tempusak, e.a.) erabiliz.

Iturri idatzi nahiz ahozkoetatik informazioa jaso, sintetizatu eta era egokian idatziz aurkezteko gauza den neurtu nahi da. Ikasketariak, hortaz, bere jakintza-gaiarekin loturik dauden euskarazko materiala ezagutu eta erabili beharko du. Ekoizten dituen testuetan hizkera idatziaren egokitasuna, koherentzia eta barne-loturazko baliabideen erabilera egokia eta zuzentasuna, hiztegi-aberastasuna eta zehaztasuna eta ortografia-arauak errespetatzen dituen ala ez ebaluatuko da.

7.-Ikasketariak eskuratutako ezagupen linguistiko, soziolinguistiko, estrategiko eta diskurtsiboak erabiltzea, antozuzenketazko prozedurak zorrotz erabiliz.

Elementu linguistiko eta diskurtsiboak (menpeko perpausak, nominalizazioak, bere arloari dagokion lexiko berezia, lokailuak) ezagutu eta erabiltzean eskuratutako heldutasun-maila neurtu nahi da. Kalitate oneko hizkuntz ekoizpena burutu eta behar izanez gero hobetu, eta berak edo bere lankideren batek, ahoz nahiz idatziz, egin ditzakeen akatsak identifikatu eta zorrotzasunez eta kritikoki zuzentzeko gai izango da.

(.....)

VII.2.3. DEIALDI ITXIEN KALIFIKAZIO SISTEMA

AGINDUA, 1995eko apirilaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, IRALE programan liberatuta dauden irakasleen hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko azterketen kalifikazio-sistema arautzen duena. (maiatzaren 11ko EHAA)

(.....)

1. atala.-HE1eko azterketaren zati eta ariketa desberdinak era honetan puntuatuko dira:

1. Idatzizko zatia:

- Ahozkoaren ulermena: Otik 5 puntura
- Irakurriaren ulermena: Otik 5 puntura
- Idazlan laburra: *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio
Gutxi-ri 2 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 4 puntu dagozkio
Ongi-ri 6 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 8 puntu dagozkio
Bikain-i 10 puntu dagozkio
- Idazlan luzea: *Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkio
Gutxi-ri 10 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 15 puntu dagozkio
Ongi-ri 20 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 25 puntu dagozkio
Bikain-i 30 puntu dagozkio

Idatzizko zatiaren kalifikazio orokorra kalkulatzeko ariketen puntuazioak batuko dira eta ondoko taula aplikatuko da:

Otik 10era: *Oso Gutxi*
11tik 23ra: *Gutxi*
24tik 32ra: *Nahikoa*
33tik 40ra: *Ongi*
41etik 45era: *Oso Ongi*
46tik 50era: *Bikain*

2. Ahozko zatia:

Oso Gutxi
Gutxi
Nahikoa
Ongi
Oso Ongi
Bikain

2. atala.-HE2ko azterketaren zati eta ariketa desberdinak era honetan puntuatuko dira:

1. Idatzizko zatia:

- Irakurriaren Ulermena: Otik 10 puntura
- Idazlan Laburra: *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio
Gutxi-ri 2 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 4 puntu dagozkio
Ongi-ri 6 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 8 puntu dagozkio
Bikain-i 10 puntu dagozkio

— Idazlan Luzea: *Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkio
Gutxi-ri 10 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 15 puntu dagozkio
Ongi-ri 20 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 25 puntu dagozkio
Bikain-i 30 puntu dagozkio

Idatzizko zatiaren kalifikazio orokorra kalkulatzeko ariketen puntuazioak batuko dira eta ondoko taula aplikatuko da:

0tik 10era: *Oso Gutxi*
11tik 23ra: *Gutxi*
24tik 32ra: *Nahikoa*
33tik 40ra: *Ongi*
41etik 45era: *Oso Ongi*
46tik 50era: *Bikain*

2. Ahozko zatia:

Oso Gutxi
Gutxi
Nahikoa
Ongi
Oso Ongi
Bikain

3. *atala*.-Bai HE1 eta bai HE2ko azterketa gainditzeko bi zatiak gainditu beharko dira, Idatzizkoa eta Ahozkoa. Azterketaren nota orokorra ondoko mailen arabera ipiniko da:

Oso Gutxi
Gutxi
Nahikoa
Ongi
Oso Ongi
Bikain

Bai zati idatzian, bai ahozkoan oinarrituta ipini behar den nota orokor hori erabakitzerakoan zalantzarik balego, ahozko zatia gehiago balioetsiko da.

4. *atala*.-Azterketa-batzordeak IRALE programan liberatuta dauden ikasketarien txanda-amaierako balioespenak izango ditu eskueran. Balioespen horiek kasu hauetan aldatu ahal izango dute azterketaren nota orokorra:

a) Idatzian 22 edo 23 puntu lortu dituzten azterketariak, beti ere bi Idazlanetariko bat bederen eta Ahozko zatia gaindituta badituzte.

b) Ahozko azterketan «gutxi» kalifikazioa izanik ere, gaindituaren muga-mugan dagoen kasu bereziren bat, beti ere Idatzizko zatia gaindituta badu.

Kasu hauetan txanda-amaierako balioespena hartuko da kontuan, hain zuzen ere, HE1eko azterketan 3. moduluko balioespena eta HE2ko azterketan 5. moduluko.

5. *atala*.-Laugarren atalean zehazten diren azterketari horien kasuan honela jokatuko da: azterketariak suspenditu duen azterketa-zatiari dagokion balioespena begiratu da. Azterketariak Idatzizko zatia suspenditu badu, idazmenari dagokion balioespenari begiratu zaio. Ahozko zatia suspenditu badu, aldiz, mintzamenari dagokion balioespena hartuko da kontuan. Arlo horretako txanda-amaierako balioespena positiboa denean, azken hau nagusituko da azken balioespen globala ematerakoan. Beraztertze-lan hau azterketa-batzordeak edo, batzordeburuak hala nahi izanez gero, haren barnean horretarako moldatzen duen batzorde txikiago batek, burutuko du.

6. *atala*.-Azterketarien azken ebaluazioa azterketa-batzordeak emango du «gai» edo «ez gai» moduan eta Agindu honetan esandakoaren arabera.

7. *atala*.-Hala nahi duen azterketariari ahozko zatia grabatuko zaio. Horrek, besteak beste, errek-lamazio-kasuetan kalifikazioa zuzen jarri dela ziurtatu ahal izatea ahalbideratuko du

8. *atala*.-Azterketaren maila arauz finkaturik dagoenera egokitzen dela ziurtatzeko, notak jakinarazi aurretik azterketen ehuneko bat bigarren aldiz kalifikatuko da. Ahalmena ematen zaio Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari atal honetan ezarritakoa garatzeko neurriak har ditzan.

9. *atala*.-Kalifikazio-sistema hau aplikatzeko behar diren balorazio-irizpideak lantzea Epaimahai Bateragileari dagokio.
(.....)

VII.2.4. DEIALDI IREKIAREN KALIFIKAZIO SISTEMA

ERABAKIA, 1996ko apirilaren 24koa, Hezkuntza sailburuordearena, 1996. urtean HE1 eta HE2 hizkuntz eskakizunak egiaztatzeke azterketa irekietarako deia egiten duena.(maiatzaren 10eko EHAA)
(.....)

7. atala.-1994ko urtarrilaren 10eko Aginduaren 11. atalak ezartzen duenaren arabera, hizkuntz eskakizunak egiaztatzeke azterketek bi zati (bata idatzizkoa eta bestea ahozkoa) eta hiru proba izango dituzte, hirurak aparteokoak eta kanporatzeko izaerarekin.
(.....)

10. atala.-Lehen hizkuntz eskakizuneko (HE1) zati eta probak eta beren puntuazioa honela ezarrita daude:

a) Idatzizko zatia

1. proba: aukera anitzeko proba bat izango da. Honen bitartez irakurriaren ulermenarekin eta hizkuntzaren erabilera egoki eta zuzenarekin zerikusia duten alderdiak baloratuko dira. Probak 70 galdera izango ditu eta gairatzeko gutxienez 45 asmatu beharko dira. Proba honen gehienezko iraupena ordubeteko izango da.

2. proba: ahozkoaren ulermen, irakurriaren ulermen eta idazmen-ariketak izango ditu. Proba honen ariketak honela kalifikatuko dira:

- Ahozkoaren ulermena: Otik 5 puntura
- Irakurriaren ulermena: Otik 5 puntura
- Idazlan laburra: *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio
Gutxi-ri 2 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 4 puntu dagozkio
Ongi-ri 6 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 8 puntu dagozkio
- Idazlan luzea: *Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkio
Gutxi-ri 10 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 15 puntu dagozkio
Ongi-ri 20 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 25 puntu dagozkio

Proba «gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da. «Gai» kalifikazioa eskuratzeko gutxienez 24 puntu lortu behar dira. Azterketa honen gehienezko iraupena 3 ordukoa izango da.

b) Ahozko zatia (3. proba): Ahozko trebetasunak azterketabatzordeko gutxienez bi kideren aurrean erakutsiko dira. «Gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da

11. atala.-Bigarren hizkuntz eskakizuneko (HE2) zati eta probak eta beren puntuazioa honela ezarrita daude:

a) Idatzizko zatia

1. proba: aukera anitzeko proba bat izango da. Honen bitartez irakurriaren ulermenarekin eta hizkuntzaren erabilera egoki eta zuzenarekin zerikusia duten alderdiak baloratuko dira. Probak 70 galdera izango ditu eta gairatzeko gutxienez 45 asmatu beharko dira. Proba honen gehienezko iraupena ordubeteko izango da.

2. proba: irakurriaren ulermen eta idazmen-ariketak izango ditu. Proba honen ariketak honela kalifikatuko dira:

- Irakurriaren ulermena: Orik 10 puntura
- Idazlan laburra: *Oso Gutxi*-ri puntu 1 dagokio
Gutxi-ri 2 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 4 puntu dagozkio
Ongi-ri 6 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 8 puntu dagozkio
- Idazlan luzea: *Oso Gutxi*-ri puntu 5 dagozkio
Gutxi-ri 10 puntu dagozkio
Nahikoa-ri 15 puntu dagozkio
Ongi-ri 20 puntu dagozkio
Oso Ongi-ri 25 puntu dagozkio

Proba «gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da. «Gai» kalifikazioa eskuratzeko gutxienez 24 puntu lortu behar dira. Azterketa honen gehienezko iraupena 3 ordukoa izango da.

b) Ahozko zatia (3. proba): Ahozko trebetasunak azterketabatzordeko gutxienez bi kideren aurrean erakutsiko dira. «Gai» edo «ez gai» moduan kalifikatuko da
(.....)

14. atala.-Bi hizkuntz eskakizunak egiaztatu nahi dituzten azterketariek eskakizun biei dagozkien probak egin beharko dituzte.

15. atala.-Probaren bat gainditu bai baina denak gainditzen ez badira, egindakoa ez da kontuan hartuko aurrerago egin daitezkeen hizkuntz eskakizunen egiaztapen-prozesuetan.
(.....)

EUSKARA ZERBITZUKO ARGITALPENAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

1.-GLOTODIDAKTIKA-LANAK

a) Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak

- Hizkuntzen Irakaskuntza: Topikoak eta Metodologiak. *N. Gardner* (1).
- Hizkuntzen Irakaskuntza: Gramatika ariketak. *J.A. Mujika* (2).
- Hizkuntzen Irakaskuntza: Mailaketa Gramatikala. *I. Olaziregi* (3).
- Hizkuntzen Irakaskuntza: Zenbait Artikulu (5).
- Hizkuntz Jolasak. *M. Sainz - I. Olaziregi* (15).
- Bakarka 1. Euskera a Distancia. *J.A. Letamendia* (18).
- Bakarka 2. Euskera a Distancia. *J.A. Letamendia* (22).
- Bakarka 3. Euskera a Distancia. *J.A. Letamendia* (29).
- Trebatzen. OHoko Goiko Ziklorako Hizkuntz Ariketak. *M. Sainz* (23).
- Euskalkiz Euskalki. *R.M. Pagola* (19).
- Euskararen Oinarrizko Hiztegia. Maiztasun eta Prestasun Azterketa. *J.M. Etxebarria - J.A. Mujika* (31).
- Oinarrizko Hitzak. Euskarazko Hitz Erabilgarrienak. *I. Olaziregi* (34).

b) Bideo-gidoiak/Txotxongiloak/Musika

- Haurrak Euskalduntzen Giñolaren Bidez I. *I.M. de Lezea - Kukubiltxo* (6)
- Haurrak Euskalduntzen Giñolaren Bidez II. *I.M. de Lezea* (9).
- Eskolarako Ipuinak eta Txotxongiloak. *I.M. de Lezea* (14)
- Ipuin Zahar eta Berriak. *L. Iriondo* (10).
- Kontu Kontari. *L. Iriondo* (20).
- Amonaren Ipuinak. *E. Genua* (12).
- Ipuin Gehiago. *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada* (13).
- Jolasean. *I. Urbieta* (11).
- Musika Hezkuntza Eskolaurrean. *I. Urbieta* (21).

c) Gaitasun-agiriak

- Euskaltzaindiak Batasunerako Eskaini Dituen Erabakiak (8).
- Euskararen Gaitasun Agiria. Programa. (7).
- Irakasleen Euskalduntzea. HE1erako Curriculum (45).
- EGA. 1995-96ko Azterketak (46).
- Irakasleen Hizkuntz Eskakizunak. 1996ko Azterketak (47).

d) Ebaluazioak eta hizkuntz testak

- EIFE 1. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina. (lau hizkuntzatan). *J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra* (HUIS - HPIN).
- EIFE 2. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina. (lau hizkuntzatan). *J. Sierra - I. Olaziregi* (33).
- EIFE 3. Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina. (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez). *J. Sierra - I. Olaziregi* (36).
- HINE. Hizkuntza Idatziaren Neurketa Eskolan. (euskaraz eta gaztelaniaz). *J. Sierra - I. Olaziregi* (38).
- Galbahe E1 Hizkuntz Testa (B eta D erduetako OHoko 2. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (26).

- Galbahe E2 Hizkuntz Testa (B eta D eredueta OHoko 5. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (25).
- Galbahe C1 y C2. Tests de Lengua (Gaztelaniazko testak OHoko 2. eta 5. mailerako). *J. Sierra - I. Olaziregi* (27).
- Zortzi-A Hizkuntz Testa (A eredu OHoko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (28).
- PIR-5 Hizkuntz Testa (B eta D eredueta eskolaurre-amaierarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (30).
- Euskara Probak. Irakurmena eta idazmena (OHoko 8. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (37).
- Pruebas de Lengua. Comprensión lectora y expresión escrita (8.º de EGB). *J. Sierra - I. Olaziregi* (39).

2. HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

- Bizkaieraren Idaztarauak. Deklinabidea eta Aditza. *A. Arejita - J.M. Irazola - J. Uriarte* (1).
- Euskal Aditza: Bizkaiera eta Batua. *J.M. Irazola* (2).
- Bizkaierazko Joskera. *A. Arejita - J.M. Etxebarria - J.M. Irazola - J. Uriarte* (4).
- Hezkuntza Administrazioako Hiztegia. *I. Olaziregi - J.M. Berasategi - M. Zalbide* (5).

3. ZABALKUNDE-LANAK

a) Euskal Ikasmaterialgintza (EIMA programa)

- Hezkuntza Softwarearen Bilduma 1995. *P. Mendizabal - I. Olabarria - M. Zalbide* (41).
- Ikasmaterial Idatzien Bilduma 1994. *J. Aizpurua - B. Basterretxea - I. Olabarria - M. Zalbide* (38).
- Ikus-Entzunezko Ikasmaterialen Bilduma 1994. *P. Mendizabal - I. Olabarria - M. Zalbide* (39).

b) Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea (IRALE programa)

- IRALE. 1996-97ko Aurkezpen-Txostena

c) Normalizazio Legearen Garapena (NOLEGA programa)

- Eskola-Antzerkia. Askoren artean (18).
- Eskola Antzerkia 2. Askoren artean (30).
- Eskola Antzerkia 3. Askoren artean (31).
- Eskola Antzerkia 4. Askoren artean (40).
- Eskola Antzerkia 5. Askoren artean (42).
- Eskola Hiztun Bila. *B. Basterretxea etab.* (28).
- Sagastiberri. Urruzuno Literatur Lehiaketa 1996.
- Euskal Girotze Egonaldietarako Eskuliburua. Askoren artean (16).
- Euskal Girotze Barnetegiak. Askoren artean (34).
- Ikastetxeen Errotulazioa. *C. Lobo - I. Artola - J.M. Berasategi* (37)

d) Bestelakoak

- Euskal Irakaskuntza: 10 Urte *M. Zalbide etab.* (24).

Oharra: Parentesi artean jasotzen da liburu bakoitzak kasuan kasuko sortan duen zenbakia.

IRAKASLEEN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK

“Irakasleen Hizkuntz Eskakizunak. 1996ko azterketak” izeneko liburuan, 124. orrialdean, 51-60 galderen zutabea gaizki dago. Hona hemen koadroa zuzenduta:

HE2: AAG

1	B	11	C	21	D	31	D	41	C	51	B	61	D
2	C	12	C	22	C	32	B	42	B	52	C	62	A
3	A	13	D	23	C	33	D	43	B	53	A	63	B
4	C	14	B	24	B	34	A	44	A	54	B	64	C
5	A	15	B	25	A	35	A	45	D	55	B	65	D
6	D	16	A	26	D	36	D	46	A	56	A	66	B
7	B	17	D	27	C	37	C	47	A	57	C	67	A
8	D	18	B	28	A	38	D	48	C	58	A	68	D
9	D	19	D	29	D	39	A	49	A	59	D	69	C
10	A	20	B	30	C	40	B	50	B	60	C	70	C



Irakasleen hizkuntz eskaintza
EK15020240

Eusko Jaurlareren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 1.000 PTA.